

ttipi-ttapa



GEHIGARRIA / 31

SUKALDE OSASUNGARRIA LESAKAN

Lesakako zahar etxeko sukaldea herritarrei zabandu diete. Egoiliarrentzat ez ezik, haur eskolakoentzat eta bertze hainbatentzat bazkariak prestatzen dituzte astelehenetik ortziralera. / 10



Elkartasun doinuak Lekarozen

Aroztegiko auzipetuen aldeko kanpainaren barrenean, puntako musikariekin kontzertuak izanen dira apirilaren 19an. / 55

SINADURAK



ttipi txartela

Josune Sorondo Oñazola
72875152-A
0221104

ZOKKETA / 76



Ixaso Berrozpe Lesakako erizaina Saharan ibili da lanean / 8



Gorka Lurnaga eta Lorea Floresekin Stop Fosilak ekimenaz / 22



Emakume Master Cupeko binakako txapela jantzi du Alize Sagarduik / 51

ttipi-ttapa

LIDERRAK GURE ESKUALDEAN

baita azterketa egiterakoan CIESeK
Nafarroa Garaiko mendialdean hartu
duen 111 udalerrien eremuan ere.



GARA²

3.000

irakurle

BERRIA²

3.000

irakurle

DIARIO DE NAVARRA²

7.000

irakurle

ttipi-ttapa

25.000¹

irakurle

DIARIO DE NOTICIAS²

10.000

irakurle

BESTE BATZUK²

4.000

irakurle

*1. Osotara, azkeneko hamabostaldian


*2. Nafarroa Garaiko mendialdean, azkeneko aldian

ADINAREN ARABERA


+64 % 23,7
55-64 % 16,1
45-54 % 20,2
35-44 % 8,9
25-34 % 10,7
20-24 % 10,9
14-19 % 9,5



IKASKETA MAILAREN ARABERA



SEXUAREN ARABERA





NIRE TXANDA

MAIALEN IANTZI DANBORIENA

Hitzen magia

Jarlekuak beteta daude, giroa bero nabaritzen da. Protagonistak oholtzan. Hasmentako altxaferoa bota eta hasi da magia ikuskitzuna. Lehenik, bi suhiltzaile solastatu dira. Ondotik, adineko bikote bat. Publikoa kontzentratua dago, mundu berrietan murgilduta. Baina agudo hasiko dira denak irriz; bizitza ez baita beti serio hartu behar! A zer txalo zaparrada eszenatokiko bi haurren arteko solas bihurria aditzean! Segidan, isiltasuna; ailegatu da errespetuaren puntu gorena! Hiperaktiboak garen garaian, denak isilik, deus egin gabe, parean dugunak erranen digunaren zain! Artistaren ahotsak hautsi du tentsioa. Zenbaitzuren masailetan beheiti negar malko bat. Aunitzek oilo larrua nabaritu dute bizkarrezur ondoko azalean! Akaberan, estasia; diskurtsoa akitzeko astirik gabe, entzuleak hunkituta txaloka! Jendearen begiradan nabari da berezia den zerbaiten parte sentitu direla. Bertsoek gure lekuetatik hegan ihes egiteko aukera ematen digute. Ikus-entzuzko azkarrek gidatzen duten munduan, hitza da nagusi bertsoan eta bertsolariak egiten dituzten malabareei begira gaude. Segi dezagun euskaraz bakarrik bizi daitekeen arteaz gozatzen.

«BERTSOEK
HEGAN EGITEKO
AUKERA EMATEN
DIGUTE»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Euskara izaten segitu nahi dugu

Ia bi aste joan dira maitasun eskutitza Xiberotik mendebaldera eramán genuenetik eta hamaika eguneko sukarretik eta ondoko gihar-minetatik haratago, lauburua *gâteau* baten gainean baino gehiago izaten segitu nahi dugu hemendik aitzinera ere. Eta Korrikak euskara «instrumentalizatu» duela dioten «bazerteru» horiek euskararen alde urratsen bat egiten ikusi, ttipi-ttapa!

NABARMENTZEKOAK



ALIZE SAGARDUI
LEKUONA
GOIZUETARRA TXAPELDUN



IMANOL DE RUEDA
GOÑI 'MARTIXPE'
DONEZTEBARRAK DEBUTA

Emakume Master Cupeko binakako txapelketa nagusia irabazi zuen Gaminderekin Eibarko Astelenan, baina Adosen promozio mailako finala, Etxeberriarekin, galdu egin zuen Azpeitian.

Martxoren 28an profesionaletan debuta egin zuen Oriamendiren eskutik Galarretan. Goikoetxea VI. arekin, 2-0 (15-14 eta 15-2) irabazi zien Aiestaren VII.a eta Ugarte II.ari.

GIBELERA BEGIRA



2016-04-07 · TTIPI-TTAPA · 659 zk.

Mikel Alkozekin ilustrazioari buruz

Mikel Alkoz Zabaleta ilustratzaile leitzarrarekin bildu zen TTIPI-TTAPA 659. aldizkarian, Arte Ederrak eta ilustrazioa ikasi ondotik, lehendabiziko liburua ilustratzeko aukera izan zuen leitzarrak. Paxkal Indo idazlearen testua zuen *Ilargi nahia*. Sorkuntza prozesua nolakoa izan zen azaldu zuen Alkozek: «Helburua ez da testuak eskatzen duena bakarrik irudikatzen, baizik eta testu horri ekarpen bat egitea. Testua eta ilustrazioaren bidez osatzen baita ipuina, hau da, elkarren osagarri dira». Lana egiteko bere modua nolakoa den kontatu zuen: «Ia beti eskuz egiten dut dena, hala ohitu naiz eta erosoago sentitzen naiz paperean eginez, ordenagailuz baino. Emaiztan ere pintura edo eskulanaren aztarna ikustea gustatzen zait».

ttipi-ttapa

erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea,
Leire Mihura
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemakleak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Aranxa Etxeberria, Irune

Elizagoien, Maider Petirena,
Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantxa
Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione
Zabalo, Nerea Mortalena, Jean
Louis Bessonart, Ganex
Etxeberrigarai, Maialen Iantzi, Oier
Zulaika, Maite Bertiz, Tere Arretxea,
Kontri Agerre, Xabi Olazar, Iratxe
Obxandorena, Aitziber Zozaia.

Fundazioaren Presidentea
Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
5.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerreko Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2026ko harpidetza sariak
Eskualdekoak,
Hego Euskal Herrikoak
eta Espainiako Estatukoak 60 €
Ipar Euskal Herria, Europa 126 €
Amerika eta Australia 165 €

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

mecna

BAZTANGO
euskara

BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA

Mallerrekako
Mankomunitatea

CC BY SA



KOLABORAZIOAK

JOAN MARI BELOKI KORTEXARENA

Nondik norako berberak

2026an bi gerra handi eta odoltsu ari gara bizitzen. Biek urrutikoak dirudite, baina biek astindu digute bizimodua. Guri inork ez digu eraso, baina gure agintariak milaka milioi euro eta armak bidaltzen ari dira Ukrainara eta diru hori ez da inoiz inbertituko hemengo ospitalean, eskoletan edo alargunen pentsioak hobetzen, adibidez. Iran urrutiago dago, baina, irandarrek Ormuzko Itsasartea partzialki itxi dutenetik gasolina ederki igo zaigu eta azkar garestituko zaizkigu janariak, jantziak eta gainerakoak.

Ukrainako gerra estatubatuarrek piztu zuten 2014an, Yanukovix presidenteari estatu kolpea antolatut ziotenean. Presidente horrek bere herrialdean bakea nahi zuen eta horretarako, Errusiarekin eta EBrekin negoziatzen zuen. Baina yankien helburuak bestelakoak ziren eta Errusiari eraso egiteko prestaketak abiarazi zituzten, gobernuaren politika aldarazteko asmoz. Horretarako, Zelenskirena bezalako gobernuak elikatu dute, nahiz eta naziek sostengatuta izan, nahiz eta Sobiet Batasunatik independentzia eskuratzeko Ukrainak 1991n NATOan ez zela inoiz sartuko sinatu zuen, nahiz eta herritarren kezak isilarazteko milaka ukrainar hil dituzten Donbass behin eta berriz bonbardatuz. Errusia Ukrainako lurretan sartu zenean

«AISE GAIENDUKO ZIRELA USTE ZUTEN, ETA BI GERRETAN GALTZEN ARI DIRA»

Errusiaren eta errusiarren eskubideak babesten ari zen, naziei eta bonba nuklearrak bertan jarri nahi zituzten yankiei aurre eginez.

Iranek, berriz, Israelek nahi lukeen *Israel Handia*

egitasmoa du aurrez aurre. Palestina, Zisjordania, Libano, Egiptoren eta Siriaren zatiak... nahi baititu. Egungo gerraren aurrekari hurbilena 1980-88an dugu, Saddam Husseinek zortzi urteko gerra eragin zionean, AEBren beso armatu bezala jardun eta milioi bat inguru irandar hil zituelarik. Oraingo gerra hau 2025eko ekainean hasi zen *12 Eguneko Gerra* deituan. Israelek hasi zuen eta AEBk eten. Aurrerago, urtarrilean, Mossad eta CIA saiatu ziren gobernuaren aurkako altxamendua eragiten. Horren porrotaren ondotik, otsailaren 28an, AEBk erasoari ekin zioten heriotza ugari eta kalte material izugarriak eraginez. Baina Iran tinko ari zaio eusten eta ez du burua makurtu.

Bi gerrak AEBk piztu dituzte. Bietan zilegizko gobernuak aldatzea bilatu dute. Bietan gobernuburuak hiltzen saiatu dira. Bietan aise gailenduko zirela pentsatu zuten eta bietan galtzen ari dira, harropuzkeria hegemonikoagatik. Errusia eta Iranek beren buruen jabe izaten jarraituko dute.

Europako gobernuak jarrera kontraesankorraz dihardute. Ukrainako gerran, erasotzailearen alde. Iranen kasuan, berriz, erasotzaileei oztopoak jartzen. Bi gerretan AEBk dira erasotzaileak. Errusia eta Iran, berriz, erasotuak. Agintarien eta komunikabideen bide okerra zuzentzeko, Europako herritarrok jarrera aktiboa beharko genuke. Munduaren segurtasun globala dugu jokoan.



MADDI LARRALDE APEZETXEA

Gorputzetik ere, lurraren defentsa

Ttikitatik mendian gozatu dudala erranen banu, ez litzateke egia izanen. Perea ematen zidan maldan goiti alferrik aritzeak. Paisaia gustatzen zitzaidan, arbolak, errekek... baina ez nire ohatzea baino gehiago. Egia erran, berandu hasi nintzen mendizale izaten, eta oraindik ere, mendigoizale izatea kostatzen zait. Azkenaldian, bereziki, geroz eta gehiago. Geroz eta gehiago ikusten dut hirietako produktibitatea mendian zuzenki plasmata. Badirudi ezin dugula lurrarekin dugun loturaz gozatu eskumuturreko ordenagailu tikiari sorik egin gabe, kilometro kopurua inportanteagoa bailitzan gorputzeko nekea baino. Bidea ere atzendu egiten dugu *trackik* ez badugu gida-tzeko. Zenbat eta minutu guttiagotan egin distantzia handiagoa, hobekiago. Desnibel positiboak markatzen ditu pulszazioak, eta negatiboak, berriz, hurrengo eguneko izterretako ondoreak. Baina beti, zenbat eta gehiago izan, hobekiago. Batzuek akaso erranen dute entrenamendua «kontrolatzeko» egiten dituztela neurketa horiek. Jakin nahiko nuke osasun neurketak zenbatek egiten dituzten, hori bada neurtu nahi dena.

Eta ezin aipatu gabe utzi gorputza. Errandako guziaren maki-na erreproduktiboa. Osasunaren izenean horrenbertze egurtzen dena. Gorputz normatiboa osasunaren izenean. Zeinen aise kamuflatzen diren kontzeptuak. Osasun mentalaz solas egingen

«UTZI ARIKETAREN LABURPENA INSTAGRAMERA IGOTZEARI»

bagenu... zeren neurketak ez dira norbere kalkuluetara mugatzen. Sare sozialak dira bertze helburuetako bat. Strava gisako errendimendura bideratutako sareetan partekatzea ez ezik, lortutako emaitzen laburpenak

Instagramera igotzea ere bada xedea. Hori azpimarratu nahiko nuke: utzi Instagramera egin duzuen ariketaren laburpena igotzeari, faborez eta arren. Harro bazaudete egin duzuenarekin, hausnarketa tiki bat egin zuen harrotasunaren nolakotasunaren inguruan, eta ondotik, zuen sentsazioekin partekatu, baina ez zaigu inporta lau minutuz kilometroa egin izana. Stravak merkatuaren industria segituz emaitza indibidualak ditu jomuga. Sare sozialetan emaitzak goratzeak ez du kirolarien arteko saretzerik sustatzen, are kontrakoa, aldendu egiten ditu.

Herri ttikienetako lasterketetako dortsalak egun eskasetan akabatzen dira. 300 pertsona inguru pasatzen dira lur eremu beretik, eta ez era amultsuan bereziki. Hamaika gel-plastiko hartzen ditu lurrak (super osasuntsuak diren horiek, noski) eta lurreko bizidunek. Gure lurretan ez dugu makroproiekturik nahi, baina finean gu ere hala bihurtuko gara.

Hasieran aipatutako momentu hartan, mendiaren zaletasuna ihesbidetik lortu nuela erranen nuke. Azkartasunetik, errutinatik, bukletik, itxitasunetik (fisikoki eta mentalki), burrunbatik eta jendearengandik eskapu. Baina momentu batean niri ere zentzu horiek lausotu zitzaizkidan. Akaso horregatik diot hau guzia. Larrutan bizi izanak eman dit zer hausnartua. Ez da gure kulpa, baina ardura guk ere badugu hein ttipi batean bada ere. Berradiskidetu dezagun gorputza mendiarekin. Lasterketa ez dadin izan helburu bat eta bakarra.

11 GALDERA LABUR

LARA DAANE FOTEA EZKURRAN BIZI DEN VALENTZIARRA

«Euskara ikasteko denbora eta toki egokia bilatu ditut»

Nor da Lara Daane Fortea?

Pertsona umila eta kuriooso, ingeleseko irakaslea, lau ahizpetan hirugarrena, ama, eta ikasteko, erakusteko eta hazten segitzeko gogo handia duena. **Ezkurran bizi den valentziarra edo Valentzian sortutako ezkurra?** Galdera ona. Ama Valentziakoa da eta aita Trinidad eta Tobagokoa. Catarrojan (Valentzia) hazi nintzen. Belgikan, Donostian eta Bartzelonan bizi izan naiz, eta orain Ezkurran. Nire sustraiak Valentzian daude eta nire etxea, orain, Ezkurran.

Ze afizio dituzu?

Leitzea, puzzleak egitea, mendian paseatzea, yoga egitea eta bidaiatzea gustatzen zait.

Zer ekarriko zenuke Valentziatik?

Argitasuna, laranja loreen usaina, hortxata artisaua eta su artifizialak.

Eta Euskal Herritik Valentziara zer eramanen zenuke?

Mendietako kolore berdea, tximinia usaina eta udan tapatuta lo egin ahal izatea.

Euskara ikasten ari omen zara...

Bai, Donostiara bizitzera joan nintzenetik buruan nuen. Azkenean, Ezkurran, denbora eta toki egokia bilatu ditut. Semearen eskolan euskaraz ez dakiten gurasoentzako klaseak ematen dituzte. Egunerokoan euskaraz moldatzeko maila hartzeko dira, oinarrizkoena erakusten dute.

Zer moduz moldatzen zara?

Oraindik hasiberria naiz, baina Sonia irakasleak dena bikain esplikatzen du eta oso klase dinamikoak egiten ditu. Nahiko hizkuntza konplikatu iruditzen zait, hitzek ez baitute deus ikus-tekorik gaztelaniarekin edo ingelesarekin. Euskaratik gehien



gustatzen zaidana hitz batzuk literalki itzulita duten esanahia da, baita hitz horien soina ere. **Ze esanen zenuke gaztelaniar aritzen diren euskaldunei?**

Pena dela ez erabiltzea, hizkuntza bakarra eta zoragarria baita. **Ezkurrako ospakizunetan ohikoak dira paellak. Valentziakoak bezain onak dira?**

Valentziatik kanpo ere arroz bikaina egiten ahal da, baina paella autentikoa egitea oso zaila da. Hemengo produktuak kalitate handikoak dira, baina

paellak teknika eta denbora zehatzak ditu. Valentziako amonek esaten duten bezala, sekretua ura da. Kanpoan probatu ditudanei valentziarrok «arroza gauzekin» deitzen diegu. Onak dira, baina ez dira gauza bera.

Mendia edo plaia?

Dudarik gabe, plaia. Baina zorionez, hemen, berdez inguratutako plaia zoragarriak daude.

Nora bidaiatuko zenuke?

Toki askotara! Euskal Herrian deskubritu gabeko txoko asko ditut oraindik.



Bilduma berria

75. urteurrena

urteurrena dela eta, erosketa bakoitzeko opariak banatuko ditugu



1951tik

Casa Cambra

lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak

Mahai oihalak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak

Toallak

Edredoi azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Euskara Madrilen

XANTI BEGIRISTAIN

Orain dela urte gutxi arte, Madrilgo Kongresuan eta Senatuan, euskara erabiltzea debekatua zegoenean, batzuetan, euskal diputatu eta senatari batzuk saiatzen ziren euskaraz hitz egiten, baina, orduan, berehalaxe eragotzi egiten zieten. Bazirudien, han, Madrilgo erakunde eta instituzio haietan, euskaraz mintzatzeko desiratzen eta amorratzen zirela euskal politikari haiek.

Orain dela gutxi, ordea, azkenean eskubide hori lortu denean, gaur egun ez dirudi euskal diputatuek eta senatariek gose handirik dutenik, han, Madrilen, euskara seriotasunez eta engaiamenduz erabiltzeko.

Jakina, ni ez naiz egoten areto eta egoitza haietan, eta, ez ditut ikus-entzuten euskal politikariek egiten dituzten mintzaldi guztiak, baina hainbat eta hainbat hedabideren bitartez iristen zaizkidan hitzaldi haietako gehienak, behintzat, espainiera hutsean egiten dituztela ikusten dut, edo, irudipen hori izaten dut behinik behin.

Politikari batzuek, mintzaldien hasieretan eta bukaeretan erabiltzen dute euskara pixka bat. Beste batzuek, tarteka-marteka, eta, azkenik, beste hizlari batzuek, iruditzen zait, ez dutela ia-ia batere erabiltzen. Beste modu batez azalduta, nik esanen nuke, salbuespenak izanen direla hitzaldi oso-osoak euskaraz egiten dituzten politikari horiek.

Jakina da: beti erabiltzen den hizkuntza zorroztu eta trebatu egiten da, eta, aldiz, gutxi erabiltzen dena, herdoildu eta

baldartu. Horregatik, batzuetan pentsatzen dut, ez ote duten hori egiten, azken batean, espainieraz errazago eta erosoago moldatzen direlako euskaraz baino, eta, begira zer-nolako kontraesana eta zeinen lotsagarria izanen litzatekeen hori, politikari euskaldun, abertzale eta independentziazale batentzat!, ez al da hala? Hau da, aurkari politikoaren hizkuntzan errazago egitea norberarenean baino, bestela, zergatik jokatu horrela, han, itzulpen eta interprete zerbitzu ona edukita? Non uzten dituzte euskararen prestigioa, harrotasuna eta bultzada? Txillardegik, esate baterako, horrela jokatu al luke gaur egun Madrilen? Ez dut uste! Bestela, ikus dezagun nola jarduten duten benetako nazioek eta estatuek: frantsesek, alemaniarrek, italiarrek, turkiarrek, txinatarrek, japoniarrek eta abarrek, esate baterako, norberak bere hizkuntza erabiltzen du beti, instituzio eta erakunde ofizial guztietan, batere konplexurik gabe. Eta euskaldunok zergatik ez beti, baimena eta aukera dugun toki guztietan? Gutxiagotasun konplexu gehiegi agian? Edota, ez ote dugu sinisten benetan nazioa garela?

Jokatzen dugun moduan jokatura, ematen du, dena gelditzen dela itxurakeria hutsean; utzikeria handiegia iruditzen zait. Badirudi, transmititu nahi dugula, ahalegin txiki batekin, nahikoa dela plantak egiteko.

Badakit oso-oso gaizki geldi daitekeela norberak bere burua aipatzea, baina nik hemen kontatu nahi dut, Iruñeko Udalean aritu nintzenez, osoko bilkura

guzti-guztietan, beti jardun izan nuela euskaraz, salbuespenik gabe, horretarako, hain zuzen ere, gure hizkuntzari behar duen prestigioa emateko, eta, nire txikian, uste dut zertxobait lortuko nuela.

Azken hilabete hauetan, Euskararen Nazioarteko Eguna joan zenean, Durangoko Azoka egin ondoren, bertsolarien hainbat txapelketaren finalak jokatu eta gero, euskarari buruzko azterlan asko egindakoan, Kontseiluak hizkuntza larrialdia ohartarazi digunean, oldarraldi judizialak hamarnaka zenbatuta, Korrika ari denean eta abar, eta abar, pentsatzen dut badugula garaia noizbait erreakzionatzeko, eta, baita goi mailako politikariek ere, beti euskara erabilia eta batere konplexurik gabe.

Era horretan, gainera, Madrilen lanpostu gehiago lortu eta sendotu ahalko lirateke, pertsona euskaldun batzuentzat; Parisen, oraingoz, suposatzen dut, debekatuta egonen dela euskaraz egitea Frantziako Asanblea Nazionallean.

Euskal politikari batzuei entzun diet argudiatzen, hobe dela euskaraz egitea Euskal Herriko instituzioetan, eta, horrekin bat nator, baina, hala eta guztiz ere, uste dut, batek ez duela bestea bazterten.

Hona hemen, zer esan edo idatzi omen zuten Bitoriano Gandiagak, oker ez banago, alegia, «Euskaldunok egin dezakegun ekintzarik iraultzaileena, euskaraz aritzea da». Hala bedi!

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...



Zein da zuzena?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

'Eguzkia' edo 'eguzkia'?

Astronomian, planeten, sateliteen, izarren, konstelazioen, galaxien eta, oro har, astro guzien izenetan, hasierako letra maiuskulaz eskribitzen da. Izen bereziak dira Eguzkia, Ilargia eta Lurra.

- Eguzkitik Ilargira.
- Lurretik Eguzkira.
- Satelite bakarra du Lurra: Ilargia.

Baina letra xehez eskribitzen dira kasu batzuetan. Konparazio, testuinguru berezi horretatik kanpo ('satelite edo astro' adieratik kanpo) daudenean:

- Gogotik berotzen du gaur eguzkiak.
- Gainerako guztiak lokaturik daude, eguzkitan etzanda.
- Horra mendiak ilargitan.
- Ematen du ilargian dagoela, ez da deusetaz ohartzen.

Letra xehez eskribitzen dira, ondorioz, hauek ere: ilargi bete, ilargialdi, ilargiratu, ilargitar...

Hitz elkarketetan, berriz, (marratxoarekin lotuta zein lotu gabe): eguzki(-)eklipse, eguzki(-)panel, eguzki(-)urte, eguzki(-)energia, eguzki(-)sistema, ilargi(-)eklipse, ilargi(-)adar, ilargi(-)izpi, ilargi(-)urte, ilargi(-)aldarte, lur(-)eremu, lur(-)globo, zero(-)lurra...

Hieroglifikoa

Enbor adarretan hazten den landarea.



A

Kalko ustelak

'*Ura ardoan bihurtu' edo 'Ura ardo bihurtu'?

Bihurtu aditzak mugagabeen eskatzen du (eta berdin *bilakatu*) aditzaren predikatu osagarri den izena. Beraz, *ura ardo bihurtu* da zuzena. Hona hemen adibide batzuk:

- *Ura ardoan bihurtu > Ura ardo bihurtu.
- *Eguna gaua bihurtu > Eguna gau bihurtu.
- *Topikoa bihurtu > Topiko bihurtu.
- *Igel batean bihurtu zen > Igel bihurtu zen.

Zenbaitetan, hala ere, determinatzailea behar izaten du, berekin baldin badarama izenondo, izenlagun, perpaus erlatibo edo halako osagarriren bat:

- Emakumerik azkarrena bihurtu zen.
- Buztin-kolorekoak bihurtu ziren.

Baina artikulua ez da beti nahitaezkoa:

- Gizon eder(a) bihurtu.
- Bihotz sendoko emakume(a) bihurtu...


Eta gogoan izan. Kalko desegokia da era horretakoak inesiboan (-n) erabiltzea. Euskal moldean ez da *zertan* bihurtu, baizik *zer* bihurtu.

- Emakumerik ederrena (**ederrenean*) bihurtu zen.
- Ura ardo bihurtu zuen (**ardoan*, **ardotan*).

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

«Herri libre batekin amets egiten dute sahararrek»

ITXASO BERROZPE ERIZAINA

Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan erizain gisa lanean izan da hamahiru egunez Berrozpe Shifa elkartearekin. Etorkezunean Saharara itzuli nahiko luke pazienteei jarraipena egiteko

A. LARRETxea

27 urte ditu Itxaso Berrozpe lesakarrak eta erizaina da Donostiako Unibertsitate Ospitalean. Egunerokoan mendia eta natura gustuko ditu, nahiz eta onartu duen etxean lasai ere «erraz» egoten den horietakoa dela. Etxetik urruti, aurtengo urtarrilean eta otsailean Saharan izan da hamahiru egunez bertako kanpamentuetan bizi diren herritarrak artatzen. Lehendabizikoz izan da bertan, baina ez luke azken bidaiaria izatea nahi. Saharan bizitakoa eta sentitutakoa kontatu ditu.

Betidanik izan duzu argi erizaina izan nahi zenuela?

Alde batetik, argi nuen arlo zientifikoari lotutako zerbaite ikasi nahi nuela. Bertetik, egunerokotasunean jendearekin kontaktua izan nahi nuen eta erizaintza aukera ona iruditu zitzaidan. Hasieran ez nekien hagitx ongi zer izanen zen erizaintza, izan ere erizainaren figura argi bat dago orokorrean, baina ikasketak egin ahala bide aunitz irekitzen dituen lanbide bat dela deskubritu nuen, eta hagitx kontent nago egindako aukeraketarekin.

Ikasketak bukatu zenituenetik nolakoa izan da zure lan ibilbidea?

Urte eta erdiz guti goiti-beheiti Hondarribiko Bidasoa Ospitalean aritu nintzen lanean ospitalizazioko hainbat eremu diferentetan. Ondotik, Donostiako Ospitalean aritu naiz. Lehendabizi neonatologian formazio bat egin nuen, bertan

aritu nintzen lanean hilabete batzuek eta ondotik, pediatriako hainbat eremutan ibili naiz. Gaur egun, pediatriko larrialdietan ari naiz lanean Donostian.

Berriki Saharako errefuxiatuen kanpalekuan izan zara erizain gisa



Itxaso Berrozpe erizaina Saharan. UTZITAKO ARGAZKIA

«HAGITX KONTENT GAUDE BIDAIK IZAN DUEN EMAITZAREKIN»

«KANPALEKURA EGOKITUTAKO PROTOKOLOAK SORTU DITUGU»

lanean. Lehendabiziko aldian zenuen bertan?

Bai, aurtan izan naiz lehendabizikoz. Duela pare bat urte Shifa elkartera batu nintzen. Erizainez osatutako elkarte bat da Shifa. Aurtan, mediku batzuk ere elkartera dira elkartera eta, beraz, lehendabizikoz bidaiari medikuak ere izan ditugu gurekin.

Zein dira Shifa elkartearen helburuak?

Shifa Osasun Elkarte irabazi asmorik gabeko osasun elkarte da, 2023an erizain talde batek sortua. Proiektu honen helburu nagusia saharako errefuxiatuen kanpamentuetan osasun zerbitzua ematea da, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko (SEAD) Osasun Publikoko Ministerioarekin batera lan eginez.

Eta zer lan egiten duzue?

Saharako errefuxiatuentzat beharrezkoak diren osasun material eta sendagaiak biltzen ditugu, alde aitzinetik bertako Osasun Ministerioarekin beharrik adostuz. Horrez gain, bertako osasun profesionalentzako osasun hezkuntza programak diseinatu eta martxan jartzen ditugu, eta Ahmed Abdelfatah Erizaintza Eskolarekin ere lan egiten dugu erizaintzako ikasleentzako hezkuntza prozesuan laguntzeko. Azkenik, Euskal Herritik bertatik ere Saharako errefuxiatuak bizi duten errealitatea ikusaraztea eta horri buruz sentsibilizatzea ere helburutako bat da guretzat, horretarako ikastetxeetan hitzaldiak ematen ditugu, irratian edo aldizkarietan elkarrizketak egin, eta gehien bat sare sozialak erabiltzen ditugu.

Nola ailegatu zitzaizun Saharara joateko proposamena?

Shifa elkartearen Fati izeneko erizain bat dago, izatez sahararra dena eta berak bere ikasle kide batzuekin batera bultzatu zuen elkartearen sorrera. Nik elkartearen kide batez agutu nuen lanean, Jon, eta bere bidez elkartera batu nintzen eta horrela sortu zitzaidan joateko aukera. Erizaintza ikasten ari

nintzela jada izan nuen aukera antzeko proiektu batean parte hartzeko. Formazio bat egin eta Bolibiara joateko nintzen, baina zoritxarez COVID-19aren pandemia ailegatu eta ezin izan nuen proiektua garatu. Beraz, horrelako proiektu batean parte hartzea egiteke nuen zerbait zen.

Bertara lanera joan ahal izateko prestakuntza berezirik egin behar izan duzue?

Ez dugu formazio berezirik jaso. Gure kabuz, mediku batzuen laguntzarekin eta Osakidetza-ko protokoloetan oinarrituz, kanpalekutara egokitutako protokoloak garatu ditugu urte hauetan. Protokolo hauek ongi barneratu eta elkarteko medikuek emandako bertze formazio batzuk ere jaso ditugu.

Nolakoa izan da Saharara egindako bidaia?

Smarako probintzian izan gara, hamahiru egunez. Hagitz kontent gaude bidaiaren emaitzarekin, bai talde bezala hagitz ongi moldatu garelako eta baita orokorrean egindako guztia hagitz ongi ateri zaigulako.

Zer nolako lana egin duzue?

Hiru bloketan banatu dugu lana, eta kide guztiek izan dugu aukera denetan aritzeko. Alde batetik, Smarako ospitalean larrialdiak artatu ditugu. Lehenengo egunetan jende gutti etortzen zen, baina gero ahoz aho zabaldu zen komisio bat ospitalean zegoela, eta azkeneko jende dezente etorri zen. Bertzetik, osasun hezkuntza eman dugu dispensarioetan, gure lehen arretako zentroak diren. Diabetesari eta hipertentsioari buruz solasean aritu gara gehien bat, bertan gehien ikusten diren gaixotasun kronikoak baitira. Azkenik, etxeko laguntza ere eman dugu, familia behartsuenetara iritsi nahi genuen nolabait, eta egia erran hagitz aberasgarria eta gogobetegarria izan da guretzat. Aurten lehendabizikoz egin dugu hau elkarte bezala eta ederra izan da, hurrengo bidaietarako pertsona hauekin



Fati, Jon eta Ixaso herritarrak artatzeko gunean. UTZITAKOA



Elkarteko kideak desertuan. UTZITAKOA



Saharara joandako Shifa elkarteko kideak. UTZITAKOA

«DIABETESA ETA HIPERTENSIOA HAGITZ OHIKOAK DIRA HAN»

«GURE LANA AUNITZ ESKERTU DUTE ARTATU DITUGUNEK»

jarraipen bat egitea dugu helburu.

Zein izan da errefuxiatuen kanpamentuan aurkitutako egoera?

Kanpalekuak desertuan erakitako komunitate bat dira, errekurtsorik gabekoa. Estruktura aldetik, etxe gehienak hagitz sinpleak dira, hormigoizko blokeekin egindakoak edo animalien azalarekin egindako jaimak. Baliabideak ere eskasak dira, uraren erabilera hagitz ongi neurtu behar dute, eta elikagaiak ere gehien bat laguntza humanitarioaren bidez lortzen dituzte. Guretzat 'normalak' diren gauza aunitz han pribilegioak dira aunitzetan.

Osasun aldetik, zer nolako egoeran daude bertako biztanleak?

Diabetesa eta hipertentsioa hagitz ohikoak dira. Kulturalki ohitura aunitz dituzte gaixotasun hauek izatea erraztu ditzaketanak, eta kuriozosa da hagitz kontziente direla, baina hain kulturala da, zaila dela aldatzea... Adibidez, tea hartzeko ohitura handia dago, eguneko edozein momentutan hartzen dute, eta teari azukre aunitz botatzen diote.

Zerk harritu zaitu gehien?

Kanpalekuetako egoera hain pobrea izanik, jendeak nolako jarrera duen. Kontent bizi da jendea orokorrean, lasai, eta izugarrizko esperantzarekin, Sahara libre baten esperantzarekin. Anekdotak bezala, bikote heldu bati taka-taka bat oparitu genien eta neraien erantzuna izan zen hagitz eskertuak zeudela eta Sahara libre izatean beraien etxera gonbidatuko gintuztela afaltzera.

Nolakoa esperientzia izan da?

Lehendabiziko aldiz joan naiz kooperante eta esperientzia bezala hagitz gomendagarria izan da. Txoke kulturala izugarria izan da, baina pertsonalki hagitz aberasgarria.

Etorkizunean pentsatu duzue bertze bidaiaren bat egitea?

Saharako errefuxiatuen kanpalekutara itzultzea aunitz gustatuko litzaidake. Proiektu honekin kontent nago eta ez dut bertzerik burutan.



Ladis Satrustegi alkatea, Katy Mihalcea sukaldaria, Laura Apeztegia Andra Mariko zuzendaria, Jabier Etxegarai erabiltzailea eta Ivan Riobo sukaldaria. AITOR AROTZENA

Sukalde osasungarria martxan hasi da Lesakan

Andra Mari zahar etxeko sukaldetik, bertako egoiliarrentzako aste osoko hiru otorduak ez ezik, aste egunez beharra duten hamaika pertsonentzat eta Magala Haur Eskolako 25 umeentzat bazkariak prestatzen hasiak dira ikasturte honetan, herritarren zaintza helburu

AITOR AROTZENA LESAKA
Lesakako Udalak, Andra Mari zaharren egoitzarekin, Lesakako Osasun Zentroarekin eta Bortzirietako Gizarte Mankomunitatearekin batera, *Sukalde Osasungarria* proiektua aurkeztu zuen joan den urteko urrian. Proiektu honen bitartez, Andra Mari egoitzako sukaldean prestatutako bazkariarekin, etxez etxeko janari zerbitzua eskaintzen zaie beharra duten herritarrei, herriko zaintza komunitarioan aitzinera pausu bat gehiago emanez. Laburbilduz, Andra Mari egoitzako sukaldean prestatutako janariak, bertako egoiliarrentzat ez ezik, beharra duten egoitzatik kanpoko erabiltzaileei ere eskaintzen zaie. Gaur-gaurkoz hamaika erabiltzaile dituzte eta horietatik hiruk zahar etxetik ber-

tatik biltzen dute bazkaria eta bertze zortziri etxera eramaten zaie. Gainera, joan den urteko abuztutik, Magala Haur Eskolako bazkariak ere Andra Mariri prestatzen dituzte.

Laura Apeztegia Zahar Etxeko zuzendariak aipatu digunez, «zahar etxean 40 plaza ditugu eta bertze bortz eguneko egonaldiako, astelehenetik ortziralerara, eta jangela zerbitzua eskaintzen diegu. Sukalde hori kanpora zabaltzea pentsatu genuen. Abuztuan hasi ginen Haur Eskolako bazkariak eramaten eta orain, hurrengo pausua izan da herriko adinduei eta beharra dutenei janaria eramateko zerbitzua martxan jartzea: bazkaria prestatu eta nahi bada bertan bildu edo etxera eraman».

Ladis Satrustegi alkatearen erranetan, «zaintzaren inguru-

ruko proiektua da. Zahar etxeak badu bere sukalde propioa eta hori hobekiago erabiltzen ahal genuela pentsatu genuen, zerbitzu zabalago bat eskaini eta zenbait formula aztertu eta gero, bideragarriena etxez etxeko zerbitzua ematea zela erabaki dugu. Profil jakin bat betetzen duten lesakarrei etxera eramaten zaie janaria, zaintza moduan eskaintzen den zerbitzua da».

Astelehenetik ortziralerara

Zerbitzua astelehenetik ortziralerara ematen da, «hamaika

**HOGEI LAGUNI
EMATEN AHAL ZAIE
ZERBITZUA GAURKO
AZPIEGITURAREKIN**

plazarekin hasi gara, poliki-poliki zabaltzeko asmoarekin. Hamaika horietatik hiruk Andra Mari egoitzan hartzen dituzte bazkariak eta bertze zortzietan etxera eramaten zaie. Baina gaur egun dugun azpiegiturarekin eta langilegoarekin, hogei bat laguni ere eskaintzen ahal zaie zerbitzua, inolako arazorik gabe», Laura Apeztegiaren erranetan. Prezioari dagokionez, zahar etxean bertan biltzen bada 7 eurokoa da eta 9 eurokoa etxera eramanez gero. Apeztegiak dioenez, «joan den urteko abuztuan hasi ginen Haur Eskolarekin, kurtsua hasi zenean. Urrian egin zen Sukalde Osasungarriaren aurkezpena eta azaroan hasi ginen probatzen. Hasieran erran genuen astelehenetik ortziralerara, besta egunak baldin bada diran tartean ez, baina igual eman izan zaie besta egunetan ere. Asteburuetan ez. Martxa horrekin hasi ginen, zerbitzua eta lanpostuak pixka bat egonkortzeko eta gero, asteburuetarako ere behar baldin bada, ikusiko dugu. Itxura batean, aurtun lanpostuak egonkortuko dira eta bertze kolpe bat ematen ahal zaio zerbitzuari, egunero emanez, jende gehiagori emanez... Haur Eskolan ditugu 25 eta Andra Mari egoi-

tzan 40 egoiliar, eta eguneko zentroan borts. Beraz, egunero-egunero, aste egunez behinik behin, 80 herritarrentzako bazkaria prestatu eta banatzen dugu; egoitzakoentzako hiru otorduak eta kanpokoentzako bazkaria bakarrik».

Noski, janaria prestatzera-koan, ez da gauza bera zahar etxeko egoiliar bati, sukalde osasungarriko erabiltzaile bati edo haur eskolako ume bati janaria prestatzea, batzuen eta bertzeen elikadura beharrek ez baitira berdinak. Laura Apeztegiak aipatu digunez, «hasieran aldaketa batzuk egin genituen, oroitzen naiz batek erran zigula ez zuela makarroiak jaten, arraina ez dakit zer... pixka bat egokitzen joan gara hasiz geroztik. Ezin duzu mila aldaketa egin eta menu erabat pertsonalizatua eskaini, baina moldatzeko moduko eskaera errazak baldin badira, moldatu ditugu, bai». Hasieran haurrentzat eta zaharrentzat menu «igualtsua» egitea pentsatu zuten, baina haurren menuetan badira aldaketa batzuk... «Badira gauzak kointziditzen dutenak, baina bertze batzuk diferentexeko prestatzen dira».

Ladis Satrustegi alkateak gehitu duenez, «azkenean proiektua jaiotzen da momentuan dauden azpiegiturak probestuz, dauden baldintzetara egokituz, baina egia da gauza hauek noizbat solastatu ditugula. Laurak aipatu duen bezala, etorkizunean asteburuetan ere emateko planteamendu bat egin daiteke, besta egunetan segitu orain bezala, gerora ere sukaldeak ere bere beharrak izanen ditu, baina hori hobetuz edo handituz gero... hasierako diagnostiko batean mahai gainean jarri zen, kantzitate handixeko emanda eta bi *tuper* eramanenez gero, bazkarirako eta biharamunerako afarirako balio dezakeela... Egia da gaur-gaurkoz ez dela ematen, baina aukera bat izan daiteke».



Izaskun Garmendia sukalde laguntzailea, lanean. ITSASO ALCALDE

Zaintza helburu

Nagusiki zaintza da zerbitzu honen helburua, baina Lesakako alkateak dioenez, «zaintza hitzak baditu konnotazio aunitz. Niri interesgarria iruditzen zait janaria eramateaz aparte, konfiantza harreman edo lotura bat sortzen ahal dela pertsona horien eta janaria etxera eramaten dietenen artean. Oraindik arrankatzen ari gara eta denak erlojuaren kontra bizi gara, baina borts minutu horiek ere aunitzerako eman dezakete. Hor ere, beharra duten pertsona horien inguruko informazioa biltzen ahal dugu, nola dauden, zein premia dituzten... Nork daki, gero, horren bitartez, proiektu hau hobekiago planteatu edo bertze berri batzuk gauzatu. Osasunaren aldetik ere, osasun zentrotako langileek azpimarratu dutenez, elikadurak garrantzi handia dauka gure ongizatean eta horrek ere bertze arazo batzuk hobetzen ditu edo arazoak dituz-

tenak hobeki artatzen laguntzen du».

Ildo horretan sakonduz, Laura Apeztegiaren erranetan, «urtean behin bederen nahi dugu etxeetara bisita bat egin, eta horretan hasiko dira zahar etxeko gizarte langilea eta mankomunitateko bertze bat. Bertara joan eta galdetu zer moduz dauden, zer iruditzen zaion janaria... Bisita horietan bertze gauza batzuk ere ikusten ahal dira. Janaria banatzen dutenek ere ikusten ahal dute, ongi dagoen edo ez, laguntza behar duen, atea irekitzeko arazoak dituen... ez da beraien lana, baina momentu horretan ikusten dute eta laguntza handia da. Pista bat eman dezaiokegu osasun zentzori edo gizarte zerbitzuari, jarraipen bat egin ahal izateko».

Harrera ona

Aurkezpena egin eta segidan bazen jendea zerbitzua hartzen. «Herrian harrera ona izan zuen eta zerbitzua era-

biltzen ez duen jendeak ere begi onez ikusi zuen», dio Satrustegik, «etorkizunean behar bat izaten ahal dutela ikusten dute, izaten ahal dugula denek ere, eta zerbait positiboa iruditzen zaie. Magala haur txokoan erran digutenez, janaria hagitz ona da eta familiak hagitz kontent daude aldaketarekin».

Bertze aldean, sukalde osasungarriaren kasuan, estigmatizazioaren beldurra ere egon daitekeela onartzen du Apeztegiak: «Osasun zentrotik zerbitzua erabiltzeko moduko borts pertsonen berri eman zuten, baina horietatik bik ezezkoa erran zuten. Hor ezin duzu deus egin, ez badute nahi, ez... Baina beharbada ikusten badute jendea kontent dagoela zerbitzuarekin, urrats hori ematen ahal dute».

Alderantzizkoa ere gertatu zaiela diote alkateak eta Andra Mariko zuzendariak, «guri etorri izan zaigu gure adineko jendea, eskatuko luketeela erranez, baina ez da hori kontua, egiatan beharra duen jendearengana ailegatu nahi dugu». Izan ere, Sukalde Osasungarriko zerbitzua baliatu ahal izateko baldintza batzuk bete behar dira: «Lesakan erroldatua izatea eskatzen —>

«JANARIA EMATEAZ GAIN, KONFIANTZA LOTURA BAT SORTZEN AHAL DA»

«URTEAN BEHIN ETXEETARA BISITA EGIN NAHI DUGU»

LAURA APEZTEGIA (ANDRA MARI)

→ da, 65 urtetik goiti izatea eta mendekotasun graduren bateko balorazio ofiziala izatea edo 60 urtetik goiti eta %33tik goitiko ezintasuna edo desgaitasuna izatea edo gizarte bazterketa jasateko arriskuan egotea, etxean egoera konplikaturen bat izatea... gizarte langileekin egon eta txosten bat egitea eskatzen zaie, justifikatzeko bati ematen zaiola eta bertzeari ez. Eskaerak osasun zentroan, gizarte zerbitzuan edo zahar etxean egiten dira eta kasuak banan-banan baloratzen dira», dio Laura Apeztegiak. Eta Ladis Satrustegik honakoa gaineratu du: «Beraien ongizateari begira, pertsona horiek ematen dizuten bueltako informazio horrekin egiten ahal dituzu bertze lanketa batzuk. Ez da zahar etxeko langileen lana, baina hemen bazen helburua, zahar etxeak, herriko etxeak, osasun zentroak eta gizarte langileek sare moduko bat osatzea, eta bat bertzearen arrimoan elkarlanean aritzea. Horretan ere sakondu beharko dugu, praktika horiek hobetzen eta komunikazioa hobetzen. Egia da zahar etxearen eta osasun zentroaren artean komunikazio estua badela, gizarte langileekin ere bai... herriko etxeak bertze arlo batzuetan ere egiten ditu bere lanak, baina hau komunikazio hori hobetzeko bertze plataforma bat da eta hemendik aitzinera egiten diren gauza guztiak ongietorriak izanen dira. Herriarren batekin kezka badugu, eta zerbitzu hau eskaintzea planteatu dugu beregana ailegatzeko modu bat bezala».

Lau hankako mahaia

Proiektu honetan, elkarlanaren garrantzia azpimarratu du Ladis Satrustegik eta «lau hankako mahaia» bezala definitu du. «Andra Mari egoitza publikoa da eta, azken finean, udalak erantzun beharra du eta horregatik, gure azpiegiturak jarri genituen zerbitzu honetarako. Baina, datuen



Katy Mihalcea sukaldaria bazkaria ematen Jabier Etxegarai erabiltzaileari. A. AROTZENA

babesagatik, guk ez dugu sartzetik jakiteko zein diren zerbitzua hartzen duten erabiltzaileak. Osasun zentroak eta gizarte langileek egiten dute balorazio bat, balorazio horretan sartzen baldin badira ematen zaie eta automatikoki funtzionatzen du. Herriko Etxearen funtzioa da horren kontrol bat eramatea, ongi dagoela konprobatu, inbertsio bat egin behar baldin bada egin. Kasu honetan, banaketarako kotxe bat erosi zen, labe industrial berezi bat erosi, janaria garraiatzeko polispañezko bandejak eta *tuperrak* erosi, sukaldaritzako pertsonala ere indartu dugu (gero egonkortu behar dugu)... Zahar Etxeak bere sukalde bazuen eta horren arabera dimentsionatu da, sukalde oso bat zerotik muntatzea zailagoa izanen zen. Plater on bat egiteko osagaiak bagenituen eta koiuntura hori probestu dugu. Balorazioak egitea eta zerbitzua

«ZAINZAREN ETORKIZUNA KOMUNITARIOAGOA NAHI DUGU»

aitzineran eramatea profesionalen esku utzi dugu. Kiroldegiak eta osasun zentroak egindako Kirol Errezetarekin bagenuen praktika bat, zaintza mahaia ere osatzen ari da eta sare hori pixkanaka zabaltzen ari gara eta zaintzaren etorkizuna komunitarioagoa izatea lortzen ari gara».

Etorkizunera begira anbiziotsuagoak

Zerbitzua asteburuetara ere zabaltzea, hogeitaz lagunera ailegatzeko, otordu bat izan ordez bi izatea... Horiek begibistan dituzte, baina Lesakako alkatearen ustez, «anbiziotsuagoak izan nahi badugu, Cedernako teknikaria ere begira ari da, ekoizleak bertakoak izatea, produktuak nondik erosten diren begiratzea... Baztango egoitzan edo Berako haur eskolan eta bertze sukalde batzuetan egiten den bezala, ekoizleekin bertako produktua erosteko urratsa eman dute.

«HURRENGO SALTOA JANTOKI KOMUNITARIOA LITZATEKE»

Egia da lan bat eskatzen duela eta horrekin ez dugu epe zehatz bat jarri, poliki-poliki joanen gara. Bertze salto bat izanen zen, etxera eramateaz gain, jendea honat etorri ahal izatea, jantoki komunitario moduko bat izatea. Etxeetan kuku bat egiten ahal diezu pertsona horiei, baina pertsona horiek igual ez dute bertze minutuko bisita batekin aski, bertze pertsonekin harremana izan behar dute, jende gehiagorekin denbora eman, bertze aktibitate eta lanketa batzuk egin, sozializatu... eta hori jantoki bateratu batean egiten ahal da. Baina zahar etxea goitiraino dago eta horretarako lekurik ez dago eta momentuan deskartatu genuen, baina etorkizunean aukera hori hor egonen da».

Ladis Satrustegik animatu nahi du jendea zerbitzua erabiltzera eta, aldi berean, «eskerrak eman proiektuan parte hartzen duten bertze eragileei, nolabait eguneroko erosotasunetik atera behar delako... horrek hasieran lan estra bat eskatu zien batzuei. Zaintzaren aldetik denak eman behar dugu zerbitzu, eta hau da oraingoz horretan egiten ahal dugun aportazio umila».

«Janaria goxo-goxoa dagoela erraten digute eta horrek asebetetzen gaitu»

IVAN RIOBO ETA KATY MIHALCEA SUKALDARIAK

Andra Mari egoitzako sukaldariek egokitu behar izan dute ikasturte honetan eskatu zaizkien zerbitzu berrietara. Katy Mihalcea eta Ivan Riobok aipatu digutenez, «aldaketa izan bada, azkenean egunero 35 bazkari gehiago dira, baina egia da poliki-poliki hasi ginela egokitzten... haur eskolako errazagoa da, bandejatan eramaten delako. Sukalde osasungarriko erabiltzaileei bakoitzari bere tuperrak eramaten zaizkio, lehenengo platera, bigarren platera, postrea... baina moldatzen gara». Lehen baino sukaldari bat gehiago ere ari da lanean eta baldintza hobek dituzte, «bertzela ezinezkoa izanen litzateke». Beraiek prestatutako janariak harrera ona izaten duela eta kontent daude, «momentuz ez dugu kezarik, alderantziz, denek goxo-goxoa dagoela aipatu izan digute eta horrek asebetetzen gaitu». Riobok

dioenez, «etxetara joaten garenean galdetzen diegu, eta orokorrean, gustura daudela erraten digute». Katy Mihalcea Lesakan bizi da eta «karrikan nabiltzean gelditzen naute haur eskolako gurasoek eta erraten didate haurrak gustura daudela. Beti erraten diegu zerbaitek gustukoa ez badute edo aldaketa nahi badute, guri jakinarazteko. Adibidez, badugu pasta gustuko ez duen pertsona bat, orduan, pasta den egun bertze zerbaitek jartzen diogu, zopa edo purea».

Hasiera batean haur eskolako, adinekoen egoitzarako eta sukalde osasungarriko otordu berdina prestatzen zuten, baina «orain aldatzen hasiak gara eta gaur, erraterako, bakoitzarentzat hiru lehenbiziko plater ezberdin prestatu behar izan ditugu, batzuetan eromena da. Beharrik labe berri handi bat ekarri diguten! Janari berdintsua



A. AROTZENA

beharko litzateke, baina beti ez da posible. Egoitzarako piper beteak egiten baditugu, hori ezin da haur eskolara eraman, haurrei ez zaielako gustatzen edo adinekoentzako sagarreak egiten baditugu, haurrei sagar konpota egiten diegu, horrelako gauzak... Oinari berdintsuekin aldatetako tikiak egiten ditugu». Hiru «bezero» ezberdin izanagatik, ez dute elikadura aholkuak ematen dizkien nutrizionistarik edo aditurik, «gure esperientziatik abiatzen gara», dio Riobok. «Hasieran, osasun arlotik, Ausolan enpresak gida-

tu gintuen eta ikasturte hasieran menuak aurkeztu zitzaizkien haur eskolako eta horrekin abiatu ginen». Hori bai, era anitzeko menuak dituzte, «barazkiak, lekaleak, haragia, arraina, fruta...», baina ez zaigu inor etortzen aholkua ematera, 'hau astean hainbertze aldiz, eta bertze hau hainbatetan'. Haur Eskolan aldaketa tikiak egin behar izaten dituzte, «sei hilabete dituztenean purea behar dute eta handitu ahala, igual barazkiak edo fruta puxka tikietan egin behar zaie, hori egokituz joan behar izan dugu».

«Hagitz janari ona prestatzen dute eta beti diferentea gainera»

JABIER ETXEGARAI OIARZABAL ERABILTZAILEA

Ama Andra Mari egoitzako egoiliarra du Jabier Etxegarai eta egunero bisitan joaten zaio. Horrela jakin zuen sukalde osasungarria zerbitzuaren berri eta eguneroko erabiltzaile da. «Ama hemen dago oraingoz eta ni bakarrik nago etxean». Gustura dago astegunetik eskaintzen dioten bazkari horrekin, «hagitz-hagitz janari ona prestatzen dute eta beti diferentea: lehenbiziko platera, bigarrena, postrea eta ogi puxka bat. Norberak etxera eraman ahal izatea ere komodidade handia da niretzat, etxeko janaria bezalakoa dela-

ko. Nik ez dut kezarik, batean pasta entsalada, bertzean barazkia, albondigak, oilaskoa... Lehengo egunean bertan postrerako *lechefrita* prestatu zuten eta erogarria zen, hagitz-hagitz ona eta errazio handia e! Katy egina. Ez omen zuten inoiz egina, baina egun horretan egin zuten eta bikaina zegoen, «estaba delicioso» aitortzen dio Katy Mihalcea sukaldariari. «Nik ez dut janaririk ateratzen nik aitzinetik probatu ez baldin badut», erantzuten dio honek. «Nire gustura ez badago, ez da ateratzen, zaporea gustukoa izan



A. AROTZENA

behar dut, hori da nire mania». Jabier Etxegarai astelehentik ortziralera Andra Mariko sukaldean prestatutako bazkaria jaten du, beraz, baina gustatuko litzaioteko asteburuetan ere horretarako aukera izatea. «Bai bai, zerbitzu hori

oraingoz ez da, baina noizbait hasten baldin bada, gustura hartuko dut asteburuetan ere! Afaria eskaintzea soberaxko izanen litzateke, bazkaria nahiko da, baina asteburuetako bazkaria ere posible balitz, bikain!» dio irriz. «Etxean bazkaldu ondotik, zahar etxetik eramandako ontziak garbitu, kajan altxatu eta biharamunekin bazkariarekin etortzen direnean, bueltatzen diet garraio-lariei. Hagitz eroso da eta hagitz gustura nago zerbitzu honekin. Hagitz merkea da gainera! Zahar etxean hartzen baldin badut zapzi euro eta etxera eramaten baldin badidate bederatzi euro, niri, normalean etxera eramaten didate. Nora zoaz prezio horretan bazkaltzera?».

Aldi baterako lau peoi kontratatzeko deialdia

Izangaiek apirilaren 13ra arteko epea izanen dute dokumentazioa udalean zein telematikoki aurkezteko

A. LARRETXEA

Oposizio bidez sei hilabetarako lau langile kontratatzeko deialdia egin du Udalak. Kontratuko dituzten bi langile mendiko suteak prebenitzeko peoiak izanen dira, eta bertze biak zerbitzu aniztetarako peoiak. Azken hauek eraikuntzako profila izanen dute eta ondarea birgaitzeko lanak egiten ariko dira. Lau langile hauek D kategoria izanen dute.

Izangaiek euskaraz jakin beharko dute eta Nafar Lansareko enplegu bulego batean izena emanda eta dagokion

zundaketan sartuak egon beharko dute.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren abisua hartu duten pertsonak, deialdian adierazitako dokumentazioarekin batera, eskabidea apirilaren 13a baino lehen aurkeztu beharko dute. Dokumentazioa eskura entregatu nahi dutenek apirilaren 13ko 13:30ak baino lehen egin beharko dute, eta telematikoki egiten dutenek, egun bereko 23:59ak baino lehen.

Ondotik eginen dituzte euskara proba titulurik ez dutenek, eta proba teorikoa denek.

'Zaldi bat' liburuari buruz Maddi Ane Txoperenarekin apirilaren 23an

A. LARRETXEA

Literatura Geraldia ekimenaren barrenean, Maddi Ane Txoperena Iribarren idazle eta bertsolari lesakarra Beran izanen da apirilaren 23an. Berriki argitaratu du Txoperenak *Zaldi bat* bere hirugarren eleberria eta horri buruz

ariko da solasean Beran. Hitzordua apirilaren 23an, ortzeguna, izanen da 18:00etan liburutegian

Bortziritako euskara zerbitzuak antolatu du solasaldia, Berako Irakurle Taldearekin eta liburutegiko arduradunekin elkarlanean.



AEK

Beran ere 'Euskara gara'!

Beran ere euskara garelara aldarrikatu zuten martxoaren 24ko goizaldean Korrikaren bat egin zuten euskaltzaleek. Lekukoa eskuz esku ibili zuten Irundik Lesakara artean. Argazkian, goian, Barraskilo Gazte Taldekoak eta Espidobaitakoak eta behean Goldatzekoak ageri dira.

Herri Haitadako mus txapelketan aritzeko kanporaketa apirilaren 26an

A. LARRETXEA

Maiatzaren 16an eginen dute Herri Haitada Beran. Antolaketa lanetan murgilduta daude beratarrak eta martxo hondarrean bukatu zen taldean izena emateko epea.

Museko lehiari dagokionez, Bera ordezkatu nahi dutenek

apirilaren 26an izanen dute kanporaketa. Espidobaitan jokatu dute kanporaketa 16:00etan hasita eta bikote bakoitzak hamar euro ordaindu beharko ditu.

Irabazleek bina botila ardo eta Herri Haitadan parte hartzeko eskubidea irabaziko dute.

zalai
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziratera

Zalain Auzoa BERA t. 948 630 967 w. www.zalain.info

Goieko
GOI MAILAKO EKOLOGIA

Bidourene Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun t. 943 63 45 36

regina tolosa
FISIOTERAPEUTA

K-STRETCH

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T/F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T/F. 943 633 050 • IRUN

Centro Prim regina tolosaechepare

Mendi Maratoi Erdiaren 20. edizioa apirilaren 19an

Irteera eta iritsiera puntua Kanttonberri karrikan izanen dira eta ibilbide berria denez, ez dute errekorren saririk banatuko

A. LARRETXEA

Dena prest du Manttale Mendi Lasterketa Taldeak apirilaren 19an egingen den Berako Mendi Maratoi Erdiako. Ibilbide berria izanen du aurten lasterketak Altzateko lanak tarteko Kanttonberri hasi eta bukatuko baita. Ibilbidean hiru puntutan izanen dira aldaketak eta asfalto guttiago eta mendi bide gehiago izanen ditu. Ibilbide berria denez, aurten ez dute errekorren saririk banatuko.

Kanttonberri karrikan hasiko da proba igandean 09:30ean. Probarekin batera, proba ikus-

teko bi ateraldi ere prestatu ditu Manttalek. Lasterketa Larhunen ikusteko irteera 08:30ean aterako da irteera puntutik eta Usategieta eta Landagañetan ikustekoa 09:00etan. Lehen lasterkaria 11:10 aldean ailegatu dela aurreikusi dute.

Mendi Maratoi Erdiarekin batera, Gazte Trail proba ere jokatu dute egun berean. 14 eta 15 urteko gaztetxoek 7,9 kilometroko bidea egin behar dute, eta 16 eta 18 urte artekoek 9,5 kilometrokoa. 10:15ean aterako dira bi probak suhiltzaileen aparkalekutik eta dor-



Lasterkariak iazko probaren irteera puntuan. A. LARRETXEA

tsalak pb.organisation.com helbidean erosi daitezke. Maratoi erdirako azken dortsalak ere bertan daude.

Haurren lasterketa bezperan

Bezperan, haurrentzako Tiki Trail proba egingen dute. Kanttonberri karrikak izanen dira probaketa lau kategoriatan banatuta. Izen ematea debalde izanen da eta aitzinetik Manttalen webgunean eta egunean berean 15:30etik aitzinera egi-

ten ahal da. Parte hartzaile denek hartuko dute oparia eta ondotik merienda izanen da.

Larhunen beira biltzen

Manttaleko kideak Zizkuitetik Larhunera arteko lasterketa tartea garbitzen izan ziren martxoaren 19an. Lasterketako eremu aldapatsua da eta lasterkari aunitzek eskuak lurrean jartzen dituzte. Lasterkariaren segurtasuna bermatzeko bertako kristalakkenduzituzten.

Apirilaren 25ean egingen dute Berako Dantzari Tiki Eguna 31. edizioa

A. LARRETXEA

Bera dantzari ttikien bilgune izanen da apirilaren 25ean. 31. aldiz antolatu du Dantzari Tiki Eguna Gure Txokoa Dantza Taldeak. Herriko dantzari ez gain, Gipuzkoako bi taldetako dantzariak ariko dira dantzan egun horretan: Zaldibiako Iz-

tueta Dantza Taldekoak eta Ibarra Alur Dantza Taldekoak.

Egitaruari dagokionez, 11:00etatik aitzinera herriko hainbat lekutan ariko dira haurrak dantzari musikariekin batera eta ondotik, 12:00etan jaialdia egingen dute talde denek batera. Eguraldi ona bada He-

rriko Etxeko Plazan izanen da jaialdia, eta txarra bada, berriz, Eztegara frontoian. Bazkaldu ondotik, 16:00etan dantzaldia izanen da Jeiki Hadi taldearekin Labiagako estalpean.

Dantzari Tiki Eguna ez da apirilaren 25ean egingen duten ekitaldi bakarra izanebn, egun horretan egingen baitute Toki Onako estalpean azienda feria ere. Horren egitaraua hurrengo aldizkarian.

Maiatzaren 9an egingen dute Berako Gazte Eguna

Bertze urte batez Gazte Eguna antolatu du Barraskilo Gazte Taldeak. Antolaketa lanetan hasiak dira dagoeneko Barraskiloko gazteak, eta oraindik egitaraua zabaldu ez badute ere, data finkatu eta agendan gordetzeko eskatu dute: maiatzaren 9an izanen da.


BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
 Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA


 arropa-denda
 etxeko osagarriak | lantzeria
 Altzate, 30 BERA T. 948 630 136


 ostatu jatetxea
 Astelehen arrabaldetan kontsumigaztekin Pintxoak debalde!

 T. 948 63 01 07 • 649 37 77 23 | Foruen plaza, 1 • BERA


Alberto RETEGI
 abokatua
 abokatua
 © 948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

Aniztasun Eguna ospatuko da herrian maiatzaren 31n

Bortzirietako Hizkuntza eta Kultura Aniztasun taldeak antolatuko du, bertze zenbait jardunaldirekin

AITOR AROTZENA

Hirugarren urtez, abian da Bortzirietako Hizkuntza eta Kultura Aniztasun taldea, Bortzirietako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuaren ekimenez sortu zena. Aniztasun taldea irekia dago parte hartu nahi duten herritar eta eragile ororentzat. Saiakera izan da hasieratik jatorriz eta ibilbidez anitza den taldea osatzea, eta migratzaileek ahotsa izatea eta euren parte hartzea sustatzea. Honako hauek dira taldearen helburuak: etorri berriei harrera egitea, herritarren elkar ezagutza eta sentsibilizazioa, hizkuntza eta kultura aniztasuna aitortzea, euskara migratzaileei hurbiltzea, eta aurreiritzi, diskriminazio eta arrazakeriaren kontra borrokatzea. Aniztasun taldeak, Arrazakeria Ezabatze Nazioarteko Egunaren harira adierazpena egitea erabaki du, «gizarte justu, inklusibo eta diskriminaziorik gabekoa eraikitze konpromisoa» berretsiz.

Maiatzaren 21ean Nazioarteko Kultura Aniztasunaren

Nazioarteko Eguna izanen da, eta hori dela eta, aniztasun taldeak jardunaldiak eta aniztasun eguna antolatuko ditu, Lesakan, maiatzaren 31n, igandearrekin, goiz-eguerdi partean. Tailerrak, jolasak eta janaria izanen dira eta laster batean hasiko dira jardunaldian parte hartzeko gonbidapenak helarazten herritar zein eragileei. *info+:* erran.eus

Liburutegiaren hamargarren urteurrenko ekitaldiak

Liburutegia Harriondoa kultur etxera eraman zela hamar urte bete direla eta urte osoan antolatutako ekitaldien barrenean, **apirilaren 22an**, Danle Sarriugarteren *Beste zerbaite* liburua aurkeztuko dute, 18:00etan. **Hilaren 23an**, Eneko Bidegainen *Bichta Éder* eleberria hizpide hartuta egilearekin solasaldia egingen dute (18:30). **Hilaren 24an** Ines Bengoa ipuin kontalaria izanen da liburutegian (17:30). Bertzetik, sanferminetako besta batzordearen bilera izanen da herriko etxean **apirilaren 13an**, astelehenean, 19:00etan.

Ernatu udaberriko dantza zikloko azken saioak

Led Silhouette taldeak *Ultimatum* lana aurkeztuko du **apirilaren 12an**, igandean 19:00etan Harriondoa (sarrera 6 euro) eta Tantirumairu, Ereintza eta Sahatsa dantza taldeen helduen emanaldia izanen da **apirilaren 18an** Plaza Zaharrean (18:00).

Eraikuntza eta hirigintza ikastaroa J. I. Muruarekin

Obrak eta urbanizazioak erakitzean sortzen diren arazoak konpontzeko oinarriko eza-gutza praktikoen ikastaroa eskainiko du Jose Ignacio Muruak **apirilaren 23-30 eta maiatzaren 7, 14, 21 eta 28an** Irain eskolan (17:00-19:00). kultura@lesaka.eus (16a arte).



UTZITAKOA

Bianditzen makroelikoek kontra

Domiko-Erreka proiekturik ez! goiburupean, Bianditzera mendi martxa egin zuten martxoaren 28an Lesakatik eta Oiartzundik abiatuta, Endara Bizirik eta Bianditz-Domiko bizirik! taldeek deituta. Bi herrien muga egiten duen kaskoan makroproiektu eolikoek kontrako aldarrikapena egin zuten.



UTZITAKOA

Beti Gazteko beteranoek Realari irabazi

Ikusmina piztu zuen martxoaren 28an Mastegin jokaturako Beti Gazte eta Donostiako Real Sociedad taldeetako beteranoen arteko futbol partidak. Lesakarrak 2-1 nagusitu ziren, Pablo Tabernak eta Igor Gurrutxagak egindako golei esker. Realeko gola Bittor Alkizak egin zuen, penaltiz.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

MARITX
• INGENIARITZA ELEKTRIKOA
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK
• BOLETIN INDUSTRIA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA

Sanferminetako portada eta kartel lehiaketako lanak hilaren 24ra arte

2026ko sanferminetako programaren azala eta kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du udalak, herrian sortu edo ta bertan bizi direnentzat. Lanak aurkezteko epea apirilaren 24ko 13:00etan bukatuko da. Aurten ere azalaren neurria 210x210 mm-koa izanen da osotara (3 mm-ko tar-tearekin). Kartela, aldiz, DIN A3 neurrikoa (297x420 mm-koa). Derrigorrez, *Lesaka 2026ko Sanferminak* agertu beharko du bietan. Ezin izanen da adimen artifizialik erabili. Kartel nahiz azal lehiaketen irabazleek 250 euroko saria izanen dute. Egile berak ezin izanen ditu bi sariak irabazi.

Bertze aldetik, gibelesko azala aukeratzeko, Lesakan sortu edo bertan errolatuak dauden 6 urtetik 12ra bitarteko haurrei zuzendutako azal lehiaketa ere deitu du udalak. Hauen lanak ere (210x210 mm-ko neurrian) apirilaren 24rako aurkeztu beharko dira udal bulegoetan. Irabazlearendako saria, Lesakako dendetan eskolako materiala erosteko 100 euroko balioa duen saria izanen da.

Aurkezten diren lanekin erakusketa bat osatuko da eta, aurten ere, herri bozketak erabakiko du lehiaketa.



Autokarabanentzako gunearen sarbidea, Otsango industrialdean. A. AROTZENA

Autokarabanentzako gune berria martxan paratu dute

Otsango industrialdearen eta Landazelaietaren artean dagoen guneak hamar plaza eta oinarrizko zerbitzuak eskaintzen ditu


AITOR AROTZENA

Autokarabanentzako gune berria martxan jarri du Lesakako Udalak, bisitariari atsedean hartzeko eta gaua pasatzeko espazio egoki eta eroso eskainiz herri sarreran, Otsango industrialdearen eta Landazelaietaren artean. Guneak hamar plaza ditu, eta erabiltzaileentzako oinarrizko zerbitzuak eskaintzen ditu: ur edangarria, ur gris eta beltzak husteko puntua eta argindarra. Horrez gain, mahaiekin hornitutako atsedean gune bat ere badu, bisitariak ingurua lasai gozatzeko aukera izan dezaten.

Herrigunera ailegatzeko oinez bortz minutu aski dira.

Sarbidea automatizatu da, eta erabiltzaileek online erreserba eta ordainketa egiteko aukera dute. Eguneko prezioa 10 eurokoa da (tasa turistikoa barne). Gainera, guneak bi-deozaintza sistema eta gaueko argiztapena ditu, segurtasuna bermatzeko. Proiektu honen bidez, Lesakak bisitariari harrera egiteko aukera berriak eskaintzen ditu, bere eskaintza turistikoa osatuz.

Erreserbak egiteko: <https://www.campingcarpark.com/es> webgunean.



Mitxelena irabazle Castellón.

Luciano Mitxelena garaile The Millars garaile The Millars iraupen luzeko lasterketa handian


A. AROTZENA

Beti Gazteko Luciano Mitxelena txirrindulari lesakarrak Castelló de la Planan UCIk martxoaren 22an antolatutako The Millars Gran Fondo World Series 2026 txapelketako iraupen luzeko txirrindularitza lasterketa entzutetsua irabazi zuen, 70 eta 74 urte artekoen kategorian. 5 ordu, 4 minutu eta 37 segundo behar izan zituen 157 kilometro luze eta 2.200 metroko desnibel positiboa zuen ibilbidea osatzeko. Emigliano Campus frantziarra bigarren izan zen eta Jose Maria Garcia Saiz kantabriarra hirugarren. Abuztuan Japonian jokatu behar den munduko txapelketan parte hartzeko aukera du orain Luciano Mitxelenak.



948 631 217 | 630 136 863
Julio Caro Baroja 6, 31790 Bera
jaurienabera@gmail.com

ELEKTRIZITATE LANAK
Erreformak, etxe berriak
Lantegietarako mantentze-lanak



EGUZKI
PANELEN
INSTALAZIOAK



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KOMBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

LINDURRENBORDA SAGARDOTEGIA



Txotx denboraldia irekia!
Ortzegunetik igandera irekita,
eguerditik aitzinera.

Egin erreserba!!

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) · TEL. 948 63 72 12



Herriko Etxeko eta Usazaleak elkarte ordezkariek, zentroan. LEIRE OLAGARAI

Lizarietako interpretazio zentroa dagoeneko zabalik

Herriko Etxeak eta Etxalarko Usazaleen Elkarteak berriki sinatu dute bere kudeaketarako lankidetzaz hitzarmena

IRUNE ELIZAGOIEN

Zabalik da dagoeneko Lizarietako Ingurumenaren eta hegazti migratzaileen interpretazio zentroa. Aste Santuko egunak pasata, aste hondarretan egonen da zabalik. Joan den abenduko inagurazio ekitaldian ezagutu ahal izan zenez, Lizarietako jardueren berri eman da bertan, lau buruz osatutako agertokian: Natura, Kultura, Hegaztiak eta Usategieta. Ikus-entzunezkoen, argazkien eta bertzelakoen bidez horiek hobe ezagutzeko aukera eskaintzen da. Horrez gain, inguruan ekoiz-

tutako produktuak eta oroi-garriak erosi ahal izanen dira. Interpretazio zentroko sarre-ra doakoa izanen da; horregatik animatzen dira herritarrek zein bisitariak, Lizarietako parajeaz gozatu bidenabar, gune berri hori bisitatzera. Nahiz oraindik ordutegirik ez den zehaztu, bisita gidatuak ere eskainiko dituzte, erreserba eginez. Hainbat jarduera antolatzea aurreikusten da, Lizarietako lepoa animatzeko helburuarekin. Usazaleen Elkarteak bere ekarpena egin nahi du elkargune horrek merrezi duen eskaintza osatzeko.

Etxalarko Herriko Ostaturerentan hartzeko eskaintzak hilaren 14ra arte

Herriko Ostaturerentan eta jatetxe zerbitzua errentan emateko lehiaketa publikoa egitea erabaki zuen Etxalarko Udalak martxoaren 12ko osoko bilkuran. Errentamendua iraupena 5 urtekoa izanen da (luzagarria). Hileko errenta 400 eurokoa izanen da lehe-

nengo urtean. Bigarren urte-tik aitzinera 500 eurokoa. Klausula administratibo partikularren agiria interesatuen eskura dago udal bulegoetan eta www.etxalar.eus atarian. Eskaintzak aurkezteko epea apirilaren 14an, asteartean 12:00etan bukatuko da.



KORRIKA.EUS

Nahiko laster eginda 24. Korrikan

Martxoaren 24an dozenaka herritar aritu ziren euskararen alde lasterka. Larraburua, Landagain, Herriko Okindegia, Altxata, Plazako denda, Haritzpe okindegia, Lorpen, udala eta Etxalarko Gaztik eskuz esku pasa zuten lekukoa. Arratsaldean, korrika ttikia egin zuten ikasle eta irakasleek.



LANDAGAIN ESKOLA

Ekimen ugari Landagain eskolan

Martxoaren ekimenez bete da Landagainen: UEMAko teknikariaren eta Paula Beorlegi judokaren bisiten ondotik, Zuhaitzaren eguna ere ospatu zuten Axerilepon martxoaren 13an (argazkian). Maribel Aiertza Rementeria idazlea eskolan izan zen *Izaroren izarra* liburua aurkezten.

LAN EDER
Manterola S.L.
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA | GASA | KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602


744 484 361
ttipi-ttapa

DESINSEKTAZIOAK • **ARRATOI-HILTZEAK** • **EGUR TRATAMENDUAK**
DESINFEKZIOAK • **HEGAZTIEN KONTROLA**
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

Berrikuntzak egin eta mediku kontsulta martxan

Hezetasun arazoak moldatzeko lanak egin dituzte eta laister bigarren faseari ekinen diote, denera 25.000 euroko inbertsioa

ANA ETA ITZIAR

Bortzirietako zerbitzu medikoen eskariari erantzunez, mediku kontsultako hezetasun arazoak ezabatzeko obrei aurre egitea erabaki zuen udalak. Beharrezko lanak bi astez luzatu dira, eta horietan igantziarrek Arantzara joan behar izan dute arreta medikoa jasotzeko. Nelli Rus enpresak egin du lana, 16.284,40 euroren truke. Bigarren fase bati ekinen zaio orain, kanpotik ura ez iragazteko. Baina oraingoan ez da beharrezkoa izanen kontsultategia publikoari ixtea. Obrak enpre-

sa berak egingen ditu, eta kostua 8.783,39 eurokoa izanen da. Denera 25.067,79 euro mediku kontsulta baldintza egokietan uzteko.

Aldaketak udal taldean

Irati Alkorta Garciak dimisioa aurkeztu zuen otsailaren 11n. Udalak bere dimisioa onartu eta egindako zerbitzuak eskertu dizkio. Honek, Manuel Telletxearen heriotzarekin batera, zinegotzi kopurua murriztu du. Gelditzen direnek agintaldia bukatu arte segituko dute lanean.



Korrika Ttikia, herrian barrena. ANA ETA ITZIAR

Korrika Kulturalak eta Korrikak jendetza mugitu dute euskararen alde

Aurtengo Korrika ere joan zai-gu laster batean. Alde batetik Korrika kulturalako ekitaldietan giro ederra izan zen. Martxoaren 21ean Korrika Ttikia egin zen, musikarekin batera, Aiesteneko bordatik abiatuta. Eguerdian, berriz, bertso bazkaria izan zen Biltokin Ekhiñe Zapiain eta Joanes Illaregi

bertsolariekin. Ondotik bingoa aritu ziren bertso arruntetan eta musikatuan.

Martxoaren 24an ailegatu zen Korrikan, lesakarrei lekuko hartu eta jende andana ibili zen lasterka eta kantuan. Azkeneko urteetan egin den gisan, ondotik egindako gosarian jende puska bildu zen.

Oihan Canabalek bi txapel handi Apeztegiarekin

Oihan Canabal herriko pilotariak, Elizondoko Unax Apeztegiarekin batera, Espainiako Erregearen Kopa eta Espainiako klubun arteko txapelketetako finalak irabazi zituen martxoko bi asteburutan.



UTZITAKOA



ESKOLAK UTZIA

Eskolako ikasleen antzerki ederrak

Martxoaren 23an egin ziren Baratzondon urtero eskolako haurrek prestatutako antzerki saioak. Denetara lau antzezlan antzestu zituzten: *Txorimaloa* (HH), *Piratak* (LH 1-2-3), *Itzal handia* (LH 4) eta *Soinuaren uhinak* (LH 5-6). Denetan, artista sena ederra erakutsi zuten neska-mutikoeak.

BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDORRIAK
1988 - 2018

609 446 693 - 948 625 663

www.bidasoa.com

Gurpil eskaintza bereziki 24h-ko existentziak errepideetan 147 euroko zerbitzu deialak Gasolindegia 24h irekita

GASOLIOA ETXERA
erazten dugu

Alkaga Industrialdea
Zubi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)

Noain-Eskiroz Industrialdea
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

ENERGIA BERRITASUNAK

ENERGIA BERRITASUNAK

ENERGIA BERRITASUNAK

Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 630 60 80 34 / 630 56 50 65

AINHOA ALTZUGUREN MITXELENA
ABOKATUA

Dibortzioak | Kontratuak | Arazo administratiboak
BERA | M. 630 972 189 | ainhoaaltzuguren@gmail.com

Apirilaren 22an solasaldia Itxaso Martin idazlearekin

Literatura Geraldiak zikloaren harira, 'Puntobobo' liburuaren idazlea liburutegian izanen da

NEREA ALZURI

Nafarroako hainbat euskara zerbitzuko antolatutako Literatura Geraldiak zikloaren bertze edizio bat hasia da. Euskaraz leitzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzea, herritarren euskarazko kultur kontsumoan indartzea, euskal liburugintza

indartzea, liburutegi publikoen erabilera bulkatzea eta esperientzia literarioak partekatzea ditu helburu zikloak eta herrian ere geldialdia egingen du.

Apirilaren 22an, Itxaso Martinek *Puntobobo* liburuari buruzko solasaldia eskainiko du liburutegian, 18:00etan.



USKARANTZA

175 herritar Astaluntan lehiaketan

Otsailaren 23tik martxoaren 27a 175 herritar ibili dira Uskarantz taldeak antolatutako Astaluntan lehiaketan. Momentuz, bukatu da, baina «euskaraz jostetan eta solasean» segitzeko deia egin du taldeak. Lehiaketan parte hartu duten eskolako lagunei oparia ere banatu die: *Arantzan zer? Uskaraz leher?* kamisetak.



G. PIKABEA

Korrika eta Korrika Ttikia ederrak

Martxoaren 24an, Korrika nagusian ibili ziren herritarrek, eta martxoaren 27an, berriz, Korrika Ttikian. Uskarantz taldearen gonbitari erantzunez, herriko 23 talde eta eragileren eskuetan ibili zen Korrika Ttikiko lekukoa. Euskararen aldeko mezuak ere leitu zituzten, eta guraso elkarteak merienda eman zuen.

Kottori buruzko dokumentala liburutegian

Martxoaren 27an *Gutun bat Kottori* dokumentala eman zuten liburutegian. Jende saila bildu zen eta erran zuten, aunitz gustatu zitzaizen. Ekhiñe Zapiain zuzendari laguntzailea ere bertan izan zen.



E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

📍 Bidasoa, 76 - 31780 BERA
☎️ 948 63 10 27 📞 670 598 560
✉️ info@tabernaedariak.eus
🌐 www.tabernaedariak.eus



BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
ARROPA ETA OSAGARRIAK

Helbide berria!

Bidasoa, 76, BERA | T.948 382 682 | joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com

BERGAMONT BH cannondale PINARELLO ORBEA monty GOBIK MMR



Baxera berrerabilgarria eta ekitaldi jasagarriak sustatuko ditu kanpainak.

57.525,30 euroko laguntza Hondakinen Mankomunitateari

Nafarroako Gobernuaren finantziazioa 2025eko Hondakin Funtsaren Etxekoen urteko fluxutik dator, zenbait ekintzatarako

TTIPI-TTAPA

Gaur egun 30 euroko kanona ordaintzen dute Nafarroako Hondakinen Mankomunitateek zabortegira botatzen den etxeko hondakinen tona bakoitzeko. Kanon hori batez ere errefuxa edukiontzian bildutako hondakin nahasietatik dator, eta hiru hilean behin

ordaindu behar izaten dute tokian tokiko mankomunitateek.

Kanon horren bidez bildutako diruarekin, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak hondakinen funtsa elikatzen du. Funts hori, gero, mankomunitateentzako di-

raguntza deialdi bat egiteko erabiltzen da.

57.525 euroko dirulaguntza Bortzirietara

Bada 2025ean, Bortzirietako Mankomunitateak proiektu bat aurkeztu zuen eta 57.525,30 euroko dirulaguntza hartu du Etxekoen Urteko Fluxuan eta ondoko ekintza hauek garatuko ditu:

- Materia organikoari akonpainamendua.
- Hondakinen prebentzioari buruzko sentsibilizazio kanpaina: Baxera berrerabilgarria eta ekitaldi jasagarriak. Materia organikoaren eta ontzi arinen bereizketa eta birziklapena hobetzeko kanpaina: etxeko kanpaina, poltsa horiak banatzea, edukiontzi horietarako itsasgarri berriak diseinatu eta inprimatzea, informazio gutuna bidaltzea, iragarkiak Xorroxin Irratian...
- Traste handien kudeaketa egokia egiteko kanpaina.
- Formazioa, informazioa eta sentsibilizazioa mankomunitatearen web orriaren eta sare sozialen bidez.
- Formazioa, informazioa eta sentsibilizazioa mankomunitatearen egutegiaren bidez.

Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abiatu du Euskara Zerbitzuak

Nafarroan apirilaren 9an hasiko da 2025eko Errenta eta Ondare Kanpaina eta, ekainaren 25era bitarte, online, telefonoz eta bertatik bertara, milaka nafarrek egin beharko dute tramite hori. UEMAK eta Bortzirietako Euskara Zerbitzuak, bertze hainbat erakunde publikorekin elkarlanean, errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abiarazi dute.

Bide ezberdinak

1. Errenta aitortpenaren **autolikidazio proposamena zuzenean euskaraz** hartu ahal izateko, hizkuntza aldaketa egiteko eskaera egin beharra dago: labur.eus/ErrentaEuskarazNafarroan.
2. **Telefono bidez:** Hitzordua hartzerakoan, adierazi ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula.
3. **Internet bidez:** Foru Ogasunaren errenta.nafarroa.eus atarian sartu (*beste tramite batzuk* atalean), eta hizkuntza atalean euskara hautatu.



2026-2027 ikasturtea

LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK D EREDUAN (EUSKARAZ)

TOKI ONA BHI BERA

MEKATRONIKA INDUSTRIALA
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

MANTENTZE ELEKTROMEKANIKOA
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

IZEN EMATEA: APIRILAREN 20tik 30era

Telefonoa: 848 431 710

tokionabhi.web.educacion.navarra.es

tokionabhi@educacion.navarra.es






«Desazkundera eta berriztagarriak, biak behar dira»

LOREA FLORES ETA GORKA LAURNAGA STOP FOSILAK TALDEKO KIDEAK

Planetak bizi duen larrialdi klimatikoaren aitzinean, Stop Fosilak ekimena abiarazi dute eskualdean. Erregai fosiletatik energia berriztagarrietara jauzia «urgentziazkoa» dela ozen diote

LEIRE MIHURA

Larrialdi klimatikoa solasgai, Gorka Laurnaga eta Lorea Floresek argi diote: «Gure egoera arras larria da: etxea sutan dago eta gasolina botatzen segitzen diogu». Gauzak horrela, trantsizio energetiko «justu eta azkarra» aldarrikatzeke asmoz, Stop Fosilak taldea sortu dute, bidenabar, erregai fosiletatik berriztagarrietara igarotzeko manifestua sinatu dute.

Zer da Stop Fosilak?

Motzean errateko, talde ekologista bat gara. Gure kezken erdigunean daude klima larrialdia eta deskarbonizazioa. Pandemiaren ondotik, Euskadin ia 50 gasolindegia ireki ziren, baina ez zen apenas protestarik egon. Aldi berean, Parisko Akordioan finkatutako 1,5 graduen langa urte guttitan gaindituko dugula iduri du, beraz, gure egoera arras larria da: etxea sutan dago eta gasolina botatzen segitzen diogu. Larrialdiko maniobra bat behar dugu hortik ateratzeko eta maniobra hori da trantsizio energetikoa. Hortaz guk «bizitzaren alde, trantsizio justu eta azkarra» aldarrikatu dugu. Bizitzaren alde, bizitzaren mehatxu handienetarikoa XXI. mendean erregai fosilak direlako: bai ekosistemarentzat bai pertsonen osasunarentzat. Trantsizio horrek erran nahi du erregai fosilak lur azpian utzi eta berriztagarriak lur gainean jarri behar direla,



Stop Fosilak taldea osatzen duten kideak. UTZITAKOAK

ahalik eta hoberen eta ahalik eta lasterren. Dilema ez da desazkundera ala berriztagarriak, biak behar dira.

Nork osatzen duzue taldea?

Saiatu gara herritarra eta anitza izatea. Anitza, gaia arrunt konplexua eta zabal delako. Herritarra, herritarrak ere trantsizioan parte hartu behar dugulako eta proposamenak egin behar ditugulako, hau denen kontua baita, ura, lurra, osasuna, energia... Profil des-

berdineko herritarrak gaude: aktibismotik heldu garenak, agroekologiatik, eta ezagutza teknikoa duen jendea ere bada, akademiako adituak, etab.

Zein beharretatik sortzen da?

Gorka: Joan den egunean Lesakan egon nintzen eta ohartu nintzen herriko kargagailu elektrikoan eolikoaren aurkako pegatina bat zegoela, teknologia elektrikoak "seinalatuz" bezala. Baina, burua altxatu eta 21 aparkaleku zeuden,

konbustiozko autoekin, eta horien aurka ez zegoen inolako kartelik, ez pegatinarik ez deus ere. Zertan jartzen dugu arreta? Berriztagarriendako zernahi erraten da. Teknologia berriztagarriei algodoia pasatzen diegun aldi berean, teknologia fosilak erabat normalizatuak ditugu. Egunero 50.000 petrolio upel baina gehiago kontsumitzen ditugu, garraioan, industrian, etxean... Baina, protesta aise gehiago daude berriztagarrien aurka fosilen aurka baino. Oharkabean, mundu fosilistaren kontserbadoreak bilakatzen ari gara.

Lorea: Mundu mailan aire kutsadurak ia, tabakoak eragiten dituen bezainbertze heriotz eragiten ditu. Stop Fosilak proiektuarekin gure errealitate fosil hori seinalatu nahi izan dugu. Argi izan beharra dugu aukerarik txarrena berdin jarraitzea dela.

Begirada Euskal Herrian jarrita: zein da egoera?

Egoera beltza, Euskal Herriari "Petro Herria" deitu behar du zitzaien. Kontsumitzen dugun energiaren %80 fosila da eta %90 kanpotik heldu da. Nahaste handi, fosil eta dependientea dugu. "Independentsia" eta "OTAN ez" aldarrikatzen dugu, baina, praktikan gure gasa yankia da. Euskal Herriko hidrokarburuen zati nabarmen bat Estatu Batuetatik heldu da eta Ukraina eta Iranen ondotik agian oraino gas gehiago salduko digu, *fracking* bidez ateratako gasa, gainera. Nik uste batzuetan gure buruaren irudi oker bat egin dugula, eta pentsatzen dugula Euskal Herria belaiak eta Idiazabal gasna direla, baina hemen borts aireportu ditugu, Pasaian garabiak eta Iruñean Volkswagene fabrika lasterrenetako bat. Herri industrial petrolio-jale bat gara. Euskadin egoera latza da: bakarrik kontsumitzen den elektrizitatearen %6 sortzen da bertako berriztagarriekin. Nafarroan egoera puskaz ho-

bea da, jarri diren eolikoei esker: elektrizitatearen %90 inguru berriztagarria. Horrek erakusten du aldaketa posible dela eta ziztu bizian egiten ahal dela.

Trantsizio justu eta azkarra aldarrikatu duzue...

Zientziak eta nazioarteko klima mugimenduek eginiko oinarritzko aldarriak dira. Trantsizioa ez bada azkarra ez da justua izanen eta ez bada justua ez da azkarra izanen, jendea kontran agertuko delako. Justua izateak erran nahi du ezin dela inor gibelean utzi. Agian, Muskizko Petronorren bentzeno isuriaren aferarekin ulertzen da: berriki etxean gelditu behar izan ziren hango bizilagunak airea arnastea arriskutsua zelako. Tximinia itzaltzea urgentea da, azkar egin behar da, osasun publikoagatik. Baina, aldi berean, zer proposatuko diegu Petronorreko langileei? Berriztagarriek bi helburuetan laguntzen dute: gasolina elektritatearekin ordezkatuz tximinia itzaltzen laguntzen da; aldi berean, industria elektrikoan lanpostuak sortzen badira, aukera ematen die langileei aldaketa egiteko. Hortaz gain energia berriztagarriek energia sistema demokratizatu eta aberastasuna eta boterea banatzeko aukera ere dakarte. Erregai fosilak estatu eta enpresa gutti batzuen esku dauden bitartean, horiek boterea pilatu eta krisi egoeretan aberasten jarraitzen dute. Azkarra behar

«JENDE AUNITZ HILTZEN ARI DA LARRIALDI KLIMATIKOAGATIK»

«TAMAINA GUZTIETAKO AZPIEGITURAK BEHARKO DIRA»



Laurnaga eta Flores sinatutako manifestua esku artean dutela. UTZITAKOIA

da, gibelatzen garen urte ba-koitza Hego Globaleko pertsonen edo etorkizuneko belaunaldiak bizkar botataki inpaktuak dira. Fosilismoa kolonialismo hutsa da. Inor ez da hil eoliko batzuk ikusteagatik, baina egitan jende aunitz hiltzen da klima larrialdiatatik.

Jendartearen jarreraz...

Klima larrialdiak jende kezkatzen du. Aldi berean, normala da azpiegitura handiek ere kezka eta erantzuna sortzea. Baina, egia da egoera horren aitzinean "mito" tiki bat sortu dela: teiltuetan plakak jartzea nahikoa dela. Auto-kontsumoa eta teiltuak behar-beharrezkoak dira eta gure eskualdean zorionez badago jendea horretan lanean. Baina, beharrezkoa bada ere, ez da nahikoa oinarritzko eskubide sozialak bermatzeko. Gasteizen ikerketa bat egin zuten ikusteko zein zen gehienez ere etxe eta industriako teiltu guztiak estaliz sortzen

ahal zen energia. Emaizta izan zen 2 MWh pertsonako, eta gure kontsumoak 40 MWh-koak dira. Guk desazkunde indartsu baten alde egiten dugu, baina, hala ere... ospitaleak nahi baditugu, parke berriztagarriak beharko dira, tamaina guztietako azpiegiturak beharko dira.

Eta hitzetatik ekintzetara, egoerari behar bezalako garrantzia eta hedapena ematen ari zaio?

Inoiz baino gaurkotasun gehiago du aferak, fosilak lehen lerroan daude: Muskizko getaera edo inperialismo fosila. Irango gerrak, berriz ere, mahai gainean jarri du gure kanpo dependentzia energetikoa zenbaterainokoa den, eta horrek ekonomian nolako inpaktu handia duen. Espainian, hori bai, elektrizitatearen prezioak Europako baxuenera etorri dira berriztagarriek esker. Eta auto elektrikoak bortz aldiz gutiago eraginen die prezioen igoerak konbustiozko autoei baino. Venezuela,

Kuba, etab. aktualitatean daude gai horientatik. Kuban larrialdi humanitarioan daude Trumpek petrolio sarrera blokeatu dielako modu ilegalean. Ondorioz, itzalaldiak, ospitaleak ez dabilta... Eta hori Kubak guk baino kanpo dependentzia ttikiagoa zuela. Eta Kubaren erantzuna? Berriztagarriak: 2028rako 92 parke egin nahi dituzte, 20 MW ingurukoak, hau da, Hernaniko Ikatz-Ganeren tamainako 92. Pentsa, gu harat joatea erranez «makroberriztagarriak ez». Martzianoen pare begiratuko gintuzten. Han baita nekazariak ere itxaropenez ikusten dituzte parke horiek. Lehendabiziko auto elektrikoak ere erosi dituzte... Bide batez, Euskadi-Kuba elkarteak plaka fotovoltaikoak bidaltzeko kanpaina bat jarri du martxan. Etorkizuna elektrikoa da, iragana fosila. Burujabetza elektrikoa da, inperialismoa fosila. Kubak ulertu du. Orain gure txanda.



Asteburu Kulturaleko mus txapelketako lau bikote onenak. ION ANZIZAR

Ezin ederragoa izan da aurten ere Asteburu Kulturala

Larunbateko mus txapelketan 21 bikotek hartu zuten parte eta Patxi Mariñelarena eta Koro Zelaieta izan ziren irabazle

MAIDER PETRIRENA

Asteburu kulturala ezin ederragoa izan da. Ortziralean jokoak, musika eta ogitartekoa izan zuten. Larunbatean, berriz, goizetik puzgarriak frontoian jarri zituzten. Arratsaldean, kuatukada taldeak bere emanaldia eskaini zuen herrian barrena. Ilunabarrean Ulibeltzak elkarteak, herriko talogileen taloak dastatzeko aukera izan zen. Bingoa ere izan zen. Lehenengo txandan Mikel Agirrek lerroa eta Nahia Portuk bingoa egin zuten eta bigarrean, lerroa Olatz Ibarrek eta bingoa Aroa Ibarrek eta Ene-

ko Herrerak. Eguna borobil akitzeko, 21 bikotek mus txapelketan parte hartu zuten. 1. Patxi Mariñelarena-Koro Zelaieta; 2. Mikel Arrieta-Mikel Arretxea; 3. Jon Aranbillet-Julen Juantorena; 4. Gorka Antuña-Nahia Portu.

Igandean, Sunbillan ere Korrikaren bukaerari keinua egin zioten *Sunbillan ere euskara-aren alde* oihukatuz. Malerreka, Baztan eta Bortzirietako gaiteroak herrian barrena ibili ziren, erraldoiekin era Ainara Unanua ipuin kontalaria izan zen herriko etxeko hirugarren solairuan.



ERRAN.EUS

Korrika arrakastatsua

24. Korrikak herrian bisita ederra egin zuen martxoaren 24an. Antrotokioek beraien kilometroa Etxalarko gazteekin egin zuten; herriko etxeak eta Ulibeltzak elkarteak egin zituzten beraien kilometroak. Ikasle, irakasle eta gurasoek Malerrekako eskola ttikien kilometroan ere parte hartu zuten, Legasan.



AMAIA APEZETXEAK

Eneit Bertiz lider Greenseries-en

Greenseries mendi bizikleta txapelketako lasterketa izan zuen Eneit Bertiz Apezetxeak Erandion, martxoaren 29an. 23 urtez azpikoetan lehena izan zen eta sailkapen orokorrean, berriz, laugarren. Bere kategorian lider jartzea lortu du. Astebete lehenago ere laugarren izan zen Sabiñanigon.



GURE PLATAFORMAK DIESEL ETA ELEKTRIKOAK

GARRAIOA ETA ENTREGA ZURE BEHARRETARA EGOKITUTA

				
8 m - 10 m	12 m - 18 m	12 m - 16 m	12 m - 18 m	18 m / B karneta

639 103 305 | plataformasbidasoa@gmail.com | Alkaga Pol. Ziobi, 15

Bestak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu dute

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek apirilaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dituzte beren lanak

OIER ZULAIKA

Pixkanaka hurbiltzen ari dira sanpedroak, eta horren seinale, udalak bestak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu dute aurten ere. Dagoneko aurkeztu daitezke lanak eta apirilaren 29an 14:00etan bukatuko da lanak bidaltzeko epea.

A2 tamainako lanak aurkeztu beharko dira eta lana egiteko prozedura libreza izanen da. Hori bai, irabazleak teknika digitalak erabiltzen baditu USB batean entregatu beharko du lana.

Kartelak herriko etxean aurkeztu behar dira eta posta arruntez edo eskutan eraman daitezke. Aurkeztutako lanekin sobre bat atxiki beharko da honako datuekin: izen abizenak, adina, helbidea eta telefonoa.

Lanak aurkezteko epea bukatzean, erakusketa egin dute eta herri bozketa bidez erabakiko dute irabazlea zein den. 250 euro hartuko ditu saritzat irabazleak, eta gainerako parte hartzaileen artean 50 euroko saria zozketatuko dute.



UTZITAKOIA

Donezteben ere euskararen alde korrika

Jendetza handia bildu zen martxoaren 24an Korrikaren etorreran. Herrian bide ttikia egin bazuen ere, herritarrek gogotsu astindu zuten lekukoa. Korrika pasatu ondotik, Korrika Ttikia egin zuten ikastetxeetako ikasleek herrian barna.

Zarauzko II. Pilota Txapelketa irabazi du Iker Anzizarrek

Zarauzko II. Pilota Txapelketako finalak jokatu zituzten martxoaren 22an Zarauzko Aritzatalde pilotalekuan. Jubenilen arteko lehiari, Etxabe eta Errekako Iker Anzizar izan ziren txapelak, Bidezabali eta eta Etxeberriari 22-20 irabazita.

Giro onean egin dute Lerro Dantzen Eguna

Lerro dantzetan aritzen direnen bilgune izan zen Doneztebe martxoaren 28an. Eguraldi txarrak ez zituen kikildu, eta zapia eta kapelua soinean aritu ziren dantzan. Neliri mila esker dantzarako taldea sortzeagatik!



UTZITAKOIA

Doneztebeko garraiolari bat hil da lan istripuan

Ezbehar tristea izan zen martxoaren 24an. Garraiolari lanetan aritzen zen Iñaki Erasun Antxitorena herritarra hil zen Legutonia izandako lan istripuan. Zerratusa kargatzen ari ziren kamioioian eta zama gainera erori zitzaion.

LIDERA
HORTZKLINIKA

ODONTOPEDIATRIA

Haurren aho eta hortzetako osasunaren inguruko aholkularitza eskainiko dizugu esneko lehenbiziko hortzetik aitzinera

> PADI

Al.-Og.: 08:00-13:00 | 15:00-20:00
Or.: 08:00-18:00

Larunbatetan irekia: 08:00-13:00

Iturmunzubiko pl. 9-10 LESAKA | T. 722 662 478 | lidera@hortzklinika.es | @liderahortzklinika

Gazte Asteburua ekitaldiz betea dator hilaren 10ean eta 11n

Ortziralean mus eta bingo txapelketa eta larunbatean mendi itzulia eta bertso bazkaria, bertze hainbaten artean

ARKAITZ MINDEGIA

Apirilaren 10 eta 11ko *Ittungo Gazte Asteburuan* egitarau zabala antolatua dute Ituren go gazteek. Apirilaren 10ean, ortziralean 19:30ean taloak jateko aukera izanen da eta eguna bukatzeko mus eta bingo txapelketa. Biharamunean, 08:30ean, herriko mendietan barrena eginen den mendi itzulia abiatuko da. Eguerdie partean, gaztaren pisua asmatzeko lehiaketarekin abiatuko dute triki poteoa. Bertso bazkari bikaina izanen da, Sustrai Colina eta Xabat Illarregi bertsolariekin. Arratsalde ederra pasatuko dute bertsolariekin eta trikitilarien doinuek kantuan eta dantzan. Eguna akitzeko Dj Endararen eskutik goizaldeko bortzak arte guttienez luzatuko da juerga.

Koianea ttikiko pilota txapelketa abian

Dagoeneko martxan da Aurtizko Koianea Ttikiko eskuz binakako pilota txapelketa. 24 bikoteak hiruna bikoteko zortzi taldetan banatu dituzte eta talde bakoitzeko lehenbizikoak sailkatuko dira final laurdenetarako. Irabazleek finalerdiak jokatuko dituzte eta finala maiatzaren 16an jokatuko da. Egun hori borobila izanen da, pilotaz gain kantu bazkaria ere izanen baita.

Aloña Aioroa Nafarroako futbol selekzioarekin

Nafarroako 16 urtez beheko selekzioarekin Espainiako txapelketako azken fasea jokatuko du iturendarrak Zaragozan. Lehen mailara igatea lortu dute, lehenbiziko fasean lortutako puntuei esker.



KORRIKA.EUS

Herritik kanpo baina Korrikarekin bat

24. Korrika ez da herritik pasa, baina herritarrek Korrikarekin bat egin dute. Udalak Zubietako gazteekin batera egin zuen kilometroa Doneztebe eta Sunbilla artean. Herritar ugari animatu zen kilometro horretan parte hartzera. Malerrekako eskola ttikien kilometroan ere atera ziren batzuk.



Pulunpa eskolako ikasleak Paula Beorlegi judokarekin. ESKOLAK UTZIA

Hainbat bisita eta irteera izan dituzte asteotan Pulunpa eskolako ikasleak

Bigarren hirulekoaren akabaila mugitua izan dute Pulunpa eskolan. Korrikaz gain, joko topaketarekin goizpasa egin zuten Legasan. Aste Santuko oporrak hartu baino lehen zenbait bisita izan dituzte. Emakume kirolarien programaren baitan Paula Beorlegi Osés judoka etorri zen mar-

txoaren 27an. Bere kirol ibilbidea eta judoaren teoria erakutsi ondotik, Salto gelan teknika, txiribueltak, giltzak... praktikatu zituzten. Martxoaren 30ean, berriz, Malerrekako Mankomunitateari esker, hondakinen tailerra egin zuten eta, udalaren laguntzaz, zuhaitz landaketa apirilaren 1ean.



ADOS PILOTA

Dunixe Alberro Isasi Adosen txapeldun

Ados Pilota elkartearen txapelketako finalak jokatuko zituzten martxoaren 27an Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan, 600 ikusleren aitzinean. Promozio mailan, Arrutik eta Dunixe Alberro iturendarrak 22-12 irabazi zieten Sagarduirri eta Etxeberriri. Txapelketako partida guztiak irabazi dituzte.



Joaldunak Puente Viesgoko maskarada topaketara bidean

Apirilaren 24tik 26ra parte hartzeak dira nazioarteko bigarren topaketan Kantabrian, Portugal, Sardinia. Galiza eta Arabako inauterietako ordezkariekin batera



Zubietarrak Korrikako kilometroa egiten. UTZITAKOIA

FERMIN ETXEKOLONEA

Asociación Cultural Amigos de la Vinajera kultur elkarteak bigarren urtez antolatu duen Nazioarteko Maskarada Topaketa egingen dute apirilaren 24tik 26ra Silió/Puente Viesgon (Kantabria, Espainia) eta bertara joateko gonbidapena hartu dute Zubietako joaldunek ere. Joaldunekin batera, gisa bereko inauteriak dituzten Sardiniako Mamuthones de Mamoaida, Galizako Folions ruais Viana do Bolo eta Entroido Ribeirao, Portugaleko Caretos de Arcas eta Caretos de Lazarim eta Arabako Zaldudondoko inauteriak gonbidatuak daude. Penintsulako eta Europako inauteri tradizional hauen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak ezagutzeko topaketa ederra egitea da antolatzaileen helburua, eta zubietarrak gogotsu joanen dira. Berriki, Aberri Egunean ere parte hartu dute Zubietako joaldunek eta udaberri-uda partean irteera gehiago ere izanen dituzte.

Korrika jendetsua

Aurtengoan ez da Zubietatik pasatu, baina herritarrek seinala egin zuten martxoaren 24an, goizean, Bidasoko bide berdean, herriko etxeak eta herriko gazteek erdibana egindako kilometroan. Kuadrilla ederra bildu zen eta giro ederrean egin zuten lasterkaldia. Naroa Elizalde Etxekolonea gogoan izan zuten batzuk, bere kamiseta jantziz, eta berak egiten zuen bezala, euskara eta kirolzaletasuna uztertuz.



ATE IREKIAK Unibertsitate Graduak

- ENPRESA**
 - Oñati APIRILAK 18
 - Bidasoa-Irun APIRILAK 18
 - Bilbao AS Fabrik APIRILAK 18
- EKINTZAILETZA**
 - Bilbao BFF APIRILAK 23
 - Bidasoa-Irun APIRILAK 23
 - Oñati APIRILAK 23
- HEZKUNTZA**
 - Bilbao AS Fabrik MAIATZAK 16
 - Eskoriatza MAIATZAK 16
- KOMUNIKAZIOA**
 - Aretxabaleta MAIATZAK 16
- HUMANITATEAK**
 - Bilbao AS Fabrik MAIATZAK 16
- GASTRONOMIA**
 - Basque Culinary Center
 - Donostia MAIATZAK 9



Learning
from
reality



Eman izena! www.mondragon.edu/ate-irekiak-graduak

Tratu onak sustatzeko proiektua martxan

Gizarte zerbitzuek, osasun etxeak eta haur eskolak Tratu On proiektua sortu dute eta apirilaren 18an emanen diote hasiera

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak, Osasun Etxeko profesionalek eta Doneztebeko Askin haur eskolak Tratu On izeneko proiektua hartu dute esku artean, tratu ona indartzeko intentzioarekin.

Kontatu dutenez, Askin haur eskolan egindako inkesta batean, gurasoen artean tratu onaren inguruko «kezka eta jakin-mina» identifikatu zituzten eta horren harira sortu dute proiektua hiru eragileek elkarlanean. «Gaur egun daramagun presako bizitzarekin, aunitzetan konplexua izaten da gure arteko harremanak eta tratu moduak behar diren bezalakoak izatea», esplikatu dute sustatzaileek.

Helburua argia da: «Haurtzarotik tratu ona bultzatu» nahi dute, eta bidenabar, «osasun emozionala sustatu». Horrekin batera, taldeak bertze eragile batzuen parte hartzea nabarmendu nahi izan du, «sinergiak sortzeko eta tratu onaren ikuspegitik eredu sozialak sustatzeko, komunita-

tean lan eginez, haurtzaroan duen garrantzia eta eragina azpimarratuz».

Hasiera apirilaren 18an

Bide horretan, hainbat ekimen antolatuko ditu lantaldeak: tailerrak, materialen sorrera, kanpainak... Lehendabiziko tailerra apirilaren 18an, larunbata, izanen da, eta Doneztebeko Angiru psikomotrizitate zentroko profesionalek zuzenduko dute. Alde batetik, lau saiotan hauren emozioak ententitzen ikasteko gakoak landuko dituzte, baita nola egon, nola lagundu eta nola akonpainatu ere. Borzgarren saioan, berri, osasuna hartuko dute hizpide, eta lehen sorospenei eta pantailen erabilera egokiari buruz solastuko dira.

Gurasoendako eta aipatutakoarekin identifikatutakoendako saioak izanen dira, eta guziak osasun etxean eginen dituzte. Parte hartzeko izena eman beharko da, eta horretarako, Whatsapp bidez mezu bat igorri behar da 638 52 97 85 telefono zenbakira.

Malerrekako Mankomunitatea ere Korrikan

Korrikarekin bat egin, eta Malerrekako Mankomunitateak ere kilometroa erosi zuen. Irudian ageri diren Marga Erdozainek eta Natalia Rekartek hartu zuten lekukoa.



TESTUA ETA ARGAZKIAK: XABI OLAZAR ETA IRATXE OTXANDORENA

Elgorriagarrak Korrikan

Aurten Korrika Elgorriagatik bertatik pasatu ez zen arren, herritarrek Igantzitik Sunbillarako bidean kilometro batez lekukoa eramateko aukera izan zuten. Horren erakusle dira martxoaren 24ko irudi hauek. Elgorriagan ere euskararen alde!



AEK ETA UTZITAKO ARGAZKIA

Donamariarrak Korrikako lekukoarekin

Martxoaren 24an Bidasoko Bide Berdean hartu zuten donamariarrek Korrikaren lekukoa, eta tarte horretan, hainbat herritarren eskuetan ibili zen: Olatz Garmendia Altuna, neska-mutikoak... Haiekin batera, kuadrilla polita ibili zen euskararen alde lasterketa.



Itziar Agirre Sagasteta erdian, lehiaketako ordezkariekin. GORKA RUBIO/DONOSTIA KULTURA

Donostia Kultura poesia lehiaketan Agirre irabazle

Donamariako Itziar Agirre Sagastetak lehiaketa irabazi du 'Orain zuk honekin egin nahi duzuna' lanarekin

TTIPI-TTAPA

Idazle gazteei zuzendutako Donostia Kultura Poesia Lehiaketa irabazi du Donamariako Itziar Agirre Sagastetak, *Orain zuk honekin egin nahi duzuna* lanarekin. Epaimahaiaren hitzetan, «lan koherentea eta orekatua da, baina arriskurako joera ere erakusten du». Mila

euroko saria hartuko du, eta ekainean argitaratuko dulana, Balea Zuria argialetxearekin.

Bioteknologiako Gradua ikasi zuen, eta ondotik, Biomedikuntzako Masterra egin zuen. Gaur egun, irakasleen prestakuntzako masterra egiten ari da, eta euskara irakaste lan egiten du euskaltegian.



AITZIBER ZOZAIK UTZITAKOA

Urroztarrak sagardotegian

Aurten, beste urteetan baino guttiago izan arren, urroztarrak sagardotegira joateko bildu dira. Martxoaren 28an egin zuten irteera. Argazkian ageri den kuadrillak Urnietako Oianumen egin zuen hitzordua, eta lagunartean, otordu ederra egin eta ongi pasatu zuten.



TESTUA: JAIONE ZABALO / ARGAZKIA: AEK

Ezkurrarrak Korrikan

Aurten ere Ezkurrako herriak Korrikan parte hartu du. Zehazki, Sunbillatik Doneztebeko bidean hartu zuten herritarrek lekukoa. Udalaren izenean Ana zinegotziak eta Jaione alkateak hartu zuten, eta ondotik, herritarrek txandaka ibili ziren lekukoarekin. Aitortu dutenez, «oso momentu polita izan zen».



AEK

Eta eratsundarrak ere Korrikan

Eratsundarek ere ez dute hutsik egin Korrikaren aurtengo edizioan. Eratsungo Udalak kilometroa erosi zuen, eta martxoaren 24an, Bidasoko Bide Berdean egokitu zitzaizen euskararen aldeko lasterketa erraldoiko lekukoa eskuetan, lasterka ibiltzea.

BERTIZARANA

Enduro proba maiatzaren 2an egingen dute

Ziki Team taldeak antolatuta egingen dute eta hainbat txapelketetarako puntuagarria izanen da

TTIPI-TTAPA

Udaberri honetan ere, motorzaleen bilgune bihurtuko da Bertizarana, enduro proba antolatu baitute maiatzerako. Moto Club Ziki Team taldeak egin du hitzordua, eta maiatzaren 2rako iragarri du. Aldi honetakoa seigarren edizioa

izanen da eta Nafarroako eta EAeko txapelketetarako puntuagarria izanen da.

Hainbertze kategoriatan ariko dira lehian. Bertzeak bertze, juniorretan, seniorretan, master 45 mailan eta 18 urtez azpikoak 125 cc-koen kategorian.



JEXUX ETXART

Legasako 'Calçotada' giro ederrean

Joan den martxoaren 21ean Bartzelonako Vacarisses herriko herritarrek eta legasarek *Calçotada* ospatu zuten. Aurtengoa laugarren edizioa izan zen eta 40 bat lagun bildu ziren. Eguraldi ona lagun, kanpoan bazkaldu zuten eta giro ederra izan zuten.

IRTEERA 2026eko iraila

NOAOA
BIDAIAK

Noaoak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



AEK

Narbartearrak Korrikako lekukoa eskuetan

Bertze inora mugitu gabe, herrian bertan. Halaxe ibili ziren narbartearrak martxoaren 24an Korrikan lasterka. Eguraldia lagun zutela, kuadrilla ederra bildu zen, eta eta hainbat herritarren eskuetatik pasatu zen lekukoa. Narbartearren ondotik, udaleko ordezkarien txanda izan zen.



AEK

Legasarek ere Korrikarekin bat egin dute

Legasako herritarrez gain, Malerrekako eskola ttiketako ikasle eta irakasleak ere Legasan bildu ziren Korrikan parte hartzeko. Ehun lagunetik goiti bildu ziren zubian. Eguna borobiltzeko, Saldias, Ituren, Sunbilla, Narbarte eta Legasako eskoletako haurrek topaketa egin zuten Legasako plazan.

Lorategiak eta etxe inguruak

Etxeko txokorik politena edertzeko garaia

Etxearen barnealdea zaintzea bezain garrantzitsua da kanpoaldeaz arduratzea. Azken finean, etxearen fatxadak, lorategiak edo larrainak ematen du lehen inpresioa. Baina itxuraz harago, espazioaz gozatu ahal izateko, ezinbertzekoa da inguru ongi zaindua edukitzea.

Eskualdean horretarako ditugun aukerak bildu ditu gehigarri honek: kanpoko altzariak ekoizten espezializatua dagoen Alco enpresa beratarra eta Lesakako Beko loredenda, landareak saltzeaz gain aholkularitzan ere aditua dena. Horrez gain, lorategi bat zerotik sortzeko jakin behar dugun guztia, fruta arbolen zainketarako gakoak eta lorategiak ixteko hesien aukerak ekarri dizkizuegu hurrengo orrietan.

Eskularruak paratu, txanoa jantzi, bortzegiak lotu, aitzurra hartu eta goazen kanpora!



EL MUEBLE



EGURREZKO ZEIN BURDINEZKO
ESTRUKTURAK | TEILATUAK
IGELTSERITZA OROKORRA
DESBROZATZE ZEIN LOREZAINZA LANAK

Planoetatik giltzak emateraino zurekin

www.aimaririgoien.com

www.construccionesaimaririgoien.com



Gure borda, 41 | HONDARRIBIA
info@construccionesaimaririgoien.com

605 77 36 40





Husqvarna

HUSQVARNA AUTOMOWER®
Liderrak salmentetan eta teknologian



Belarra moztzeko robotak
AUTOMOWER®

649 € tik



Bateradun makinak
HUSQVARNA

199 € tik



BANATZAILE OFIZIALA



BB BLOK BAT
TALLERES

ESKAINZA GEHIGAGO DENDAN
Eskaintza 2026/06/30 arte

Santiago,85 | ELIZONDO
948 580 898
www.biokbat.com



«Hazten segitu nahi dugu pertsonak ardatz gisa hartuta»

ELENA FDEZ DE CASADEVANTE ETA ESTI ETXEBERRIA ALCO

beharrezkoak dira eta, noski, «giza talde handi bati esker gaude hemen, haiek gabe ezinezkoa izanen litza-teke».

Aurten gerentea aldatu du enpresak, «aitzineria eginez pausoz pauso, gure taldeko talentu eta esperientzian oinarrituz». Elena Fernandez de Casadevante da kudeatzaile berria: «etxeko ezagutza sakona eta Alcon ibilbide zabala duen pertsona. Gure proiektua bultzatzen eta etorkizuneko erronkak aurreikusten laguntzeko giltzarria da».

Esti Etxeberriak, berriz, «pertsonen arloa gidatzen segitzen du. Gerentziarekin laguntzeko rola ere hartuko du, ikuspegi estrategikoa indartuz eta enpresaren konpromisoak mantenduz, pertsonak gure hazkuntzaren ardatz gisa hartuta».

«Esperientzia, lidergo eta ikuspegi partekatua konbinazioa» dira, «Alcoren etorkizuna elkarrekin erakitzen segitzeko».

Aire zabaleko aisialdian bidelagun

Lorategi, hondartza eta kanpineko altzariak ekoizten dituzte: kulunkak, mahaiak, hozkailuak... «Baina gure produktu izarra aulkia da. Hondartzako aukeren artean hirutik bat Alco izatea ez da kasualitatea; hamarkada batetik bertzerera lortutako konfiantzaren emaitza da».



UTZITAKOA

Duela 60 urte baino gehiagotik aire zabaleko altzariak fabrikatzen ditu Berako Alco lantegiak, «enplegua eta balioa sortuz gure komunitatean». Familia enpresa da, «hagitz konprometitua tokiko ingurunearekin». Hori dela eta, «ingurumenarekin ardurasuak diren produktuak egiten ditugu».

Joan den urtean, ekainaren 5ean hain zuzen, 60. urteurrena ospatu zuten; «bazkaria, musika... jarduera ugari egin genituen lantalde osoarekin eta egun ahaztezina izan zen».

Lantaldearen garrantzia

Merkatuan hainbertze urte egiteko, «pasioa, ahalegina eta lan handia»

ANTZUZELAI S.L.

**HARGINTZA | FATXADAK
TXIMINIAK | ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK**

www.antzuzelai.com
BERA | T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com

STIHL

BATERIA BETE-BETEAN UDABERRI HONETAN

ONENA BILATZEN DUTENENTZAT

ZURE STIHL DENDA ESPEZIALIZATUAN

BIGARREN BATERIA BAT DOHAINIK

HAUTATUTAKO MODELOETAN

489 €

ARTETE

AGRICOLA BIDASOA

Lorezaintza eta nekazaritza makinak salmenta eta konponketa

Auzolan, 18 Irún | 943 627 331 | agribidasoa@gmail.com

PRESTATU ZURE BARATZA ETA LORATEGIA **GURE SASOIKO LANDAREEKIN**

BERRIA!

 **Cadena 88**

**Marka berriarekin hasi
gara lanean!**

Lorategintza, Eskulanak, Tresneria, Iturgintza,
Elektrizitatea, Burdindegia



LORATEGIAK ETA ETXE INGURUAK

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



Produktuek «bereziki kalitate eta iraunkortasun handia dute eta ingurumena errespetatzen dute». Gainera, «erabilera eroso eta funtzionalitatea bermatzen dute, beti bezeroen beharrei erantzuten saiatuz». Berako instalazioaten fabrikatuak dira, «giza talde batek egindakoak, konprometitu, arduratsua eta hurbilekoa».

Urtero katalogo berria argitaratzen dute eta kanpaina egiten dute irailetik abuztura bitarte. Hala ere, «kalitatezko materialek eta kontrolak

babestuta, urteak iraun dezaketen produktuak eskaintzen ditugu». Gaur egun «19 herrialde baino gehiagotan daude eskuragarri. Txinatar ekoizle erraldoiei aurre egiten dien Nafarroako fabrika gara, eta Europako fabrikatzaile bakarrak sektorean».

Etorkizunera begira, «hazten segitzea» dute helburu, «merkatu nazionalan zein nazioartekoan. Udaren parte izaten segitu nahi dugu, askatasun, erosotasun eta aire libreko oroitzapenak sortuz».

TXIRULA LORE DENDA

- Lorategiak apaintzeko loreak eta dekorazioak
- Etxeak apaintzeko osagaiak
- Loro sortak
- Udaberri eta udako arropak eta osagaiak.

Iturrizubiako plaza 11, Lezoa
948 627 542 - 722746836



ALCO

HONDARTZA, KANPIN ETA LORATEGIRAKO BEHAR DUZUN GUZTIA!

Bertan egindako produktuak

Zalain auzoa, z/g. - Pk. 4. - 31780 - BERA - Nafarroa | Tel.: +34 948 628 200 | alco@dalcoplas.com | www.alcoples.com



Landiflor
GARDEN

7 POLTSA HAZI EROSTEAN



HAZITEGI
BAT OPARI



Stocka agortu arte baliozkoa



Aupa 
Udaberria

Apirilaren 7tik maiatzaren 4ra

Landiflor

Landiflor zure lorendenda egunero irekia:
9.00 - 12.30 / 13.30 - 19.00
Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@venta-peio.com
www.venta-peio.com

Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.) www.venta-peio.com
Tel. +34 948 625 130 (Es.)



Udaberria: fruta arbolak landatzeko urte sasoi egokia



LOREZAINZAN ETA ZUHAITZEN LANETAN ZERBITZU PROFESIONALAK

ARBOLEN MOZKETA ETA KIMATZE LANAK ALTUERAN
LORATEGIAK, PAISAJISMOA ETA UREZTATZE SISTEMA
AUTOMATIZATUEN MANTENTZE LANAK

LUR EREMUIEN GARBITZE LANAK
HONDAKIN ORGANIKOEN BILKETA
ARBOLAK IPURDITIK ATERATZEA

EREMU BERDEAK SORTU ETA LOREZAINZAN LANAK
HESI BERDEAK ETA ITXITURAK PIKETEEKIN

Arreta pertsonalizatua, bakoitzaren beharrei erantzuteko.



603 581 326 | BERA
 juanarboricultura@gmail.com | @arboriculturajuanele



FREEPIK

Neguko soiltasunaren ondotik, udaberrian hasten da landaketak egiteko urteko sasoirik egokiena. Landaketa horien artean fruta arbolak landatzea aukera bikaina da.

Udaberrian, martxoan eta apirilean, lurra berotzen hastean aprobetxatu daiteke fruta arbola horiek landatzeko. Fruta arbolen artean denetariko barietateak landatu daitezke, eta lur sail handia edo tikiagoa izan, hainbat konbinazio egiten ahal dira. Tokian tokiko klima kontuan hartu behar da barietateak aukeratzeko orduan.

Fruta arbolen artean ia edozer landatu daiteke: sagarrondoak, udareondoak eta gereziendoak eskualdeko klimara ongi egokitzen diren arbolak dira. Gaztainondoa ere eskualdeko

klimara ongi egokitzen den zuhaitza da, eta gainera eskualdeko hainbat herritan bertako barietateak berreskuratzeko proiektuak garatzen ari dira. Kontuz ibili zitrikoak landatzearekin, neguan hotzarekin gehiago sufritzen dutelako.

Zuhaixkak ere bai

Zuhaixkak aukera ona dira lur eremu tikiagoan landatzeko. Zuhaixken artean mugurdiak landatzea aukera ona da baina kontuan izan bigarren urtetik aitzinera ematen dutela fruitua. Aha-biak ere landatu daitezke, baina horiek komeni da elkarren ondoan landatzea. Marrubiak ere aukera bikaina dira eta normalean hotza hasi arte ematen dute bere fruitua.



UDABERRIA HELDU DA!

JARDINERIE ANIMALERIE LAFITTE

Zuhaitzak eta fruta arbolak landatzeko garaia!

Bertako barietateak, hemen ekoiztuak.
 Loreak, tresnak, loreontziak, kanpoko altzariak, maskotak...

0033 5 59 42 24 42
 drive.lafitte.net
 jardinerie@lafitte.net
 1945eko maiatzaren 8ko etorbidea, 84 - 64100 BAIONA

lafitte.
jardinerie

Nola sortu daiteke lorategi bat hutsetik hasita?



FREEPIK

Polita da lorategi ederra izatea, baina lorategi eder bat ez da bat-batean sortzen. Horren giblean ordu aunitzetako lan aunitz dago. Lorategia pentsatzea, landareak aukeratzea, belarra landatzea... Lan aunitz dago lorategi eder baten giblean. Baina nola egin daiteke hori?

1. Pentsatzea

Lorategi eder bat lortzeko lehendabiziko urratsa lorategia nolako den pentsatzea da. Horretarako, ikusi eta aztertu behar da lorategiaren dimentsioak zein diren, eta zer den etxe barrutik ikusi nahi dena eta zer den kanpotik ikustea nahi dena. Aztertu zein den eguzkiaren ibilbidea, eta lorategiko zein eremu den suspela eta zein eguzkitsua. Horrekin batera garrantzitsua da lorategiari emanen zaion funtzioa ere aztertzea: egonean egoteko leku bat izatea nahi den, jolasean aritzeko, eguzkia hartzeko, loreak zaintzeko... Horrek erabat baldintzatuko du lorategiaren itxura.

2. Marraztea

Behin hori eginda, neurtu lorategiaren eremua eta ondotik plano batean marraztu. Plano horretan, lorategiaren eremu diferenteak marraztu: non egonen den belarra, non pasabideak, igerilekua paratu nahi bada non jarriko den, baratzea non jarriko den...

Horrek buruan den ideia argiago ikusten lagunduko du.

3. Materiala aukeratzea


Aukeratu lorategian paratuko diren materialak. Sortutako planoari segika, markatu non paratuko den belarra, non egingen diren pasabideak... Pasabideak egiteko hainbat aukera daude: lauzak paratzea, hartxintzarrekin bidea markatzea, pinu azalekin egitea...

4. Landaketak antolatzea

Behin estiloa eta materialak aukeratu, landareak eta arbolak antolatzeko garaia da. Klimaren eta lekua arabera aukeratu arbolak eta kontuan izan udazkenean hostoak galtzen dituen arbolak paratzen badira lan gehiago izanen dela lorategia txukuntzen. Arbolak aukeratzearekin batera, landatuko diren zuhaixkak eta landareak ere aukeratu. Kontuan izan leku suspela edo eguzkitsua izan landare bat edo bertzea paratu behar dela.

5. Landaketak egitea

Dena pentsatua eta antolatua denean lanean hasteko garaia da. Begiratu zein urte sasoitan landatu behar diren aukeratutako landareak eta horren arabera prestatu landaketak egiteko plangintza.



ikerna garden

Intercesped
eta DPT Igerilekuen
banatzaile eta
instalatzaile ofizialak

Goi mailako belar artifiziala

Igerileku prefabrikatuak
obrarik gabe

Eguzki dutxak

Kristalak urte osoan



Kanpoko zure espazioa
itxuraldatuko dugu!



Eskatu hitzordua

NAFARROA - 638 793 713

GIPUZKOA - 675 770 344



www.ikernagarden.com



ZURE LORATEGI ETA TERRAZARAKO NAHI DUZUN GUZTIA ALKAINEN DAGO.

Hemen aurkituko duzu **zure etxebizitzaren kanpoaldea** bikain jartzeko behar duzun guztia: soropil artifiziala, konposite edo zeramikazko lurzorua, leihoak, itxiturak, ezkutatzeko hesiak, lorategirako tresnak, igerilekuen tratamendua, itzalkinak, barbakoak, altzariak, brikolajea egiteko tresnak eta materialak...

Dena leku bakar batean eta aholkularitza profesional onenarekin.





Soropil
artifiziala



Lorategirako
tresnak



Itxiturak



Ezkutatzeko
hesiak



Konposite
lurzorua



Igerilekuen
tratamendua



ALKAIN

zure etxean pentsatzen
piensa en tu casa

ALKAIN HONDARRIBIA

Amutalde kalea, 17 - 20280 Hondarribia

T. +34 943 642 025

ALKAIN ASTIGARRAGA

Txalaka Pasealekua, 23 - 20115 Astigarraga

T.+34 943 642 025

alkain.com




Loreak eta landareak
 •
Ongarriak
 •
Animalientzako eta maskotentzako pentsuak



Astehenetik ortzirralera:
 09:00-13:00 16:00-19:30
 Larunbatak: 09:00-13:00
T. 948 637 826 **623 027 253**
 Otsango auzoa LESAKA

«Geroz eta gazte gehiago etortzen dira produktuak erostera»

IKER PUYADENA ERRANDONEA BEKO LANDAREAK



TTIPI-TTAPA

Duela 40 urte ireki zuten Beko Landareak Lesakan, eta 40 urte beranduago lanean segitzen dute. Lesaka sarreran dago Beko, eta animalientzako pentsuaz aparte, denetariko landareak saltzen dituzte: fruta arbolak, zuhaixkak, etxe barreneko eta kanpoko landareak, baratzeko landareak... Urte sasoiaren arabera aldatzen dituzte landareak, eta garaian garaikoa izaten dute.

Gurasoak duela pare bat urte jubilatuz ziren, eta orain Iker eta Patxi Puyadena Errandonea anaiak dira saltokiaren arduradunak: «Gurasoak jubilatuz zirenean zurrumurrua egon zen itxiko ote zen. Jendeak jakitea nahi dugu dendak beti bezala segitzen

duela, ez dela deus ere aldatu, eta gurasoak eskura ditugula denerako».

Inguruko bezeroak izaten dituzte gehienbat, Bortzirietakoak eta adinari dagokionez helduak: «Pandemia garaian gazte aunitz animatu ziren, eta orain geroz eta gehiago etortzen dira».

Landatzeko sasoiak

Lan sasoi handiko garaia izaten dute udaberrian landareak lantzeko garaia izaten baita kanpoaldean: «Hiedra, dipladenia, geranioak, begoniak... betiko landareak nahi izaten dituzte jendeak», azaldu du Puyadenak. «Bada jendea lortzen duena landareak neguan irautea, baina aurtengo →



ITURRI
 SINCE 1929

- # Kanpoaldeko baldosak
- # Zelai artifiziala
- # Igerilekuentzako Gresit-a
- # Harri naturala
- # Kanpoaldeko sukaldeak
- # Eta askoz gehiago

Zein da zure lekurik gogokoena?

IRUN | 943 633 188



AURTEN,
GURE BARBAKOARIK
ARRAKASTATSUENA

545€ TAN

~~595€~~

ALMACO

Baztan

Barbakoak, labeak, soropil artifiziala,
itxiturak, dekorazio harriak,
lorategiko altzariak, etab...

**Zure lorategirako
behar duzun guztia
ALMACO Baztanen
aurkituko duzu!**



ALMACO Eraikuntzako materialak

Informazio eta aukera gehiago:
www.almacobaztan.com



📍 Errepide nagusia, Elizondo

☎ Tel. 948 580 104

GAMMA



izotzekin guttik lortu dute». Aurten udaberriari esperatu gabe, lehendabiziko eguraldi onekin nabaritu dute jendea hasi dela erosten: «Jendeak gogo zuen landareak paratzeko, aurten dena hil baita». Bereziki landare «gogorrenak» dira gehien saltzen direnak: «Dipladeniak, begoniak... jendeak gainean egin behar ez zaren landareak nahi izaten ditu».

Barreneko landareei dagokionez, horietan ez da sasoi arabera alderik izaten: «Askotariko aukera izaten dugu urte osoan».

Erosleek bi motatako tendentziak izaten dituzte: «Bada jendea urtero landareak aldatzen dituen eta bada jendea neguan kontserbatzea lortzen duena eta pixkanaka berritzen joaten direnak». Ingurukoei ikusitakoaren arabera erosteko ohitura ere izaten dute aunitzek: «Paseo leku batean landare hagitz polit bat baldin bada jendea segidan etortzen da galdetzer eta erostera».

Baratzeko landareak ere bai

Baratzeko landareak ere izaten dituzte, eta horien salmentan ere ari

dira dagoeneko: «Pixkanaka paratzen ditugu salmentan, eta saldu ahala ekartzen ditugu berriak». Sasoi honetan, batez ere letxugak eta patata hazia ari dira saltzen: «Jendeak lurra prestatu du dagoeneko, eta orain landareak paratzen ari dira».

Landareen bezeroekin bezalatsu, batez ere jende heldua izaten da baratzeko landareen eroslea: «Lur sailik handienak helduek izaten dituzte, eta gazteak baratzetik egiten hasten dira pixkanaka».

Aholku eske

Erosterak bakarrik ez, jendea aholku eske ere hurbiltzen da Bekora: «Bezeroak gure amaren aholkuetara ohituak zeuden, eta hasieran pixka bat kosta bazen ere, dagoeneko ohitu dira gurekin». Landareak eguzkia edo itzala behar duen, zer eritasun izan ditzakeen... Aholku egokiak emateko ikastea tokatzen zaie eta etxean ere paratzen dituzte landareak probak egiteko: «Zeronek paratzen ez baduzu, ez dakizu zerk funtzionatzen duen eta teoriaz aparte praktika ere jakin behar da».



Apezteguia Berria
ferreteria - burdindegia

Baratzeko erreminta
Lorategiko erreminta
Haziak
Lore lurra
Loreontziak
Piszinak
Piszinarako artikulak

- Leitzako errepidea, 33 - 31740, DONEZTEBE -
- info@dapezteguiaberria.com -
- 948 450 994 -



deceuninck



Erosotasunaz gu arduratuko gara ...



Elegant **ThermoFibra** Infinity
Uf (W/m²k) **0,85. Passive House**



JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK



AURREZTE ENERGETIKOA



SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA



ISOLAMENDU MAXIMOA

... eta zu zorientsu izan.

**%45 ERA BITARTEKO DIRULAGUNTZAK
GESTIOEKIN LAGUNDUKO DIZUGU**

Babestu eta emaitza zure lorategiari



Arotxa
Aroztegia 1890az geroztik



AROSZTEGIA
BURDINA | ALUMINIOA | INOX
BALKOIAK | TOLDOAK | BURDINESIAK
FORJA | AUTOMATIZAZIOAK




M. 650 532 073 | T. 948 581 418
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com



ANGRA.ES

Hesiak eta itxurak terraza edo lorategia babesteko ezinbertzeko elementuak dira: animaliak kanporatzen laguntzen dute, mugak ezartzen dituzte eta pribatutasuna ematen diote espazioari. Baina segurtasunaz harago, lorategiaren edertasunari uko egin behar ez izateko, hesiek apaingarri funtzioa ere bete dezakete. Gure etxearen kanpoaldeari hobe egokitzen zaion hesi mota aukeratzea da gakoa, eta horretarako material ugari ditugu eskuragarri:

Altzairuzko hesiak iraunkorrak eta gogorak dira, erresistentzia handikoak korrosioaren kontra. Gainera, gehienetan jartzeko errazak dira eta estilo, neurri eta kolore ugari daude eskuragarri. Espazioari ukitu moderno eta elegante ematen diote.

Egur sintetiko edo *composite* egurrezko hesiek arrakasta handia dute lorezainen artean, estetika naturala eta itxura klasikoa ematen diotelako lorategiari. Egur naturala baino iraunkorragoa da, gainera, estilo ugari lor daiteke, sinplea zein landuagoa.

PVCko hesiak aukera onenak dira sinpletasuna nahi dutenentzako, eta merkeagoak dira. Muntatzeko errazak dira eta eskuragarri daude estilo tradizional zein modernoagoetan. Horrez gain, koloreak denbora luzez irauten du.

Hesi mota guztiek dituzte abantaila eta desabantailak, hortaz, gure terraza edo lorategiaren beharrei hobe moldatzen dena aurkitu behar du.



MC
ZERBITZUAK

Bideak garbitzea eta egokitzea
Lorezaintza
Seinaleak eta panelak






T. 676 53 95 30 | mcz@mcz.eus

ERRENTA 2025

“Nik ahal
izan banuen,
zuk
ere bai”



Mari Carmenek **telefonoz egin zuen errenta**, eta harrituta geratu zen zein azkar eta erraza izan zen ikusita.

apirilaren 9tik ekainaren 25era
ERRAZA DA. BIDEZKOA DA.

HACIENDA NAVARRA  NAFARROAKO OGASUNA

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



NAVARRA † **NAFARROA**

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua



Apirilaren 25ean bazkaria eginen dute. ARTXIBOA

Dena prest dute Atekatu astea ospatzeko

Apirilaren 21etik 25era, tailerrak, ate irekiak eta egun osoko festa antolatu dituzte Atekabeltz herrigunean

TTIPI-TTAPA

Leitzako Atekabeltz herrigunea bizirik dagoela ospatzeko, Atekatu astea antolatu dute. 2005ean okupatu zuten ordu-ra arte kuartela zen eraikina. Handik bost urtetara, 2010ean, sortu zuten Atekabeltz elkar-tea eta geroztik, auzolana oinarri, herriko hainbat eragileren aterpe da eraikina. Denak festa giroan elkartu eta herri-tar guztientzat irekiko dituzte apirileko laugarren astean ateak.

Apirilaren 21ean, asteartean, soinu eta argi teknikari ikastaroa eskainiko dute 18:00etatik aurrera. Apirilaren 23an, ostegunean, ate irekien jardunaldia eginen dute. Gune irekia eta anitza da Atekabeltz. Herriko hamabi eragilek dute txokoa bertan: Gazte asanbladak, Ernaik, Liñuputzu bolillerak, Zeramika taldeak, Leitzako bertso eskolak, eskalada taldea, Habelarte baseritarren elkarteak, LeitzEKO kontsumo taldeak, Lañaidek talde feministak, Serigrafia taldeak, Argi eta soinu teknikariek eta Altzadi Leitzako Kultur Elkarteak. Egundorretan, Atekabeltz

etxea bete eta eragile guztiak bertan izatea da asmoa. Herri-ritarrei Atekabeltzen parte diren eragileak eta egiten duten lana ezagutarazi nahi dute. Ate irekiak 18:00etan hasiko dira eta bukaeran luntxa izanen da.

Apirilaren 25ean, larunbatean, Ateka Eguna ospatuko dute. Bermuta hartuko dute 13:00etan eta 13:30etik aurrera, topa egin eta *Babua* clown ikuskizuna ikusteko aukera izanen da Konpainia Atonito teatro taldearen eskutik. 14:30ean bazkaltzeko elkartuko dira. 18:00etatik aurrera musika ez da faltako. Harat eta Braulio taldeek kontzertua eskainiko du eta segidan, Plan- to eta Kamaleoi DJ ariko dira.

Sarrerak salgai

Ateka Egunerako sarrerak Torrea tabernan jarriko dituzte salgai. Bazkarirako eta kontzerturako txartelak 25 eurotan salduko dituzte eta langabetuek eta ikasleek 15 euro ordaindu beharko dituzte. Kontzerturako txartelak, berriz, hamar eta bost eurotan eskura daitezke.

Apirilaren 19an eginen dute Enduro Txiki Pest proba

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 14an egitekoa zuten Enduro Txiki Pest probaren lehenbiziko edizioa, baina orduko hartan ez zen posible izan. Antolatzaileek hasieratik esana zuten, probaren eguna gerturatu ahala eguraldi iragarpenak aldekoak ez baziren atzeratu eginen zutela, eta hala gertatu zen. Apirilaren 19rako egina dute hitzordu berria.

Haur eta gaztetxoek mendiko bizikletaz gozatzeko helburuarekin antolatu du proba Leitzako MTB taldeak eta harre- ra bikaina izan du lehenbiziko edizioak. Izen emateak bete- ta, 100 parte hartzaile espero dituzte. Goizean, 10:30ean Petriketa eta Baztarla inguruan eginen dute martxa. Gaztetxoak Petriketatik abiatu eta Baztar- laraino jaitsiko dira, eta jarraian



Hiru eta hamabost urte artekoentzat.

Baztarlatik behera beste jaitsiera bat eginen dute. Txiki- nak, aldiz, Baztarlatik behe- rako jaitsiera soilik eginen dute. Batak zein besteak, zailtasunik ez duela izanen azpimarratu dute antolatzaileek: «Jaitsiera bakoitzak 700 metro inguru izanen ditu luzeran eta 100-150 metroko desnibel negatiboa». Bukaeran parte hartzaile guz- tiei oroigarri bana eta opari- txoak ere banatuko dizkietela aurreratu dute.

Lukiek eta Sodade taldeen kontzertua apirilaren 11n

Lukiek musika taldeak kontzer- tua eskaini behar duela iragarri genuen aurreko aldizkarian. Ez dira Torrea tabernan egun horretan ariko diren bakarrak izanen, Sodade musika taldea ere ariko baita. Kontzertua 22:30ean hasiko da eta sarrera sei euro ordaindu beharko da.

Leitzako Irakurle Taldearen bilera apirilaren 15ean

Leitzako Irakurle taldea api- rilaren 15ean, asteazkenean, elkartuko da 18:30ean. Kar- mele Jaioaren *Maitasun kapi- tala* liburua izanen dute hiz- ketagai. Taldea irekia dela gogorarazi dute eta liburua irakurria duen orok parte har- tu dezake.

Apirilaren 23an 'Untxi zuria' jarduera antolatu dute liburutegian

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 23an, 17:30ean, Leitzako liburutegian eginen dute *Untxi zuria* jarduera. Hazien Liburutegia proiektu- aren barruan, haurrei zu- zendutako antzerki emanaldia eta tailerra da. Baliabide na- turalen kudeaketa txarrak

biosferan dituen ondorioei buruz kontzientziatzea da asmoa. Gazteek ingurumenaren etorkizunean eragin po- sitiboa izan dezaketela azpi- marratu nahi dute, permakul- turaren balioak eta jasanga- rritasunaren garrantzia zen- batekoa den erakutsiz.

Leitzako Herri Krosa apirilaren 18an egingen dute

44. edizioa izanen da aurtengoa eta antolatzaileak iazko arrakasta errepikatzeko gogoz daude

TTIPI-TTAPA

Pasa den urteko arrakasta go-goan dute oraindik antolatzaileek; dortsalak agortu eta 500 partehartzailetik gora izan ziren. Apirilaren 18an egingen dute Leitzako Herri Krosaren 44. edizioa eta 16:30etik aurrera haur, gazte eta helduak ariko dira lasterka. Benjamin mailakoek, 2023 eta 2016 artean jaiotakoek, 800 metro egin behar dituzte. Gaztetxoek, 2015 eta 2011 artean jaiotakoek, bi kilometro eta erdi, eta maila absolutuan bi luzera izanen dituzte aukeran, bost kilometro edo hamar kilometroko itzuliak. Benjamin mailako izena ematea dohainik izanen da. Gaztetxoek egunean bertan eman behar dute izena eta bost euro ordaindu. Helduek, alde aurretik egin dezakete izen ematea: Aurrerako bazkide direnek 13 euro eta bazkideak ez direnek 15 ordaindu behar dituzte. Egunean bertan ere izanen dute izena emateko aukera, 15:30etik 17:00etara Aurrera Elkartean: bazkideak ez direnek 17 euro eta bazkideek 15 euro ordainduta.



Lasterketa 16:30ean hasiko da.

Iaz bezalaxe, erronka berezia luzatu dute Kirol Mankomunitatetik. Lekunberri, Betelu eta Leitzako krosetan parte hartu eta erronka hirukoitza osatzen dutenek, sari bereziak eskuratzeko aukera izanen dute. Gainera, seiko talde mistoa osatzen duten leitzarrek, axuria lortzeko aukera ere izanen dute, lasterketa antolatzaileek zehaztutako denbora eta baldintzetan bukatzen badute.

Dantza emanaldia eta zinema aukeran, herri aretoan

Apirilaren 12an Akira Yoshidak *Galduen zergatia* ikuskizuna eskainiko du 19:00etatik aurrera. Dantza eta antzerkia uzartzen ditu ikuskizunak. Apirilaren 18an eta 19an, *Amar-ga navidad* filma ikusteko aukera izanen da 17:00etan eta *Valor sentimental*, 19:30ean.

Akordeoilari topaketako bazkariko txartelak salgai

Nafarroako akordeoilarien topaketa ospatuko dute Leitza apirilaren 25ean. Egun osoko festa izanen da eta tartean, bazkaria ere antolatu dute. Bazkarirako txartelak apirilaren 16ra arte eskura daitezke, *acordeoiana@gmail.com*-era idatzita.



AEK

Leitzarrak ere Korrikarekin bat

Korrikaren furgoneta herriko kaleetan ibili ez bada ere, herritarrek bilatu dute Korrikarekin bat egiteko modua. Martxoaren 23an Korrika txikia egin zuten eta arratsaldean Korrikarekin bat egin eta Azpirotz eta Lezaeta artean, lekukoak eskuz eskuz pasaz, sei kilometro osatu zituzten herritarrek.

Xaguak txistulari taldeak kontzertua eskainiko du apirilaren 24an

TTIPI-TTAPA

Duela ehun urte jaso ziren Ingurutxoaren doinuak lehenbiziko aldiz partituran eta hori aitzaikiatzat hartuta, txistu kontzertua antolatu dute Leitza. Apirilaren 24an, 18:30ean izanen da Leitzako Herri Aretoan. Xaguak izena jarri diote,

hitzordurako apropos bildu den laukoteari. Jose Ignazio Ansorenak, Leire Retegik, Xanti Nazabalek eta Agustin Lascurainek osatzen dute taldea. Nafarroko danbolinen (txistularien) doinuen errepaso eta erakusgarri ere izanen da emanaldia.



**Desguaces
Tafalla**



Ibilgailuak guk biltzen ditugu.

Ibilgailuak desmuntatzen ditugu.

Piezak banatzen ditugu. Bidalketak Europa osora.

Ibilgailuei baja emateaz arduratzen gara.

Piezen disponibilitatea kontsultatu: desguacestafalla.es

Harremanetarako tel:
948 702 730

Eskaerak egiteko tel:
747 755 324



Lizarra errepidea, 31. km, 6, 31300 Tafalla, Nafarroa



Kopuru zehatzik eskura ez duten arren, Leitzan «etxebizitza huts ugari» daudela nabarmendu du udalak. TTPI-TTAPA

Etxebizitzen alokairua: etorkizunerako giltza

Etxebizitzen arazoak hainbat hari mutur dituela ikusita, irtenbide bila hasi da Leitzako Udala. Etxebizitza hutsen alokairua sustatu nahi dute eta horrela, eskaintza eta eskaria parekatu: «etxebizitza hutsak alokairuan jarrita, belaunaldi berriei herrian gelditzeko aukera ematen zaie»

ENERITZ IRAOLA LEITZA

Etxebizitza bat izatea eskubide baina pribilegio bihurtu den garaian, gaia mahai gainean jarri eta irtenbide bila hasi da Leitzako Udala. Herriarren artean kezka «orokorra» dela ikusi dute eta «herriaren etorkizuna jokoan» dagoela iritzita, lanketa berezia egitea erabaki dute: «Belaunaldi berriei bertan bizi ahal izateko aukerak eskaini behar zaizkie. Hemendik berrogei urtetara ere, Leitzako herria herri bizia izan eta jendea bertan bizi dadin».

Etxebizitzaren arazoari irtenbidea emateko, «denen inplikazioa beharrezkoa» dela nabarmendu du Xabat Illarregi Marzol Leitzako udaleko zinegotziak: «neurri batean edo bestean, herri osoari eragiten dion arazoa delako».

Etxebizitza berriak egin dira azken urteetan, baina ez da aski: ««Kontuan izan behar da gaur egun gazte askok etxe bat erosteko aukerarik ez daukela. Emantzipatzeko duen aukera bakarra alokairuan bizitzea da». Horregatik, etxe berriak eraikitzea bezain ga-

rantzitsua da, «hutsik dauden etxeak alokairuan jartzea». Gazteak herrian bizitzen gelditzea ahalbidetuko luke horrek eta herrian dauden etxe hutsei aterabide bat ematea: «Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzen badira, eskaria eta eskaintza parekatu eta dagoeneko eraikita dauden etxe horiek aprobetxatzeko aukera izanen da». Udalaren apustua, alokairu eskuragarri bat sustatzea izan da: «Gazteen baliabideak eta aukerak kontuan izan eta bizitzeko toki duin bat eskaintzea». *Eskuragarri*

hitzean jarri dute azpimarra: «etxebizitza negozio bat baino, eskubide bat dela ulertzen dugulako».

Hori sustatzeko, hainbat bide landu dituzte: «Nafarroako alokairu poltsari buruzko informazioa zabaldu dugu buzoietan, aurkezpen bat ere egin zen herri aretoan eta gaia gizarteratzen saiatu gara. Gaia mugitzen hasi eta mahai gainean jartzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Gure egitekoa

**«ALOKAIRU
POLTSAK BERMEAK
ETA ONURAK
ESKANTZEN DITU»**

**«ESKANTZA ETA
ESKARIA
PAREKATU BEHAR
DIRA»**

XABAT ILLARREGI, LEITZAKO UDALA

da egon daitezkeen baliabideak herritarren eskura jartzea».

Nafarroako Alokairuen Poltsa
Baliabide horietako bat da Nafarroako alokairuen poltsa: «Etxebizitzak merkaturatzeko sortutako egitasmo publikoa da eta etxebizitza alokairuan jarri nahi duenari berme eta onura batzuk eskaintzen dizkio».

Dauden aurreiritziak alde batera utzi behar dira horretarako: «Beldur edo kezka gehien eragin dezakeena alderdi ekonomikoa izan daiteke, baina alokairuen poltsan sartuta, maizterrarekin kontratua sinatzen den unetik kobratzeko ziurtasun osoa izanen dute».

Adituen bitartekaritza ere eskuratzen dute etxejabeek: «Nasuvinsak kudeatzen ditu gerta daitezkeen gorabehera teknikoak, ekonomikoak eta sozialak». Hainbat dirulaguntza ere eskura dituzte, «esate baterako, errenta aitortpenen %70eko murrizketa fiskala lortzen dute eta komunitateko gastuak, 50 euro artekoak, bere gain hartzen ditu programak». Ez hori bakarrik: «Etxebizitza egokitzeko obretarako finantziazioa ere eskaintzen dute eta energia eraginkortasunaren ziurtagiria lortzeko izapideetan laguntza».

Izan ditzaketan beldurrak eta kezka alde batera utzi eta etxebizitza hutsen jabeak pausoa ematera bultzatu nahi ditu udalak: «Nafarroako alokairuen poltsan etxebizitza errentan jartzen dutenek bermatuta dute errenta aldia bukatuta koan etxebizitza jabeen egoera onean itzuliko zaiela».

Etxejabearentzat onuragarria izanen da tratua: «Etekin ekonomikoak lortuko ditu. Ez da ahaztu behar etxe huts bat edukitzeak bere kostua daukala eta erabiltzen ez den etxe bat zahartu egiten dela». Zerbitzuaren erabiltzaileen datuak alde dituzte: «Nafarroako alokairuen poltsaren arduradunek diote egitasmo honetan parte hartzen duten etxejabeen %50

Etxebizitzaren arazoa: hiru ikuspegi



NAHIA ALONSO LABAIEN

ALOKAIRUAN BIZI DA

Duela urte eta erdi joan zen gurasoen etxetik eta argi dio, gazte batentzat bakarrik bizi ahala izatea, gaur egun «privilegio bat» dela. Azaldu du alokairua dela eskura duten aukera bakarra: «Etxebizitza erostea, gazte batentzat ia utopia baita, banketxeetan ez dago inor gure esperoan». Alokairuan bizi ahal izatea ere ez da erraza: «Eskaintza urria da, baina arazorik handiena alokairuen gehiegizko prezioak dira». Datu zehatzak aipatu ditu: «Leitzan, 450 eta 650 euro artean daude alokairuak. Garestiagoak ere ikusi ditut eta pertsona bakarrik ordaintzeko asko da. Alokairua ordaindu eta bizi ere egin behar duzu». Arazoi irtenbidea emateko ikuspegi aldaketa bat beharrezkoa iruditzen zaio: «Prezioak igotzen joan eta jendeak berdin berdin ordaintzen duela ikusita, jendeak hor diru iturria ikusten du. Egoera nozbait lehertuko dela esaten dute, baina ordura arte, nonbait bizi beharko dugu...».



SAIOA ANAUT OTXOTORENA

ALOKAIRUAN BIZI NAHI DU

23 urte beteko ditu aurten eta duela gutxi hasi dira kua-drillan etxebizitzaren gaiak hitz egiten. Ez dagoela erraza dio: «Aukera askorik ez dago eta dagoena oso garesti. Ikasketak bukatu eta lanean hasi berria baldin bazara, oso urruti gelditzen zaizu aukera hori». Interneten ikusgai dagoen eskaintzak herriaren errealitatea ez duela erakusten ere nabarmendu du: «Badakigu etxebizitza huts asko daudela». Oztopo garrantzitsua da hori: «Gazte asko gaude independizatu gabe eta gaur egungo eskaintza ikusita, argi dago denentzat etxerik ez dagoela». Kezka eragiten du gaiak gazteen artean: «Leitzako gazteak azmarren taldean, etxebizitzaren inguruan proiektu bat landu nahi dugu». Jendea mugitu eta irtenbide bila hasteak «esperantza» ematen dio: «Ikusten badute gazteak mugitzen hasten direla, baliteke etxebizitza hutsa duenak alokairuan jartzeko pausoa ematea».



BIDE ETXEBERRÍA INSAUSTI

ETXEBIZITZA ALOKAIRUAN DU

Duela gutxi erabaki zuen etxebizitza alokairuan jartzea eta gustura dago hartutako erabakiarekin: «Esperientzia oraindik oso motza izan arren, positiboa da». Etxebizitza alokairuan jartzeko bi arrazoi nagusi izan zituzten: «Batetik, irabazi ekonomikoak sortzea eta bestetik, etxe bat erosteko aukerarik ez duen norbait bere bizi proiektua eraikitzeko baliabidea eskaintzea». Etxebizitza alokairuan jartzeko asmoa zutela azaldukoan, jende ugari jarri omen zen beraiekin harremanetan, eta horrekegoerari neurria hartzeko aukera eman zion: «Ordurarte gertutik bizitu ez nuen arazoa ulertzeko balio izan zidan». Orokorrean etxebizitzak erosteko zailtasunak daudela uste du: «Ez direlako behar adina eraikitzen edota zailtasun ekonomikoagatik, horregatik, etxebizitza hutsak ez mantentzea komeniko litzaiguke». Horregatik, etxebizitza hutsa duten guztiak, alokairuan jartzera animatuko lituzte, «denentzat onuragarri izango da eta».

baino gehiagok errepikatzen dutela».

Baldintzak

Etxebizitza libreak, hutsik daudenak zein erabilitako babestuak utz daitezke Alokairuen Poltsan, baina badira bete beharreko hainbat baldintza ere: bizigarritasun zedula, sukalde ekipamendua, hondakinen eta kontribuzio tasei eta bestelako ziurtagiriei dagozkionak... Xehetasun

gehiagoren berri izan nahi duenak 848 42 060 telefonora deitu dezake.

Alokairu poltsa batean herrian dagoen eskaintza biltzea etxe bila ari denarentzat ere onuragarria dela uste du Illarregik: «Alokairuan bizi nahi duenari etxebizitza aurkitzeko bidea erraztea ahalbidetzen duelako». Leitzan ahoz ahokoak indar handia duela jakinda, «beste baliabideen beharra ere» badagoela uste dute. Alokairuen

Poltsa sustatuta, etxebizitza-parke publikoa handitzen da eta horrela, «prezio eskuragarrietan etxebizitza bat alokairuan hartu nahi dutenei benetako irtenbidea eskaintzen zaie».

Leitzako Udalaren mezua argia da: «ezin dugu inor behartu, baina bai animatu eta informatu. Etxebizitza huts bat, beste batentzat herrian bizi ahal izateko aukera izan daiteke».



Lanen lehenbiziko fasea bukatu dute. GOIZUETAKO UDALA

Ospitaleko eraikineko obra aurrera doa

Bigarren faseko kontratoaren esleipena Iparragirre enpresari eman zaio eta hasi dira lanean

TTIPI-TTAPA

Goizuetako ospitaleko eraikinean alokairuko sei etxebizitza egiteko proiektua ari da pixkanaka itxura hartzen. Iparragirre enpresak hartu zuen lehenbiziko fasea egiteko ardura eta eraikina hustu eta egur laminatuzko egitura berri bat egin dute, gaur egungo kanpoko paretak mantenduz. Teilatu berria jarritakoan bukatzen zen lehenbiziko fasea eta bigarren fasea, dagoeneko lizitatu dute.

Hemendik aurrera egin beharreko lanak egiteaz ere, Iparragirre enpresa arduratuko da. Sei etxebizitzak eta trastelekuak

eginen dituzte eta udal erabilerarako lokal bat ere bai. Lan hauek, 2026ko abendurako bukatzea espero dute.

Eraikina birgaitzeko lanek 1,3 milioi euroko aurrekontua dute eta birgaitze babestuaren behin-behineko kalifikazioa lortuta, 360.000 euroko dirulaguntza ere eskuratu du udalak. Hala, 340.000 euroko inbertsioa egin beharko dute. Proiektu hau despulazioari aurre egiteko «urrats handia» dela nabarmendu izan du udalak: «alokairura bideratutako eskaintza publiko bat sortuko delako».

Liburutegi ibiltaria eta bisita berezia apirilaren 22an

TTIPI-TTAPA

Literaturazaleek gorritz seinatatu beharko dute egutegian apirilaren 22a. LAGA bibliotekak Goizuetako eskolan egonen da 13:00etatik 15:30era. Lehenbizi eskolako ikasleek egingen dute liburu trukea eta gero, herritar guztiek izanen dute

aukera. Hortik, Aranora joanen da eta bertan izanen da 16:00etatik 16:30era. Irakurle taldeak ere, egun horretan du hitzordua. Tifanixon elkartuko dira 18:30ean eta Mikel Pagadizabalen *Bisita* liburua aztertuko dute eta idazlea bera gonbidatu dute hitzordura.



ARAINBURU MENDI TALDEA

Mendiz mendi, Goizuetatik Arantzara

Hamahiru lagunek parte hartu zuten martxoaren 28an Arainburu mendi taldeak antolatutako irteeran. Lanbro artean ibiltzeak ere bere xarma baduela azpimarratu dute parte hartzaileek: «Umore Ona izenez, Arainburu abizenez, eguraldi txarrari aurre eginez, umorez osatu genuen ibilbidea!»



UTZITAKO ARGAZKIAK

Goizuetako pilotari emaria

Martxoaren 16ko astea nekez ahaztuko dute Goizuetako pilotazaleek. Martxoaren 19an ametsetako debuta egin zuen profesionaletan Beñat Apezetxeak eta martxoaren 22an, Alize Sagarduik elite mailako binakako txapelketa irabazi zuen. Batak zein besteak, ez zuen herritarren animorik falta izan.

«Ohorea izan da elite mailan finala jokatu eta txapela irabaztea»

ALIZE SAGARDUI LEKUONA GOIZUETAKO PILOTARIA

Hamalau urterekin elite mailan debuta egin eta Emakume Master Cupeko binakako txapela eskuratu du Goizuetako pilotariak Enara Gaminderekin batera

ENERITZ IRAOLA GOIZUETA

Pozarren dago Alize Sagardui Lekuona eta ez da gutxiagorako. Hamalau urterekin elite mailan aurreneko txapelketa jokatu eta txapela beltza eskuratu du. Etorkizunean ere, pilotakadaz pilotakada, ikasten eta disfrutatzen segitzea du helburu: «Frontoian gozatzeta da nire asmoa, mailari eustea eta tartean zapelen bat gehiago etortzen bada, ongi-torria izanen da». Goizuetako pilotari emariak, badu gogoan hartzeko beste izen bat.

Martxoaren 22an, Eibarko Astelena pilotalekuan jokatu zuen Emakume Master Cupeko binakako finala. Enara Gaminderekin osatu zuen bikotea eta esker hitzak ditu bereztat: «Gozada bat izan da Enararekin jokatzea. Asko babestu nau eta halako laguntza edukitzea oso garrantzitsua izan da niretzat».

Goi mailan lehiatzeko aukera ongi merezita ailegatu zaio Sagardui: «Emakume Master Cupeko promesa mailan lau eta erdiko txapela irabazi nuen iazko abenduan eta goi mailan aritzeko aukera eman zidaten. Ez nuen inondik espero halako aukera bat emanen zidatenik eta sorpresa ederra izan zen».

Sorpresa eta erronka ere bai. «Banekien goi mailari neurria hartzea ez zela erraza izanen. Gustura nago, txapelketan behetik goiti egitea lortu dudalako».



Sagardui eta Gamindek, 22-17 irabazi zieten Arrizabalagari eta Bergarari. UTZITAKOIA

Finalaren oroitzapen goxoa du oso: «Harmailetara begiratzean, dena betea zegoen. Jende asko joan zen herritik eta ederra izan zen frontoia horrela ikustea». Zapela janztean, lehertu ziren emozio guztiak: «Finalera ailegatzeta zen nire helburua eta hori lortuta pozik nengoan. Zapela lortzea ohorea izan zen eta bertan zeuden herritar guztiak ospatu ahal izatea zoragarria».

Umetatik pilotan

Pilota eskolan sei-zazpi urterekin hasi bazen ere, aurretik hamaika ordu pasa ditu frontoian «aita eta anaiarekin joaten nintzen pilotan ibiltzera». Afizioa familiarik datorkiola

azaldu du: «Aitona pilotan ibiltzen zen eta osaba eta anaia ere bai. Anaiak asko bultzatu zidan pilotan ibiltzera».

Goizuetan sekulako tradizioa dago pilotarako, baina ez dira neska asko pausoa ematera animatzen direnak: «Kalean lagunekin aritu bai, baina pilota eskolan apuntatu eta txapelketetan parte hartzen dutenak oso gutxi izaten dira». Argi zuen, ordea, Sagardui zein zen bere nahia: «Ni txi-

«FRONTOIAN GOZATU ETA IKASTEN SEGITZETA DA NIRE ASMOA»

kitatik mutilekin entrenatu izan naiz. Aranoko Araitx Lezarreta eta biok ginen bere garaian neska bakarrak».

Badirudi, ordea, beste herrietan gauzak zertxobait aldatzen ari direla: «geroz eta neska gehiago ikusten dira frontoietan eta orain Emakume Master Cupek hamar urte bete dituela ikusita, ea jende gehiagori ere pizten zaion gogo».

Emakume pilotariak

Herrian emakume erreferenterik ez bazuen ere, telebistan txikitatik ikusi ditu emakumeak pilotan: «Enara Gaminde, Olatz Agirrezabalaga, Leitzako Goiuri Zabaleta... Horiek guztiak izan ditut erreferente eta sinestezina da niretzat, beraiekin pilotan jokatzen aritzea». Hurrengo belaunaldiek ere maila polita dutela uste du: «Etorkizuna ikusten diot emakumeen pilotari. Uste dut gauza ederrak bizitzeko eta ikusteko aukera izanen dugula».

Erronkak ere gustuko ditu Sagardui. Beti egon da esku huskakoari lotuta, baina One Wall modalitatean ere ibili izan da. Belgikan izan zen iazko irailan euskal selekzioarekin eta apirilaren 6tik 12ra Munduko Txapelketa jokatzen ari da Argentinan.

Etorkizuna

Goi mailan hasi besterik ez da egin eta helburua, «ahalik eta maila onena hartzea eta onekin egonkortzea» dela azaldu du. Horretarako, entrenamenduak eta ikasketak uzartu behar izaten ditu: «Villabonara joaten naiz astean behin entrenatzera eta bertan elkartzen naiz goi mailako hainbat pilotarirekin: Mendizabal, Zabaleta, Arrillaga... beste entrenamendua Goizuetan egiten dut eta fisikoa lantzeri ere garrantzia ematen diot». Zalantzarik gabe dio bere etorkizuna «pilotari lotuta» irudikatzen duela, «gogotik saiatuko naiz entrenamenduetan hobetu eta bide honi eusten».

Hauteskundeei buruzko bilera apirilaren 16an

Udaletxean elkartuko dira 19:00etan eta herritar guztiei egin diete bertaratzeko deia

ENERITZ IRAOLA

2023ko udal hauteskundeak ongi gogoan dituzte herritarrek. Hautagitzak aurkezteko epeak bukatuta, ez zen herritarren osatutako zerrendarik aurkeztu. Bi hauteskunde deialdi eta hamaika bileren ondotik, herritarrek osatutako kudeaketa batzorde baten esku gelditu zen 2024an Aresoko Udala. Udalak ez luke egoera errepikatzerik nahi eta horretarako, 2027an egingo dituzte udal hauteskundeetarako lanak aurreratzen hasi nahi dute. Udalak bilera deitu du herritarrekin apirilaren 16an, ostegunean. Udaletxean elkartuko dira, 19:00etan. Herrian zein giro dagoen neurtu eta egon litezkeen aukera desberdinak jarriko dituzte mahai gainean. Herritar guztiei egin diete bertaratzeko deia.

Festa batzordearen bilera

Ostegunekoa ez da izango aste horretako bilera bakarra. Bezerperan, apirilaren 15ean, festa batzordea deitu dute. Eskoletxean elkartuko dira 17:30ean eta egitaraua zehazten hasiko dira.

Eskoletxea herritarren eskura

Eskoletxearen erabilera librea sustatu nahi du udalak. Horretarako, sartu-irtenak kontrolatzeko sarbide elektronikoak jarri eta txartelak banatu dituzte zerbitzua erabili nahi dutenen artean. Martxoan izan da izena emateko aukera eta hau idazterakoan azken egunaren faltan, 62 herritarrek egin zuten eskaera. Datozen asteetan emango ditu udalak zerbitzuari buruzko xehetasun gehiago: erabilera arauak, baldintzak...



NAZABAL ESKOLA

Ikusi eta ikasiz

Martxo erdialdean, Ornitolaneko kideen bisita izan zuten Nazabal eskolan. Gure inguruan bizi den fauna eta haren arrastoak identifikatzen ikasteko aukera izan zuten. Gainera, eskulanetarako tartea ere hartu zuten eta bakoitzak gustuko duen animaliaren oinatza eraman zuten etxera.



AEK

«Areson ere, euskaraz!»

Martxoaren 23an Korrikaren parte izan ziren herritarrek. Nazabal eskolak Korrika Txikia antolatu zuen goizean eta herrian itzulia osatu zuten. Goizean beroketak eginda, herritar ugari joan ziren arratsaldean Sakanara, udalaren eta herriko eragileen artean erositako bi kilometroetan korrika egitera.



UTZITAKO ARGAZKIA

Larrialdietarako prest

Plaza Zaharrean jarri duten desfibriladorea erabiltzen ikasteko aukera eskaini dute herrian. Martxoaren 28an egin dute ikastaroa eta konorterik gabe dagoen pertsona baten aurrean nola jokatu, bihotz eta biriketako erreanimazioa nola egin... ikasteko aukera izan zuten ikastaro teoriko eta praktikoan.

Mus eta partxiseko finalak jokatu dituzte Donezteben

Miguel Baleztenak eta Antonio Telletxeak irabazi dute musean eta Kontxita Bizentek eta Anuntxi Txoperenak partxisean

TERE ARRETXEA ETA KONTXI AGERRE

Azken aldizkarietan behin baino gehiagotan aipatu dugu bezala, martxoaren 26an jokatu zuten Donezteben mus eta partxis txapelketako finala. 41 bikote aritu ziren musean eta zazpi partxisean.

Musean sari nagusia Eratsunera joan zen eta Miguel Baleztena eta Antonio Telletxearentzat izan zen garai-pena. Bigarren postuan Leitzako Juan eta Miguel Maria Zabaleta sailkatu ziren eta hirugarren lekuan Anizko

Martin Gamio eta Berroetako Pedro Mari Gamio.

Partxisean zazpi bikote aritu ziren lehian eta igantziarrak erabat nagusitu ziren. Lehen postua Kontxita Bizente eta Anuntxi Txoperenarentzat izan zen, bigarrena Juana Urtxegi eta Marisol Dorron-sororentzat eta hirugarrena Pilar Iturbiderentzat eta Justa Seinentzat.

Finala jokatu ondotik, 106 lagunek bazkaldu zuten Santamarian.

Zorionak irabazle denei eta heldu den urtean gehiago!



Museko lehen hiruak goian, behean partxiseko lehen bi sailkatuak. UTZITAKOIA

100 lagun elkartu dira Gartzainen martxoko mendi irteeran

TERE ARRETXEA ETA KONTXI AGERRE

Baztanen egin dute martxoko irteera Arkupeak elkarteko mendizaleek. Gartzainen elkartu ziren eta handik hamasei kilometroko ibilbidea egin zuten. Gartzaindik Arraiozera joan ziren, gero Zigara eta

Otsagarate eta Idoian barna Ziguarrera joan ziren. Handik Iruritarra jautsi ziren eta berriz ere Gartzainera itzuli ziren. Hotel Baztanen bazkaldu zuten eta ondotik bingoan aritu ziren.

Hurrengo irteera apirilaren 21ean egingen dute Etxalarren.



Irteeran parte hartu zuten mendizaleak Zigako elizan. UTZITAKOIA

Lourdeseko irteeran izena emateko epea heldu den astean

Maiatzaren 28an, Lourdesera bidaia antolatatu du Arkupeak elkarteak. Bada, irteeran parte hartu nahi dutenek izen ematea herriko delegatuen bidez egin beharko dute apirilaren 13an, 14an eta 15ean. Bidaia-ramera Europako Osasun Txartela eramateko eskatu dute.

Sei saioko tailerra mugikorra nola erabili ikasteko

Apirilaren 28an hasita *Mugikorrarekin egin ditzakegun gauza baliagarriak* tailerra egingen dute asteartero 10:00etatik 11:30era. Plazak mugatuak dira eta interesatuek bulegora deitu beharko dute izena emateko. Ikastaroa elkartearen Doneztebeko egoitzan egingen dute.

KULTURKARI
Diseinu grafiko | Publizitatea
www.kulturkari.com

Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...

2026ko aurrekontuak onartu ditu udalak

14.755.325 euroko aitzinkontu orokorrari hasierako onespina eman diote, EH Bildu eta Zurekin Baztanen aldeko 9 botorekin, Baztango Independenteen abstentzio batekin (bertze zinegotzia ez zen bertaratu) eta UPN eta Geroa Bairen kontrako 2 botorekin

TTIPI-TTAPA

Aurtengo aurrekontu orokorrak Baztango Udalaren, Baztan Ikastola eta Zahar etxea erakunde autonomoen eta Lixura enpresa publikoaren aurrekontuak biltzen ditu. Horrela, udalarena 13.517.067 eurokoa da, ikastolarena 963.000 eurokoa, zahar etxearena 275.258 eurokoa eta Lixurarena 912.470,03 eurokoa. Horiek kontsolidatuta udal txearen aitzinkontu orokorra finkatzen da, 14.755.325 eurokoa.

Horrez gain, Giltxaurdi enpresa publikoaren aurrekontua dago, 620.363,72 eurokoa, eta Zaintza Lanak Baztan enpresa publikoarena 3.574.019 eurokoa; merkataritza sozietateak direnez, ez dira kontsolidatutako aurrekontu orokorraren barnean sartzen.

Gastu nabarmenak

Urtero bezala, ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuen saila eta pertsonal gastuena dira nabarmentzen diren bi atalak, hurrenez hurren, 3.989.871 euro eta 3.198.133 euroko partidekin. Dena den, aurtengo aitzinkontuetako sailik handiena inbertsioei dagokiena da: 4.929.603 euro bideratuko dira. Inbertsio horiek finantzatzeko bide nagusiak hauek izanen dira: 1.177.403 euro aurrezki garbia, 1.337.170 euro dirulaguntzak eta 2.000.0000 euroko mailegua zahar etxeko obren bigarren faserako.

Izan ere, aurreikusitako inbertsioen artean, handiena Francisco Joaquin Iriarte zahar



Zahar etxeko bigarren faseko obrek baldintzatu dute aurtengo aurrekontua.

etxeko 2. faseko obrara bideratuko dena nabarmentzen da: lau milioi euro. Erdia maileguan hartuko du udalak, eta EH Bilduren talde parlamentarioari esker milioi bat euro erdietsi dira. EH Bilduk Nafarroako aurrekontuak aitzinera ateratzeko babesaren truke egindako negoziaketaren ondorioz milioi bat euro hartuko ditu Baztango Udalak. Falta den milioia udalak paratuko du bere funtsetatik.

Baztan kiroldegiko teilatua ere konponduko dute 200.000 euroko inbertsioarekin. Hori finantzatzeko Geroa Baik Nafarroako Parlamentuan 87.000 euroko dirulaguntza izenduna erdietsi du, gainerakoa udalak ordainduko du.

14.755.325 EUROKO AITZINKONTUA IZANEN DU UDALAK AURTEN

Bertze inbertsio batzuk ere egin dituzte, adibidez, basogintza jardueretarako 145.000 euro; nekazaritza azpiegituretarako 77.500 euro; Erdizko asketarako 17.000 euro; LED argiteria ezartzeko 58.700 euro; kirol instalazioetan obrak egiteko 34.118 euro; eguzki plakak jartzeko 70.000 euro; ikastetxeetan lanak egiteko 102.500 euro; eta ur hornidura hobetzeko 69.850 euro.

Aurten hartzea aurreikusten duen mailegu berriarekin, totalen udalaren zorpetze maila % 46,5koa izanen da. Udalak azaldu duenez, «legeak finkatzen duen % 110eko mugatik arras urrun dago gure zorpetze maila».

Akitzeko, osoko bilkuran 2026ko udaleko plantilla organikoa ere onartu zuten. EH Bildu, Zurekin Baztan eta Geroa Bairen aldeko 10 boto, UPNren kontrako boto bat eta Baztango Independentek taldearen abstentzioa izan zituen.

UPNren eta Geroa Bairen «jarrera ezkorra»

Anbustegi alkateak adierazi duenez, «aurten gobernu taldeak aukera eman die oposizio taldeei aurrekontuetan kontuan hartu beharreko proposamenak aurkezteko. Baztango Independentek eta Geroa Baik hainbat proposamen egin dituzte, horietako batzuk aurrekontuetan sartuak. UPNk ez du proposamenik egin».

Baztango Independentek aitzinkontuaren onarpenean abstenitu ziren, «erranez ez dietela baiezkoa emanen, baina positiboki baloratu dutela gauzak proposatzeko aukera eta aurrekontuetan kontuan hartu izana». UPNk eta Geroa Baik kontra bozkatu zuten.

Gobernu taldeak gogorki kritikatu du «UPNren eta Geroa Bairen jarrera ezkorra». Batetik, «UPNk ez du alternatibarik aurkezten ezta proposamenik egiten ere. Gainera, dauden proposamenak oztopatzen ditu, udalaren ekimenei boikota egitea bertze helbururik gabe».

Bertzetik, Geroa Baik «antzerki politikoa» egin duela salatu dute: «aurrekontuan kontuan hartu dira Geroa Bairen hainbat proposamen, baina kontra bozkatu zuen anbiziorik eta sormenik gabekoak direla argudiatuz, hain zuzen ere, proposamenak egiteko aukera izan zuenean berak erakutsitako anbizio eta sormen falta bera». Gainera, «Nafarroako aurrekontuetan bere talde parlamentarioak bultzatutako dirulaguntzaren aurka bozkatu du».

Horren aitzinean, EH Bilduk eta Zurekin Baztanek argi utzi dute «aurrekontuen kontra bozkatzean», UPN eta Geroa Bai «baztandarrak oztopatzen ari direla, beren jarrera politikoak erakusten baitu Baztango Udala geldiarazi nahi dutela. UPNk eta Geroa Baik Baztango herritarren ongizatearen aurka bozkatu dute».

Aroztegiko auzipetuen aldeko kontzertua Lekarozen

Bertzeak bertze, Pello Reparazek, Olaia Inziartek, Gorka Urbizuk eta Aiora Renteriak kantatuko dute apirilaren 19an

TTIPI-TTAPA

Aroztegiko auzipetuen alde dirua biltzeko kanpainaren barnean, Aroztegiko Elkartasun Komiteak kontzertuak antolatu ditu apirilaren 19an Lekarozen.

Zortzi euskal artista ezagunek osatu dute kartela, eta akustikoan kantatuko dute giro goxoan: Ibil Bedi; Pello Reparaz; Aiora Renteria eta Piti; Gorka Urbizu eta Iñigo Astiz; Joseba Tapia; Ane eta Kattalin Barcena; Olaia Inziarte; eta Bidenabar taldea izanen dira oholtzaren gainean.

Emanaldiak herriko plazan izanen dira eta 17:00etan hasiko dira. Gainera, ostatua ere izanen da.

Kontzertu solidarioak

Antolatzaileek adierazi duteenez, borondatea bilduko dute jendearen artean eta dirua Aroztegiko epaiketako gastu eta zigorrak ordaintzeko izanen da. Diru bilketa hastean, 70.000 euroko helburua jarri zuen taldeak, baina enpresa Auzitegi Gorenera badoa, etorkizunean kopurua handitu daitekeela ohartarazi dute.



AITOR BAZTERRIKA ETA MARIJO ETXEBERRIA

Zuhaitzaren eguna Elizondon

Elizondoko Eskola Publikoko ttikiek, gurasoekin batera, Zuhaitzaren eguna ospatu zuten martxoaren 29an. Hogei haritz landatu zituzten udalak Bagordi inguruan utzitako lur zatian, gurasoek auzolanean garbitua. Lanen ondotik, gosari goxoarekin borobildu zuten goiza.



Musika eta joko artean bildu ziren herritarrak Merkatuko plazan. TTIPI-TTAPA

Elizondorat etorritako gazte migratzaileei ongietorria

TTIPI-TTAPA

Jendetza bildu zen martxoaren 22an Elizondoko Merkatuko plazan, Benito Menniko Bertiz eraikineri etorri diren 20 gazte migratzaileei ongietorria egiteko musika, janari eta joko artean.

Baztango Gazte Asanbladak antolatu zuen hitzordua eta


jakinarazi zuenez, sare sozialetan zabaldu bideo baten harira, «gure herrian bizi diren pertsonen aurka eraso faxistak izan dira, gorroto mezu arrazisten bidez». Horren kontra elkartu ziren herritarrak, «jatorria edozein dela ere, pertsona oro onartua eta errespetatua sentitu behar baita».

Motozerra eta sasiak garbitzeko makinaren lantegia emakumeendako

TTIPI-TTAPA

Baztango Berdintasun Zerbitzuak motozerra eta sasiak garbitzeko tresnak modu seguru eta egokian erabiltzen ikasteko lantegia antolatu du apirilaren 17an eta 18an. Emakumeei zuzendua egonen da, «haien autonomia sustatu nahian tradizionaldiko maskulinizatuak izan diren lanetan, aukera berdintasuna bulkatuz eta landa eremuko lanen ezagutza eta trebetasunera sarbidea erraztuz».

Bi saio praktiko izanen dira, ortzira leian 17:00etatik 20:00etara eta larunbatean 10:00etatik 13:00etara eta Elizondoko Juanjo Atxa Midegia pilotekuan egingen dute (lehenagoko Baztan pilotalekuan). Tresna motak eta egin daitezkeen lan sinpleak azalitzeaz gain, segurtasun arauak,



Tresnen erabilera landuko dute. FREEPIK

arriskuak eta prebentzio neurriak landuko dituzte.

Izen ematea

Udalak «emakume guztiak animatzen ditu lantegian parte hartzera». Interesa dutenek izena eman beharko dute Berdintasun Zerbitzuarekin harremanetara jarritik. Horretarako eskuragarri daude 613 003 634 telefono zenbakia eta berdintasuna@baztan.eus helbide elektronikoa.

Ttipi-ttapa ttipi-ttapa Korrika Baztandik barna

Martxoaren 24an 10:00ak aldera sartu zen Oronoztik eta eguerdia pasata utzi zuen Baztan Otsondotik

TTIPI-TTAPA

Baztandarrek ez zuten hutsik egin 24. Korrikan: martxoaren 24an adin guzietako emakume, gizon eta haurrek eraman zuten lekukoa, euskararen alde lasterka, oihuka eta kantari. Oronoz-Mugairitik sartu zen goizean eta Iruritaraino joan zen errepidetik. Handik ibil-bidea desbideratu zuten, lehenbiziko aldiz Gartzainerat sartzeko. Herria pasatuta Etxarritik atera zen, Elizondo eta Elbetze zeharkatu zituen eta errepidean segitu zuen Otsondotik atera arte.



Baztango zinegotziak lasterka. AEK



Ornoz-Mugairitik sartu zen Korrika Baztanagerat. AEK



Iruritako eskolako haurrek furgonetaren esperoan plazan. TTIPI-TTAPA



Aurten, lehenbiziko aldiz, Gartzainen sartu zen Korrika. AEK



Jendetza bildu zen lekukoaren gibelean Elizondoko karrketan. AEK



Zigatarrek txirindularitza taldearekin batera egin zuten lasterka. UTZITAKOA



Arrazismoaren kontrako aldarriak Gazte Asanbladaren kilometroan. TTIPI-TTAPA



Baztandarrek bikain aritu ziren Iruritan jokaturako finalean. UTZITAKOA

Basaburuko gaztetxoek hiru zapel herri kiroletan

Nafarroako Herri Kirol Jokoetako finala jokatu zuten martxoaren 29an Iruritan eta baztandarrek bikain aritu ziren

TTIPI-TTAPA

Kategoria guztietan finalerako txartela lortua zuten Baztango Basaburuko kirolariak: herri kiroletan kimu, haur eta kadeteen mailan eta sokatiran haur eta kadeteetan. Orain arteko lana borobildu zuten eta jokoan ziren borts zapelatetik hiru beraiendako ziren, eta borts segundoko aldeagatik ez zuten laugarrena lortu.

Proba konbinatua

Kimuen mailan, Etxarri Aranzko Andra Mari 1 taldeak lortu zuen garaipena, baina borts segundoko aldea baino ez zion atera Basaburua A taldeari.

1. Andra Mari 1: 06.52

2. Basaburua A: 06.57

3. Berriozar A: 07.04

4. Andra Mari 3: 07.13

Haurren mailan, berriz, hirugarren postuan gelditu zen Basaburua.

1. Andra Mari 2: 11.51

2. Andra Mari 1: 12.17

3. Basaburua: 13.17

4. Antsoain: 13.18

Kadeteetan zapela jauntzi zuten baztandarrek. Eta ez

hori bakarrik, bigarren postua ere Basaburuan gelditu zen. Batek bertzeari 31 segundoko aldea atera zion.

1. Basaburua B: 10.59

2. Basaburua A: 11.30

3. Araxes: 11.57

4. Antsoain: B 13.37

Sokatira

Sokatiran, liga sistemaren bitartez, borts jardunaldi jokatuta erabaki dute sailkapena, eta bai haurren kategoriako zapela, bai kadeteena ere, Basaburuarendako izan ziren.

Haurretan sailkapen nagusia honela gelditu zen:

1. Basaburua: 29,5 puntu

2. Berriozar: 28 puntu

3. Andra Mari 2: 25 puntu

4. Andra Mari 1: 23,5 puntu

5. Iñigo Aritza: 14 puntu

6. Antsoain: 13 puntu

7. Paz de Ziganda: 7 puntu

Kadeteen mailan, berriz, hauxe izan zen sailkapen orokorra:

1. Basaburua: 27 puntu

2. Antsoain B: 25 puntu

3. Andra Mari: 18,5 puntu

4. Berriozar: 13 puntu

5. Antsoain A: 12,5 puntu

6. Iñigo Aritza: 9 puntu



Jon Garmendiak eta Xabi Solanok gidatuko dute saioa. GAIZKA PEÑAFIEL

'Bidasoatik harago' ipuin kontaketa musikatua igandean Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Trikitixaz eta gitarraz lagunduak, ipuin laburrak eta poemak kontatuko dituzte Jon Garmendia poetak eta Xabi Solano musikariak apirilaren 12an, igandea, Elizondon. Baztango Kultura Zerbitzuak antolatuta du saioa eta Arizkunenean izanen da, 18:00etan.

Sinopsia

Kantuekin apaindutako ikuskizuna da *Bidasoatik harago*, zentzuak eta emozioak esnatzeko gonbidapena, herriaz, kulturaz, historiaz, desirez, amatez eta maitasunez hitz egiten duena, ikus-entzuleari momentu goxo bat pasarazteko.

Dantzagarriak apirilaren 12an Elizondon

Hilabetero bezala, jotak, larrain dantzak eta mutxikoak dantzatzeko aukera emanen dute Elizondoko Gaiteroekapirilean, eta hilaren 12an egin dute hitzordua. 12:30ean bilduko dira, Elizondoko plazan eguraldi ona bada eta Iriarte pilotalekuan euria eginez gero.

Baztan Kantuz apirilaren 19an Gartzainen

Baztan Kantuz ekimenak ere ez du hutsik eginen bere herriz herriko ibilbidean eta apirilaren Gartzainen txanda izanen da. Kantua gustuko dutenek apirilaren 19an, igandea, 12:00etan izanen dute hitzordua. Herrian barna ibiliko dira musikariak, Kultura Zerbitzuaren eskutik.

Ainara Unanuaren ipuin kontaketa Arizkunenean

Liburuaren eguna ospatzeko, apirilaren 23an Ainara Unanua ipuin kontalari gartzaindarrak ipuin kontaketa saioa eskainiko du Elizondon. Baztango Kultura Zerbitzuak antolatuta du hitzordua eta Arizkunenean 17:00etan izanen da emanaldia.

BRIKO
BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan
dutaontzia jarzea
Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)



2024an izan zen lasterketaren azken edizioa. MIKEL HUALDE

Iruritako V. Mendi Duatloia maiatzaren 1ean

24,8 kilometro izanen ditu ibilbideak eta apirilaren 26ra arte eman daiteke izena, banaka edo binaka

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko atsedenaldiraren ondotik, Iruritako gazteek bertze behin antolatu dute mendi duatloia, borzgarren edizioa aurtengoa. Maiatzaren 1ean egingen dute proba eta izena ematea dagoeneko irekia dute kirolprobak.com webgunean, apirilaren 26ra arte. Banaka edo binaka egiten ahalko da lasterketa eta guztira 24,8 kilometro izanen ditu ibilbideak, horietatik 8,8 lasterka egiteko eta 16 bizikletan. Bakarka parte hartzeko 25 euro ordaindu beharko dira eta erreleboka, berriz, 35 euro.

Baztan-Bidasoko Mendi Duatloi Txapelketa

Aurten, gainera, Baztan-Bidasoko Mendi Duatloi Txapelketa egingen dute lehenbiziko aldiz: Iruritako, Sunbillako eta Igantziko mendi duatloiek osatuko dute txapelketa, hiru herrietako antolatzaileek elkarlanean sortua. Txapelketarako guttienez hiru probetatik bitan parte hartu beharko da, eta bikoteen kasuan, berdina mantendu beharko dira lasterketa guzietan. Apirilaren 11n izanen da Sunbillako duatloia, eta Igantzikoa, berriz, apirilaren 25ean.



Nahia eta Julene Baylon eta Miren, Txomin eta Joanes Altxu. BIZPHIRU PELAU

Bizphiru Pelau taldeak azken agurra egingen du apirilaren 18an Iruritan

TTIPI-TTAPA

Bere lehenbiziko kontzertutik sei urte pasatu ondotik, eszenatokiak utziko ditu Bizphiru Pelau erromeria talde baztandarrak. Agurra emateko azken besta antolatu dute apirilaren 18an, larunbata, Iruritan.

20:00etan poteoa egingen dute herrian barna fanfarrearekin

eta 22:30ean Ttukukarrakak Batukada izanen da. 23:00etan joko du bere azken kontzertua Bizphiru Pelauk Gizarte Bilgunean, eta ondotik besta luzatuko da Potota Frexko eta Flaziko Fonki DJekin. Bokatak ere izanen dira ostatuan.

Elkarrizketa Joanes Altxu taldekideari 69. orrian.

'Beso hutsak, bular beteak' aurkezpen saioa apirilaren 14an Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

«Dolu perinatalari, edoskitzeari eta indarkeria obstetrikoiari buruzko hausnarketa feminista egiteko espazio segurua» sortu nahi du Baztango Udalak, Andrea Saez de Egilazen eskutik. Apirilaren 14an, asteartea, aurkezpen

saioa egingen dute Elizondon, etorkizunean talde egonkorra sortzeko helburuarekin. Arizkuneneko sabaian 17:00etan izanen da solasaldia.

Interesa dutenek izena ematen ahal dute gizartezerbitzua@baztan.eus helbidean edo 689 035 078 telefono zenbakian.



asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Karrika, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Elizeta, 3
31770 LESAKA
Helbide berria!
T. 948 638 077



Eguraldi ederra izan zuten joan den urteko ferian. JUAN MARI ONDIKOL

Udaberriko feria apirilaren 10ean Elizondon

Ahari lehiaketa, merkatua, gasna mozketa eta dantzariak izanen dira Merkatuko plazan

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta Cederna Garalurrek Udaberriko feria antolatu dute bertze behin Elizondon, eta apirilaren 10ean izanen da aurten.

Urtero bezala, goiz osoko egitaraua prestatu dute Merkatuko plazan. 10:00etan azienda feria hasiko da, eta aurten Ahari lehiaketaren XXVI. edizioa egingen dute. Ordu berean bertako artisauen eta ekoizleen azoka ere egingen dute. Haurrendako ere izanen da zer egin, Birziklatuz sortu tailerra egingen baitute 10:30etik 13:00etara. 11:00etatik aitzina

nera txistulariek alaituko dute giroa eta 12:00etan, berriz, Baztango Dantzari Ttikiek dantza ikuskizuna egingen dute. 12:15ean urteko ardi gasnaren mozketa ekitaldia izanen da, eta 12:30ean bertako produktuekin batera dastatzen ahaliko da. Goiza borobiltzeko, Ahari lehiaketaren sariak banatuko dituzte 13:00etan.

Baztango alkateak eta udalak aukeratutako bi lagunek osatuko dute epaimahaia eta 12 sari emanen dituzte guztira, urte bat arteko eta urte batetik goitiko mutur gorri eta beltzei.



Maeztu kontseilaria eta eskualdeko ordezkari eta familiak. NAFARROAKO GOBERNUA

Gobernuak 416.000 euro inbertitu ditu Oronozko eguneko zentro berrian

TTIPI-TTAPA

2023an abiatu zuten Baztan-Bidasoko udalek Oronoz-Mugairiko Zunda etxean desgaitasuna duten pertsonendako eguneko zentro bat egiteko proiektua. Aurten bigarren faseko eraikuntza lanak hastea aurreikusi dute, eta proiektuak totalen 600.000 euro inguruko kostua izanen du. Horietatik Nafarroako Gobernuak 416.524 euro ordainduko ditu, eta gainerakoa eskualdeko udalerriek.

Carmen Maeztu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseila-

riak lanak bisitatu zituen martxoaren 24an, eskualdeko alkate, ordezkari eta familiekin batera. Eraikinak hiru solairu eta 553 metro karratu izanen ditu, desgaitasuna duten 15 lagunendako tokiarekin. 65 urtetik beheitiko pertsonen zuzendua egonen da eta Baztan-Bidasoko 21 udalerrietan emanen du zerbitzua: Urdaubi, Zugarramurdi, Baztan, Bertizarana, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Oiz, Urroz, Donamaria, Sunbilla, Beintza-Labaien, Saldias, Eratsun, Ezkurra, Etxalar, Arantza, Igantzi, Lesaka eta Bera.






Salgai dauden pisuak bilatzen ditugu
Pisuaren balorizazioa doan eta konpromisorik gabe

943 930 025 | Prudencia Arbide, 2 • 20304 IRUN | www.3hiruhome.com

OTEIZA

ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43

www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia



[oteizaarquitectos](https://www.oteizaarquitectos.com)



ANZABAL
INMOBILIARIA
ZURICH ASEGURUAK

www.anzabal.com

Santiago, 15 ELIZONDO
+34 948 580 804

Lanbide eskolako Gora Begira proiektua: «bidea»

Robotikako hainbat jarduera egin dituzte ikaskeek, «egiazko egoeratan aplikagarriak diren ezagutzak eskuratuz»

ELIZONDO LANBIDE ESKOLA

Ikasturte honetan **Gora Begira** izeneko proiektua garatu dugu Bulegoko Informatikako Oinarrizko Mailetan. Horretarako, Micro:bit ordenagailu programagarria eta Weather:bit txartelak erabiliz estazio meteorologiko automatizatu bat muntatu dugu.

Proiektuaren izenak **esanahi bikoitza** du: alde batetik, eguraldia aztertzeke eta ulertzeko **gora begiratu beharrari erreferentzia egiten dio** zeruan gertatzen denari arreta jarritz. Bertetik, Oinarrizko Mailen helburu nagusiarekin bat egiten du, **ikaslea berriz ikaskeekin konektatzea eta etorkizunera begira jartzea**, ikaskeekin segitzeko.

Proiektuan ikasleek modu praktiko eta motibatzailean lan egin dute, egiazko egoeretan aplikagarriak diren ezagutzak eskuratuz. Programazio lengoaiarekin familiarizatzen joateko robotikako hainbat jarduera egin ditugu. Micro:bit-ak lan ezberdinak egiteko programatu ditugu: dado bat izateko, tenperatura aztertzaile, auto telegidatua...

Tenperatura, hezetasuna, haizearen abiadura eta prezipitazioa bezalako parametroak neurtuz, datuen bilketa, interpretazioa eta azalpena landu dituzte, autonomia, talde lana eta konfiantza indartuz. Esperientziak erakutsi du ikaskuntza esanguratsua posible dela teknologia, natura eta eguneroko errealitatea uztartzen direnean.

Proiektua ez da ikasgelan bakarrik garatu. Ikaskuntza esperientzia aberasteko, hain-

bat irteera didaktiko egin dira, non ikasleek ikasitakoa testuinguru errealean ikusi eta ulertzeko aukera izan duten. Petritegiko edateko uren tratamendu estazioa ezagutu dute uraren garrantziaz ohartzeko eta Eureka! Zientzia Museoan Lego Robotics tailer bat egin dute, bertzeak bertze.

Datozen asteetan, proiektuari akabaila emateko, Amaiurko Eskolako urmaelera irteera egingen dugu. Bertan, Aranzadi Zientzia Elkarteak gidaturik inguruko fauna eta flora behatuko dira, eta eguraldiak ekosistemetan duen eragina aztertuko da.

Hezkuntza Departamentuaren Futura programak diruz lagundu du proiektua, irteerak, ekipamendua eta difusioa ordainduz.

Aldaketak Oinarrizko Mailan

Datorren ikasturtean, Oinarrizko Maila Bulegoko Informatika izatetik Zerbitzu Komertzialak izatera pasatuko da. Honekin, ikasleak DBH eskuratzeaz gain, eskualdean pisu handia duten komertzioetan lan egiteko prestatuko dira. Orain arte bezala, proiektuetan oinarrizko ikaskuntza eramanen da aitzinera.

Aurrematrikulazio epea

Apirilaren 20tik 30era aurrematrikulazio kanpaina irekita egonen da. Epe horretan, **Oinarrizko Mailetan izena emateko aukera** izanen da, ikaskuntza praktikoa, hurbila eta etorkizunera begirakoa eskaintzen duen hezkuntza proiektu baten parte izan nahi dutenendako.



Eureka! Zientzia Museora ateraldia egin dute ikasleek. UTZITAKOIA



Lego Robotics tailerlean parte hartu dute. UTZITAKOIA



Estazio meteorologiko automatizatua muntatu dute ikastetxean. UTZITAKOIA





'Estatu zapaltzaileen aitzinean, herri erresistentzia!' lelopean aurkeztu du Basaizeak jardunaldia. BASAIZEA

Nafarroaren Eguna Baigorriin apirilaren 26an

Azoka, desfilea, dantzak, bazkaria, kontzertuak, ikuskizunak... egitarau oparoa izanen du aurtengo Nafarroaren Eguna, apirilaren 26an Baigorriin. Gainera, Kulturaldiaren barnean apirilean antolatu dituzten ekitaldien berri eman du Basaizea elkarteak

TTIPI-TTAPA

1979an lehen Nafarroaren Eguna ospatu zenetik «gauza anitz aldatu direla» dio Basaizeak. «Euskal kultura bera ere etengabeko aldaketan ari da, baina herri erresistentzia ez da sekula hil eta bizirik dirau Nafarroaren Egun orotan. Bizirik iraunen du kontziente baldin bagara bi estatu zapaltzailearen artean bizi garela. Horren ondorio zuzena dira egunerokoan ukaiten ditugun mehatxu eta erasoak: euskaldunon kontrako oldarraldi judiziala martxan da, epaitegietan euskaraz mintzatzeko eskubidea ukatua zaigu eta euskal kultura sustatzeko geroz eta ahal gutiago ditugu».

Horrez gain, «eskuin muturrak dakartzan ideiak eta jarrerak geroz eta konplexu gutiagorekin adieraziak dira espazio publikoan. Geroz eta eraso zuzen gehiago gertatzen ari dira: pertsona guzien onarpena aldarrikatzen duen LGTB-KIA+ bandera urratzetik Baigorriko plazan, berrikiago Hazparneko ihauterien kariatara eskuin muturrak eraman

duen polemika piztu eta elikatzeraino».

Horren aitzinean, «euskara eta euskal kultura bizi araztea etengabeko lana da. Defenditzen ditugun baloreak erresistentzia baten parte dira, eta Nafarroaren Eguna horiek sustatzen dituen heinean, datorren garai ilunari erantzun bat emateko eta haren kontra borrokatzeko deia zabaltzen dugu».

Azkenik, «demokraziaren aitzakiapean gerla inperialistak martxan eman dira eta horren harira munduko bertze herri zapalduak elkartasuna adierazi nahi diegu. Bertzeak bertze, Palestinak bizitzen duen kolonizazioa eta zapalkuntza salatu nahi ditugu. Estatu zapaltzaileen aitzinean, munduko herri minorizatuak elkarrekin aritzeko guneak sor ditzagun».

Egitaraua

09:00etan hasiko dute eguna ikastolaren askari alaituarekin, eta eliza inguruan merkatua egingen dute txalapartarekin batera. 11:00etan desfilea abia-

tuko da Behereko plazatik eta bertan parte hartuko dute Irisarriko Dantza Taldeak, Arizkongo ezpata dantzariak, Agoizko Dantza Taldeak, makilariak, basandere eta basaldunek, Nafarroako eta Baigorriko ziganteak eta Kilimonek. 11:30ean ekitaldia egingen dute elizako plazan, 12:00etan Bas'hitza eta 13:00etan larrain dantza eta jauziak.

Haurren eta familien xokoan puzgarriak eta aurpegi tinkaketa izanen dira 14:00etatik 19:00etara. 15:00etan, berri, bertso saio musikatu egingen dute Maddi Ane Txoperena, Onintza Enbeita eta Sarai Roblesekin, Ainhoa Elizondok musikatu eta Amaia Castorene eta Xalbat Alzugararekin gaiak ematen. 17:30ean Oreka zirkuak emanaldia egingen du.

Behereko plazan musika izanen da nagusi egun osoz: 12:00etan Xibalet txaranga eta 14:00etan Jarauta txaranga. Gainera, 14:00etan bazkaria egingen dute Kuxkuxtu txaranga girotua (txartelak eta menua hemen). Bestak segida izanen du arratsaldean:

16:00etan Arrano Banden txanda izanen da, 17:00etan dantza ikusgarria, 17:30ean Kiko Bordatxo, 18:00etan Elektrotxorongo, 19:45ean Goxua'n salsa, 22:00etan Puntu Takoma eta 23:30ean Estelle D.

Kulturaldia

Nafarroaren Egunerako motorrak beratzeko, aurtengo apirilean ere Kulturaldia antolatu du elkarteak. «Baigorriko eskualdean orotariko euskarazko ekitaldiak eskaintzea» dute helburu. Hilaren 4an izan zen lehenbiziko ekitaldia, eta hauek izanen dira hurrengoak:

Apirilaren 10ean *Ttunttuneroen gizartea* liburuaren aurkezpen musikatu egingen dute Xabier Itzainak eta Xabi Etxeberrik. Urdozoko kaperan 19:30ean izanen da, sartzea urririk, eta ondotik pintxoak eta tragoak ere izanen dira.

Apirilaren 12an *Nor naizen banaki* antzezlan ikusteko aukera izanen da, Axut! eta Artedramaren eskutik, Baigorriko Plaza Xokon 18:00etan. Sarrerak eskuragarri basaizea.com webgunean eta Oronozenian, 10 eurotan (zortzi Basaizeko kideendako). Ondotik taloak eta tragoak izanen dira.


Apirilaren 17an *Kneecap* film irlandarra proiektatuko dute, jatorrizko bertsioan eta euskarazko azpigituluekin. Bil Etxean 19:30ean izanen da emanaldia, sartzea urririk.

Apirilaren 18an Altxalili kolektiboaren kabaret ikuskizuna izanen dute Aldudeko Alfaroenian 21:00etan. Alf'harro kuir gaualdiaren parte izanen da emanaldia, sarrerak helloasso.com webgunean.

Apirilaren 25ean Batuz koruaren eta Emakumenderen musikaldia izanen dute Baigorriko elizan 20:00etan. Txartelak eskuragarri Basaizearen webgunean 10 eurotan, urririk 15 urtetik beheitikoendako.

Apirilaren 30ean Xak musikariak kontzertua emanen du Aldudeko Alfaroenian 20:00etan. Sartzea urririk.

ZUGARRAMURDI



Nafarroako pilota txapelketako lehen partida frontoi berrian jokatu dute.

Frontoi berria inauguratzeko txapelketako partida

Goiuri Zabaletak eta Arrillagak 22-8 irabazi zieten Ibarrolari eta Nahia Bertizi Nafarroako txapelketako lehen partidari

MARIFA ETA KORO

Frontoi berriaren besta egin zuten martxoaren 28an. Eguraldiak ez zuen lagundu, baina frontoiaren itxura berria eta dotorea ikusi ahal izan zuten herritarrek. Bertze partiden artean, Emakume Master Cup zirkuituko Nafarroako emakumeen txapelketa irekiari eman zitzaion hasiera. Partida polita eta ikusgarria izan zen, elite mailakoa eta Goiuri Zabaleta leitzarrak eta Mirian Arrillagak osatutako bikoteak 22-8 irabazi zion Aizane Ibarrolari eta Nahia Bertiz sunbildarri, lehen kanpo-



Haurren arteko partida.

raketa gaintuz. Gaztetxoak ere aritu ziren aitzinetik. Nola ez, bazkarian 60 bat lagun elkartu ziren eta bazkalondoa, pilota gehiago: joko garbi txisteraz eta esku pilota.

Teletxeko Julia Barberenak Orozkon egindako euska bixkotxen azkena

Teletxeko Julia Barberenak aspaldi utzi zuen herria, eta Orozkon egin zuen bere bizia. Han ospea hartu zuen Presatxu baserriko labean egiten zituen ogiak eta euskal bixkotxak (*gâteau basque*). Orduan Iparraldean baizik egiten ez zen bixkotxa hura, Julia eta

Pablo senarrak Bizkaian saltzen hasi ziren 1970ko hamarkadan. Julia 2021 urtean hil zen, baina Mirentxu alabak martxora arte irekirik izan du gurasoek martxan emandako lanbidea. Harro gaude, Bizkaiko historia ttikian, Zugarramurdiko emazteki batek parte hartu zuelako.



Herritarrek Korrikaren lekukoa hartzeko esperoan plazan. MARIFA ETA KORO

Eguraldi bikaina lagun, hainbat eta hainbat herritar atera dira Korrikan

MARIFA ETA KORO

Eguraldi ederrarekin ospatu zen Korrika kulturala Madaria auzoko harrien artean, eta berdin, eguraldi ederra eta giro ezin hobean joan zen Korrika lasterketa.

Aste tarteko eguna izanik, eta eguerdi partean, zaila ematen zuen jende aunitz elkartzea,

baina hori sorpresa, tenore hortan plazan igande eguerdi batean baino jende gehiago baitzen! Urdazubiarren eskutik hartu zuten lekukoa Zugarramurdiko Udalak (1.395 km) eta Zugarramurdiko herriak (1.396 km), gero, Arkazelai inguruan, SOS Nafarroako langileek hartzeko.

Ipuin irakurketa musikatua museoan apirilaren 17an

Eider Rodriguez idazlearekin eta Anari musikari eta abeslariarekin ipuin irakurketa musikatua antolatu dute Zugarramurdiko feministek, Herriko Etxearen laguntzarekin, apirilaren 17an, ortziralean 20:00etan, Zugarramurdiko Sorginen Museoan.

Suteen inguruko formazio saioa apirilaren 18an

Herrian suteraren bat gertatuz gero zer egin jakiteko, formazio tiki bat antolatu dute apirilaren 18rako (larunbata), 09:00etatik 11:00etara. Arras praktikoa izanen da: mangerak zer tokitan dauden eta nola lotzen diren ikasi, nola erabiltzen diren... Animatu!



Julia Barberena zugarramurdiarra eta Pablo senarra, Presatxuko labean.



Gazteak Korrikaren lekukoa hartzeko irrikitan. UTZITAKOIA



Korrikaren lekukoa goiti, harrotasunez, lehen aldiz herrigunetik. UTZITAKOIA

Lehen aldiz herriko plazatik pasatu da Korrika jendetsua

Ugarana eta Gauñara elkarteek, guraso elkarteak, herriko etxeak eta gazteek harrotasunez eraman zuten lekukoa

ARANTXA ETXEBERRIA

Martxoaren 24an pasa zen Korrikaren 24. edizioa eskualdetik. Aurten, urdazubiarrentzat berezia izan da historian lehen aldiz herriko plazatik pasa baita. Bertze urte batzuetan Dantxarinean ibili izan da, baita Telleritik Otsondorako bidea hartu ere. Aurten, aldiz, Telleriko bide ttipia hartu eta Urdazubiko plaza zeharkatuz Zugarramurdiko bidea hartu zuen. Bidean herriko hainbat ekintzailek eta pertsonak hartu zuten mezua eramaten zuen lekukoa: Ugarana eta Gauñara elkarteek, guraso elkarteak,

herriak eta herriko gazteek. Haur zein helduk korrikaren magia gozatzeko aukera izan zuen herrian eta edizio berezi hau urdazubiarren bihotzean geratuko da luzaz.

Espero dezagun Korrika Urdazubiko plazatik pasatzea berriz ere eta, aurten bezala, herritarrek parte hartzea!

EDIZIO BEREZI HAU URDAZUBIARRREN BIHOTZEAN GELDITUKO DA



Batzuk bizikletaz ere egin zuten Korrika. UTZITAKOIA



Herritar andanak bat egin zuen Korrikarekin. UTZITAKOIA

2026ko Hatsaren Poesia liburua hilaren 12an aurkeztuko dute Senperen

TTIPI-TTAPA SENPERE

2026ko Hatsaren Poesia liburua apirilaren 12an aurkeztuko dute Senpereko Ur-Hegia etxean. Igandean 11:00etan elkarretaratzea, 11:30ean aurkezpena, 12:00etan aperitifa. Ondotik, norberak eramandako bazkariarekin elkarrekin

bazkalduko dute eta gero, parte hartzaile bakoitzak bere poema irakurriko du. Bukatzeko, Joxe Mari Zendoia, Ines Goikoetxea eta Edu Zabala egileen poema liburuaren aurkezpena eta kantaldia, Jokin Lasa eta Gorka Zabaletarekin.



789 korrikalarik bukatu dute Sarako Trail lasterketa

Ibilbide luzean hirugarren Aimar Otxoteko lesakarra eta SPUCeko Auriane Delous eta laburrean garaile Amaia Jorajuria doneztebarra

GANEX

Sarako Trail lasterketa egin zuten martxoaren 29an, Sara Korrika elkarteak antolatua. Denera 789 korrikalarik bukatu zuten lasterketa, eguraldi euritsuarekin, horietatik 543k ibilbide luzea (22 kilometro, 1.600 metroko desnibel positiboarekin) egin zuten eta 246k laburra (11 kilometro luze, 600 metroko desnibel positiboarekin).

Ibilbide luzean irabazle izan zen Aviron Bayonnais taldeko Etienne Grellier (1.57.59), bigarren Aseplan taldeko Josu Urrestarazu idiazabaldarra (1.59.43) eta hirugarren Beti Gazte taldeko Aimar Otxoteko lesakarra (2.01.35). Lehen emaztea Aurelia Guiroy izan zen (3.04.43), bigarren Laurence Nogue (3.05.25) eta hirugarren SPUC taldeko Auriane Delous (3.09.10).

Eskualdeko korrikalarien artean, aipatzekoa da Mantaleko Jokin Arretxea narbar-tearra laugarren izan zela (2.03.28) eta bosgarren Osin Trail taldeko Hodei Lujanbio goizuetarra (2.03.54).



Errekako Amaia Jorajuria.

Ibilbide laburrean, Damien San Martin izan zen bizkorrena (52.33), bigarren AS Ascain Elgarrekin taldeko Thibaut Bertrand (55.49) eta hirugarren Aviron Bayonnais taldeko Titouan François (56.00).

Lehen emaztea, Errekako Amaia Jorajuria Mendiburu doneztebarra izan zen (1.10.34), bigarren Lena Urranga (1.11.41) eta hirugarren Lea Iralde (1.12.45).

Olaia Inziarte eta Irlandako Ye Vagabonds hilaren 18an Santa Katalinan

Usopop elkartearen eskutik, Irlandako Ye Vagabonds anaien folk doinuak aditzeko aukera izanen da apirilaren 18an Sarako Santa Katalina kaperan. Aitzinetik, Olaia Inziartek ere kontzertua emanen du. Sarre-rak salgai: my.weezevent.com. Egitarauari dagokionez,

17:00etan ate idekitzea. 17:30ean Gartxot (parkean urririk). 18:10ean Sorcha Richardson (parkean urririk). 19:00etan Olaia Inziarte (elizan). 20:00etan txaranga (parkean). 20:30ean Ye Vagabonds (elizan). 21:30ean txaranga (parkean).



GANEX

San Josepe eskolako beste ederra...

San Josepe eskolako beste egin zuten martxoaren 21ean eskolako haurren burasoek eta irakasleek antolatutako. 110 bat haurrek parte hartu dute kiroldegian egindako ekitaldian, eta ikusgarri ederrak egin zituzten. Bortz irakasle badira eskolan, Aurelie Calatayud zuzendari dutela eta hiru haur zaintzaile.



GANEX

...baita Olhain ikastolakoena ere

Olhain ikastolako haurren burasoek eta irakasleek antolatutako beste egin zuten martxoaren 27an, ortzirale ilunabarrean egindako bestan. Sei irakasle eta lau haur zaintzaile badituzte, eta bazen jende anitz etorria haur horien sustengatzera.

Beti Gazte elkarteak biltzar nagusia larunbat honetan

Beti Gazte adinekoen elkarteak bere biltzar nagusia egingen du apirilaren 11n, larunbat eguerdian, Lur Berri gelan. Urteko kontuak argitu ondotik, Mariane eta Tristan Sagek pres-tatutako bazkaria izanen dute, menu goxoarekin. Tote musikariak alaituko du eguna.

Larrungo eta Kanboko parropien beila egunotan

Larrungo Santa izpirituko parropiak eta Kanboko San Migel Garikoits apirilaren 8tik 16ra arte Armeiko beila antolatuko dute. Jende anitz prest da beila horretarat erretorearekin joateko. Sarako Zahar Etxeko meza apirilaren 9an izanen da, ortzegunean, 15:30ean.

Ustekaberik gabe, Christophe Jauregi izendatu dute auzapez

Hats Berri taldeko 23 hautetsiek bere alde bozkatu zuten azkeneko herriko kontseiluan, bertze seirek, aldiz, xuri

JL BESSONART

Ez da sorpresarik izan azkeneko herriko kontseiluan, hor bozkatu beharra zegoen auzapez berria. Hats Berriko 23 hautetsiek bozkatu dute Christophe Jauregiren alde, bertze seiek aldiz xuri. Beraz, Jauregi da auzapez berria. Jarraian 8 axuantak ere bozkatuak izan dira, emaitza berarekin. Hiru zerrendetako hautetsiek harte dute hitza, Christophe Jauregik, Mariana Laugierek eta Hervé Maurouk, Bernard Elhorgaren ordez.

Amotzeko trinketean kantaldia apirilaren 10ean

Apirilaren 10ean, ortziralean 19:30ean, Kalakan bikotea eta Berçaitz anaiek osatzen duten Ahotsez taldea, baita Ahizpak kantariak ere, gaitzeko kontzertua eskainiko dute Amotzeko trinketearen barnean. Honen ondotik, afari bat ere proposatua da erreserba egina dutenei.

Kultur Topaketan garaia
Laugarren aldikotz, Kultur Topaketakantolatatu ditu herriak apirilaren 11tik 25era. Eskaintza artistiko anitza proposatua da denboraldi horretan. Egitarau osoa www.saintpeesur-nivelle.fr webgunean.

Bertze aldetik, apirilaren 22an, asteazkenean 19:00etan, *Le roman de Guernica* antzerkia eskainiko dute Larrekon. Paul Haimen idazlanaren egokitzapen libreba da, irakurraldi antzeztu bat dela medio. Ikuskizun honek Gernikako familia baten bizi tragikoa lotzen du Picassoren margolan nagusiko pertsoneri, animaliei eta objektuei.

hango giro atsegingarria, haurrak kantuz, helduak lorietan, euskarak merezi duen arnas hartze beharrezkoa. Aitzineko ortziralean, eskoletako haurrek Korrika Tiki ongi ospatu zuten. Besta egun hauetaz haratago, gauzatu dezagun euskararen erabiltzea, gure eguneroko urratsetan.



JL BESSONART

Lotoa Inharrian eta kantaldia

Martxoaren 21ean bi ekimen polit eskainiak ziren tenorebertsuetan. Inharriako Lotoan, mahai guziak bete dira, Zaldubi Ikastolako antolatzaileak pozik agertu dira giro eta emaitza onengatik. Elizako gerizan, San Josepe eta Arretxea eskoletako burasoen muntaturiko kantaldia izan zuten.



Korrika Ttikiko zenbait aktore. JL BESSONART

Korrika eta Korrika Ttikiren uhainak zeharkatu ditu herriko karririkak

JL BESSONART

Saratik etorririk, olatu baten parekoa izan da Korrikaren pasaldia, itzuli bat egin ondoan Senpere herrian gaintzi Zuraidoko bidea hartu aitzin. Hainbertzeraino jende bildu da, non uhaina bere gorenean izan den karrirak nagusia zeharkatzean. Ikustekoa baitzen

hango giro atsegingarria, haurrak kantuz, helduak lorietan, euskarak merezi duen arnas hartze beharrezkoa. Aitzineko ortziralean, eskoletako haurrek Korrika Tiki ongi ospatu zuten. Besta egun hauetaz haratago, gauzatu dezagun euskararen erabiltzea, gure eguneroko urratsetan.



Poesiaren arratsa Mediatekan. JL BESSONART

Zonbait hilabeteren buruan, poesia emanaldi berezia izan dute Mediatekan

25 pertsona inguru bildu ditu ekitaldiak, publiko aski nahasia zegoen, guraso batzuk haurrekin, zonbait adineko kide baita kultura zerbitzuburua ere. Bazen zonbait hilabete Mediatekak ez zuela deus antolatzen ahal izan, finantza egoerarengatik, espero dute animazio horiek segitzen ahal-

ko dutela. Egitaraua buru-buru eramana izan da, krakada partekatu batek amaitu du ekintza partehartzaileen pozarekin.

Olerki kontuekin segituz, Hatsaren Poesia liburua aurkeztuko dute apirilaren 12an Ur Hegian etxean, egitarau zabalarekin. (info+ 63. orrian).



Lehen mailako eta promozioiko finalistak, sari banaketaren ondotik. ADOS PILOTA

Oskoz-Arrastia eta Arruti-Alberro Adosen txapeldun

Nagusitasunez irabazi zieten Azepeitian Iturriaga-Orbegozori lehen mailan eta Sagardui-Etxeberriari promozio mailan

TTIPI-TTAPA

Ados Pilota elkartearen txapelketako finalak martxoaren 27an, jokatu zituzten Azepeitiko Izarraitz pilotalekuan, 600 ikusleren aitzinean. Finaleko sarreretatik lortutako diruaren zati bat Korrikara bideratuko du Ados Pilotak.

Maila nagusiko finalean, Oskozek eta Arrastiak 22-13 irabazi zieten Iturriaga leitza-rrari eta Orbegozori. Hasiera orekatua izan zen, alde handirik gabe, baina bigarren zatian urdinek neurketa haustea lortu zuten. Gorriak ez ziren gai izan txapelketan

erakutsi duten maila bera emateko, eta urdinek, merezimendu osoz, txapela jantzi zuten.

Promozio mailan, beriz, Arrutik eta Dunixe Alberro iturendarrak 22-12 irabazi zieten Alize Sagardui goizuetarrari eta Etxeberriari. Hasieran, astebete maila nagusiko Emakume Master Cup txapelketa irabazia zuen Sagarduiaren abiadura nagusitu bazen ere, Arrutik eta Dunixe Alberrok ongi eutsi zioten finalari eta bigarren zatian ederki jokatuz beste garaipen eder batekin borobildu zuten txapelketa.



UTZITAKOIA

Garaipena Martixperen debutean

Martxoaren 28a egun seinalatua izanen da Imanol de Rueda Goñi *Martixpe* erremontistarentzat. Donezteben 1997an sortutako aurrelariak (argazkian arreba eta amarekin), Oriamendirekin debuta egin zuen profesionaletan eta garaipen garbiarekin gainera.



CB BIDASOA-IRUN

Niko Mindegia Bidasoa-Irunera dator

Niko Mindegia doneztebarrak Bidasoa-Irun eskubaloi taldean jokatuko du 2026-2027 denboraldian. Mindegia (argazkian, Txomin aitarekin) ibilbide sendoa egin du Europako eskubaloian, bertzeak bertze Orlen Wisla Plock, Pick Szeged eta Toulouse bezalako taldeetan arituta.

BKT-Erreka derbian nagusi Baztangoak

Baztango BKT eta Errekako emakumeen arteko eskubaloi derbia jokatu zuten martxoaren 28an Elizondon eta etxeoak nagusitu ziren. Hiru partidaren faltan 2. dira Errekakoak eta 4. BKTkoak.



JOSU INZIARTE



Sunbilla, Igantzi (argazkian) eta Iruritako probek osatuko dute txapelketa. OSKAR T.

Baztan-Bidasoko lehen mendi duatloi txapelketa abian

Sunbillan apirilaren 11n, Igantzin apirilaren 25ean eta Iruritan maiatzaren 1ean jokatu diren probekin eginen da sailkapena

TTIPI-TTAPA

Aurten, lehendabiziko aldiz Baztan-Bidasoko Mendi Duatloi Txapelketa antolatu dute. Apirilaren 11n Sunbillan, apirilaren 25ean Igantzin eta maiatzaren 1ean Iruritan jokatu dituzten probak dira txapelketaren parte. Txapelketan parte hartzeko guttienez

hiru probetatik bitan parte hartu beharko da, eta bikoteka parte hartzen dutenen kasuan, bikoteak mantendu beharko dira proba guztietan.

Sunbillakoa larunbatean

Sunbillako III. mendi Duatloia eginen dute apirilaren 11n, 16:00etan hasita, Ulibeltzak

elkarteak antolatuta. Kirolariek 6,5 kilometro lasterka (300 metroko desnibela) eta 16 km mendi bizikletan (800 metroko desnibela) egin beharko dituzte.

Igantzikoa apirilaren 25ean

Apirilaren 25ean eginen den Igantziko Mendi Duatloian zazpigarren edizioan parte hartu nahi dutenek, berriz, rockthesport.com webgunean sartuta egin beharko dute izen ematea. Apirilaren 20ra arte egiten ahalko da. 5,2 kilometro lasterka, 20 km bizikletan eta 2,6 km lasterka egin beharko dituzte.

Iruritakoa maiatzaren 1ean

Iaz atsedendia egin ondotik, Iruritako gazteek bertze behin antolatu dute mendi duatloia (borzgarren edizioa aurten). Maiatzaren 1ean eginen dute proba eta izena ematea dagoeneko irekia dute kirolprobak.com webgunean, apirilaren 26ra arte. Banaka edo binaka egiten ahalko da lasterketa eta guztira 24,8 kilometro izanen ditu ibilbideak, horietatik 8,8 lasterka egiteko eta 16 bizikletan. Bakarka 25 euro ordaindu beharko dira eta erreleboka, berriz, 35 euro.

Uterga eta Mitxeo ortzirale honetako Labriteko finalean izanen dira

TTIPI-TTAPA

Iruñeko Alde Zaharreko XII. erremonte profesionaleko txapelketako final laurdene-tako seigarren jardunaldi erabakigarria jokatu zuten martxoaren 28an Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Donezteben jokatu den azken jardunaldia izan zen eta Xanti Uterga eta David Mitxeo doneztebarrek apirilaren 10ean Labriten jokatu den finale-rako zuzeneko sailkapena lortu zuten, Zeberio II.a eta Barricarti 35-31 irabazi ondotik. Hauentzako ez zen porrot mingarria izan, hogeita hamar kagarren tanto horrekin lortu baitzuten apirilaren 3an jokatzekoa zen finalerdirako sailkatzea. Matxin III.a eta Ion izanen dituzte arerio.

Promozio mailan, berriz, Koteto Ezkurra III.a doneztebarra eta Markel Leatxe donamariarra finalean dira. Arerioa, Osés eta Arrizabalaga edo Jon Sagaseta iruritarra eta Baztan izanen dira.



ONDIKOL

Antxitonea trinketeko 76. txapelketa

Elizondon Antxitoneko 76. paleta goma txapelketako finalak jokatu zituzten martxoaren 28an. Lehen mailan, Josu Gamiok eta Mikel Igoak 40-24 irabazi zieten Josetxo Huarteri eta Xabier Bengoetxeari. Bigarren mailan, Jon Osakar-Dario Trantxek 40-38 irabazi zieten Aingeru Olabe-Asier Maiari.



UTZITAKOIA

Beñat Apezetxeak ametsetako debuta

Beñat Apezetxea pilotari goizuetarrak ASPerekin debutatu eta profesionalean lehen partida jokatu zuen martxoaren 19an Tolosako Beotibarren. Ametsetako partida horretan, Beñat Rezusta izan zuen bizkartzain Apezetxea II.ak eta 22-11 irabazi zieten Peio Etxeberriari eta Bikuñari.

DANTZA

LESAKA

Led Silhoutte konpainiaren 'Ultimatum' ikuskizuna

Ernatu Udaberriko Dantza Zikloaren barrenean.

Harriondoan, apirilaren 12an, 19:00etan.

Helduen emanaldia

Ernatu Udaberriko Dantza Zikloaren barrenean.

Plaza zaharrea, apirilaren 18an, 18:00etan.

ELIZONDO

Dantzagarriak

Elizondoko plazan, apirilaren 12an, 12:30ean.

IKUSKIZUNAK

ELIZONDO

'Bidasotik harago' ikuskizuna

Xabi Solanorekin eta Jon Garmendiarekin.

Arizkunenean, apirilaren 12an, 18:00etan.

LEITZA

'Galduen zergatia' ikuskizuna

Herri aretoan, apirilaren 12an, 19:00etan.

LITERATURA

LEITZA

Irakurle taldearen bilera

Karmele Jaioren 'Maitasun kapitala' liburuari buruz ariko dira.

Liburutegian, apirilaren 15ean, 18:30ean.

ZUGARRAMURDI

Ipuin irakurketa musikatua

Eider Rodriguez idazlearekin eta Anari musikariarekin.

Museoan, apirilaren 17an, 20:00etan.



A. LARRETXEA

BERA Mendi Maratoi Erdiaren XX. edizioa

Manttale Mendi Lasterketa taldeak antolatuta Berako Mendi Maratoi Erdiaren XX. edizioa eta Gazte Trail proba jokatu dituzte.

Beran, apirilaren 19an, 09:30ean.

ARANTZA

'Puntubobo' liburuari buruz solasaldia

Itxaso Martin idazlearekin Literatura Geraldia.

Liburutegian, apirilaren 22an, 18:00etan.

LESAKA

'Beste zerbait' liburuari buruz solasaldia

Danele Sarriurgarte idazlearekin Literatura Geraldia.

Liburutegian, apirilaren 22an, 18:00etan.

GOIZUETA

'Bisita' liburuari buruz solasaldia

Mikel Pagadizabal idazlearekin Literatura Geraldia.

Tifanitxon, apirilaren 22an, 18:00etan.

BERA

'Zaldi bat' liburuari buruz solasaldia

Maddi Ane Txoperena idazlearekin Literatura Geraldia.

Liburutegian, apirilaren 23an, 18:00etan.

ELIZONDO

Ainara Unanuekin ipuin kontaketa

Arizkunenean, apirilaren 23an, 17:00etan.

MUSIKA

LEITZA

Lukiek eta Sodade taldeen kontzertua

Torrean, apirilaren 11n, 22:30ean.

Txistu kontzertua Xaguak txistulari taldearekin

Herri aretoan, apirilaren 24an, 18:30ean.

BERA

Minbiziaren ikerketarako ongintza kontzertua

Kultur Etxean, apirilaren 12an, 18:30ean.

IRURITA

Bizphiru Pelau taldearen azken kontzertua

20:00etan fanfarrea, 22:30ean Ttikukarrakak batudada,

23:00etan Bizphiru Pelau eta 01:30ean Potota Frexko eta Flazido Fonki DJak.

Gizarte Bilgunean, apirilaren 18an, 20:00etan hasita.

LEKAROZ

Aroztegiko auzipetuen aldeko musika jaialdia.

Lekarozen, apirilaren 19an, 17:00etan hasita.

GARTZAIN

Baztan kantuz

Plazan, apirilaren 19an, 12:00etan.

JARDUNALDIA

BAZTAN

'Beso hutsak, bular beteak' proiektuaren aurkezpena

Elizondoko Arizkunenean, apirilaren 14ean, 17:00etan.

'Motosierra eta desbrozadora emakumeendako' lantegia

Apirilaren 17an, eta 18an. 17an 17:00etatik 19:00etara eta 18an 10:00etatik 13:00etara.

LEITZA

Herri krosa

Apirilaren 18an, 16:30ean.

Enduro Txiki Pest proba

Petriketa eta Baztala inguruan, apirilaren 19an, 10:30ean.

Soinu eta argi teknikari ikastaroa

Atekabeltzen, apirilaren 21ean, 18:00etan.

Atekabeltzeko ate irekien jardunaldia

Atekabeltzen, apirilaren 23an, 18:00etan.

BERA

Berako Mendi Maratoi Erdia

Kanttonberri karrikan hasita, apirilaren 19an, 09:30ean.

NIRE AUKERA

«Lagunekin jotzean emozio aunitz pizten dira eszenatoki gainean»

JOANES ALTXU URTASUN BIZPHIRU PELAU TALDEKO KIDEA



Zazpi urteren ondotik, bere ibilbidea akituko du aurten Bizpiru Pelau erromeria talde baztandarrak. Azken kontzertua emateko, besta egun berezia antolatu dute apirilaren 18an Iruritan. Joanes Altxu taldekideak azaldu duenez, «denbora honetan gurekin egon diren guziengandik agurtzeko eguna izanen da».

Hastapenak

Nahia eta Julene Baylonek eta Miren, Txomin eta Joanes Altxuk osatzen dute Bizpiru Pelau: «senide, lagun eta lan-kideak gara, dena batera. Odolaz gain, musikarekiko gustuak lotzen gaitu, musikaz eta musikariz inguratuak hazi baikara».

2019aren bueltan hasi ziren taldea sortu nahian, «zerbait sortzeko gogoarekin ginen eta elkarrekin aukera bage-

nuela ikusten genuen. Etxean ere aunitz animatu gintuzten. Ez genuen aunitzik gehiago behar izan jotzera elkartzen hasteko eta kantuak prestatzen eta entseatzen hasi ginen poliki-poliki».

2020aren hasmentan, berriz, lehenbiziko kontzertua eman zuten Elizondoko Casino ostatuan. «Oroitzen naiz haiekin solastatu ginela han jotzeko eta arras urduri geundela. Kontzertua desastre hutsa izan zen, soinu ekipo eskasa paratu genuen eta arras gaizki aditzen zen. Hala ere, jende aunitz hurbildu zen eta harrera goxoa eman ziguten, Casino betea zegoen! Oroitzapen polita gordetzen dut».

Plazaz plaza

Pandemiak markatu zuen taldearen hasmentako ibilbidea, baina 2021etik aitzinerat

hasi ziren kontzertuak ematen herriz herri, «hasmentan herri guti batzuetan, baina poliki-poliki toki gehiagotatik deitzen hasi ziren. Jendeak segituan izan zuen konfiantza gudan eta eskertzekoa da».

Taldekideak ere «denborarekin lanaren gorabeherak ikasiz eta neurria hartuz joan gara. Hasmentan sei ordu arte jotzen genuen eta batzuetan ez genuen deskantsurik ere egiten, leher eginda akitzen genuen. Azken urteetan jada gehienez lau ordu jotzen genituen».

Hala ere, «jotzea eta kantatzea gustatzen zaigunendako oholta pauso bat harago da, eta lagunekin partekatzen ahal bada, hobe. Elkarrekin ez da hain beldurgarria. Gogo berdina dutenekin taldean elkartu eta jendearen aitzinean jotzera ausartzea polita da. Emozio aunitz pizten dira eszenatoki gainean».

Plaza ugari ezagutu dituzte, «eta badira aunitz harrera arras ona egin digutenak. Jendearen dantzatzeko gogoia da gehien eskertzen duguna eszenatoki gainetik». Izan ere, «jendea gustura eta dantzan badago sumatzen da eta gu ere kutsatzen gaitu, gozame-na da. Leku aunitzetan pasatu zaigu hori: Elizondon, Beteilun, Txokoton, Ezkarozen, Barañainen, Zigan... etxetik hurbil ere jo izan dugu maiz gusturen».

Agertokiaren gibelean

Eszenatokira ateratzeak pres-taketa eskatzen du, baina Altxuk aitortu duenez, «kanta berriak sartzeko bakarrik egiten genituen entseguak. Denboraldia hasita, kanta guziak behin eta berriz jotzen genituzten, halaberharrez martxa hartzen joaten ginen. Taldearekin hasi ginenean bai entseatzen genuela gehiago, kanta guziak zerotik ikasi behar genituelako».

Kantak hautatzeko, hain zuzen, «inguruko bertze erro-meriei erreparatu izan diegu. Saiatzen ginen ikusten nola funtzionatzen zuten, ze kanta aukeraketa egiten zituzten eta nola jotzen zuten... ez gara urrun joan behar izan. Erre-pertorio nahiko klasikoa izan dugu: rantxerak, euskal kanta ezagunak, ska pixka bat... ez dugu moldaketa lan handirik egin». Hala ere, «bertze estiloko kantaren bat jotzean ez zaigu aunitz kostatu gure eremurat eramatea. Dibertigarria da horren soinu desberdina duen zerbait zuk egiten duzunerat ekartzea».

Azken agurra

Gibelera begiraturaz, «talde gisa momentu on aunitz pasatu ditugu, eta ez zertan eszenatoki gainean: auto bidaiak, muntaketa lanak, abiatu baino lehenagoko kafeak, jo aitzineko afariak, dantzaldi erdiko deskantsuak... horiek dira burura etortzen zaizkidan momentu hoberekin».

Baina denak du bere akabaila, eta abenduan iragarri zuten taldeak azken urtea zuela. «Bazen denbora jada aldaketa baten beharrean ginela, bertze gauza batzuen bila gabiltza eta horri lekua egin behar zitzaion. Erabakia ez da erraza izan baina badakigu hoberako dela, eta kontent gaude egindako bidearekin».

Apirilaren 18an azken besta eginen dute (egitaraua 58. orrialdean): «ez dugu gauza handirik espero; lagunak, inguruko jendea eta besta egun polit bat, bertzerik ez. Gonbidapena luzatzen diogu nahi duenari ilunabar horretan Gizarte Bilgunerat hurbiltzera».

Etorkizunera begira, «jotzea aunitz maite dut eta seguru nago ez dudala denbora aunitz beharko musikaren inguruko bertze saltsaren batean sartzeko. Datorrena datorrela, gogoz hartuko dut».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Erdigunean duplexa salgai. 153 m²-koa, garajea aukeran. ☎667 24 72 03.

ETXE KONPARTITUA

ITUREN. Etxebizitza konpartitzeko norbaiten bila. ☎688 81 37 44.

LOKALAK/GARAJEAK

SALGAI

LESKA. Harategia salgai, jubila-zioagatik. Herrian dagoen harategi bakarra. Salmenta onak. ☎636 52 34 55.

LANA

ESKARIAK

Adinekoak zaintzen aritzeko prest. ☎603 97 00 35.

BERA. Emakumea lan bila. Garbiketa lanak egiten, sukaldean laguntzaile, komertzioetan, fabrika produktzio ez kualifikatuen... ariko litzateke. ☎642 44 79 62.

Adinekoak edo haurrak zaintzen, erakuntzan, elektrizitatean, base-rian... aritzeko prest. ☎672 86 39 52 (Alexander).

Sortzez nikaraguarra den neska Nafarroako herrietan adinekoak zaintzen interna ariko litzateke. Lanerako gogoz, umila eta goxoa. ☎641 90 93 85 (Maria).

BERAN EDO INGURUAN administrari lanean aritzeko prest. ☎640 95 30 02.

Malerrekako mutil gazte bat motozerrarekin eta desbrozadorearekin lanak egiten ariko litzateke. ☎682 30 10 95.

17 urteko gaztea uda honetan haurren zaintzaile ariko litzateke Bortzrietan, batez ere Lesakan. Pertsona arduratsua. Interesatuak jarri harremanetan. ☎640 30 07 13.

Baztango neska gazte eta euskalduna umeak zaintzeko lan bila dabil. Uztailean eta abuztuan. Ekainean ere bai, aste bat izan ezik. ☎630 04 54 13.

ESKAINTZAK

Irungo elkarte bat udalekuetarako zuzendari bila dabil. Zuhatzako irlan izanen dira udalekuak, abuztuaren 12tik aurrera. Xehetasun gehiago nahi izatera, deitu edo idatzi. ☎688 69 05 45 / bettigotti@gmail.com.

Goizuetako erakuntza enpresak mugaren bi aldeetan lan egiteko obra teknikaria behar du. Derrigorrezkoa frantsesez jakitea eta gidabaimena

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **15 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **20 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

izatea. Interesatuak deitu. ☎639 70 84 14.

Beola Etxean egunerokoan eta asteburuetan eguerdiko zerbitzuan aritzeko zerbitzariak behar dituzte. ☎948 63 07 09 / beolaetxea@gmail.com.

Muebles Ametsen muntatzaile bat behar dute. Astelehenetik ortzirale-
ra. ☎948 63 05 37 | 644 61 78 66 / info@mueblesamets.com.

LESKA. Zerbitzari bila jardunaldi osoan aritzeko. Astero astelehenak, igandeak eta asteazken arratsaldeak libre. Esperientzia izatea kontuan hartuko dute. Interesatuak WhatsApeez idatzi. ☎620 70 09 64.

LESKA. Bi zerbitzari behar dituzte lanaldi erdian aritzeko. Aste bat goizez (asteartetik larunbatera, 08:30-12:30/13:30) eta bigarren astean

arratsaldez (asteartea, ortzeguna, ortziralea eta larunbata, 17:00-21:00/22:30). Bi kasuetan igandeak eta astelehenak libre. Esperientzia izatea kontuan hartuko dute. Interesatuak WhatsApeez idatzi. ☎620 70 09 64.

Haurrak zaintzeko neska arduratsua nahi dute. Astelehenetik ortzirale-
ra goizez, 07:00etatik 08:00etara. ☎640 95 30 02.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Border collie txakurkumek oparitzeko. ☎683 45 82 09.

LEITZA. Collie arrazako txakurkumek opari. Hori bai, ongi zainduko dituenari. ☎636 02 23 11.

LEGASA. Leku faltagatik hiru zakur adopzioan emateko. Bat euskal arrazaina, bertze bat border collie arrazakoa eta hirugarrena mestizoa. ☎670 58 26 68.



Border Collie arrazako zakurra oparitzeko, jabeek ezin dutelako arduratu. Nere izena du, 5 urte ditu eta baserri ingururako egokia da. Badu pasaportea. ☎661 97 52 59.

BERTZELAKOAK



Zilar arrazako euskal oiloak dituzten baserri batean, oilarra (dotorea) aldatu nahi dute arraza bereko bertze batekin. ☎673 81 48 56.

SALGAI



4 urteko aharia salgai. ☎674 05 6397.

DENETARIK

SALEROSKETAK



Pago eta haritz egur idorra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurteko suarendako. Etxera eramateko zerbitzua. ☎690 08 56 65.

ETSren Madrilgo kontzerturako 5 sarrera salgai. Interesatuak bidali mezua WhatsApeez. ☎640 70 76 83.

Liburuentzako hiru armairu salgai. Gerezi egur trinkoa (mazizoa). Bigarren eskukoak, baina egoera onean, berriak bezala. Bakoitzak 94 cm

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 7,43 €
- 1.koa 7,35 €
- 2.koa 7,10 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 7,53 €
- 1.koa 7,40 €
- 2.koa 7,20 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 285,00 €
- Idixkoak 390,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 130,00 €
- Idixkoak 240,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 6,03/6,33 €
- Zaldi-behorrak 2,52/2,69w€

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 9,65/9,75 €
- 8-10 kilokoak: 7,75/8,45 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 69 €

Zerri gizona 1,270 €

Zerramak 0,560€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernuaren martxoaren 23tik 29ra bitarteko prezioak)



zabal ditu; handienak 198 cm-ko altuera, ertainak 163 cm-ko altuera eta ttikiak 130 cm-ko altuera. Kristalezko ateak, irekitakoan gordetzen direnak. Aukera ona. Berez, 5.207 euro balio dute eta 2.800 eurotan. ☎616 55 84 06.

GALDU-AURKITUAK



BERA. Kultur etxeko areto nagusian antiojoak aurkitu dituzte, segur aski martxoaren 1eko kontzertuan galduak. Egun horretan Berako bandak eta musika eskolak eskaini zuten kontzertua. Herriko etxeko harrera bulegoan daude.



BERA. Giltza horiek, martxoaren 6an, Eztegarra pasealekuan aurkitu zituzten. Iturlandetako Sara kafetegian daude.

MOTORRAK

TAILERRAK



TOYOTA HILUX
Kabina bikoitza GX | 2019. urtekoa
177.900 km



CITROEN BERLINGO
HDi 100 | 2018. urtekoa
79.000 km

Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847
@baztangoiza_tailerra
www.baztangoizataillerrak.com



**SANTESTEBAN
TAILERRAK**




DACIA DUSTER PRESTIGE
dci 115 CV
2022. URTEKOA
45.500 KM

AUKERA BIKAINA!

www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282
info@talleressantesteban.com

URTEBETETZEAK



Arantzako **Oihan Ordoki Velezek** urtea bete du apirilaren 1ean. Zorionak familia guziaren partez eta bereziki Laurendiren partez.



Lesakako **Maren Maia Larralde** 5 urte beteko ditu apirilaren 11n. Zorionak eta muxu handi bat familia guziaren partez.



Zorionak Lesakako familiaren partez, 2 urte bete dituen **Valentina Galindo Alvarenga** Arbizuko neska politenari!!! Maite zaitugu!!!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak **TTIPI-TTAPAN!**

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrrak> helbidean sartuta; **TTIPI-TTAPANEN bulegora** etorrita, **postaz** argazkia eta testua helbide honetara bidalita: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA edo **Whatsapez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: 5 € argazki ttikia eta 10 € handia. Bulegoan eskudirutan edo ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA webgunean sartuta: kreditu txartelarekin, transferentzia eginez edo Bizum bidez.

KONTATU KONTUAK



Errigorako opariak Igantzira eta Arantzara. Aldi honetan ere erantzun ederra izan du Errigorako bi saski lortzeko **TTIPI-TTAPAK** egindako lehiaketak. Galderak zuzen erantzun zituztenen artean, zozketa eginda, Igantziko Rafaela Zamorano Aguilar eta Arantzako Angel Mari Pikabea Zubieta izan dira sarituak. Zorionak eta on egin dizuela!

EZKONTZAK

• **Jean Paul Badie** eta **Ilaría Cacciaquerra**, martxoaren 14an, Saran.



KULTURKARI

Diseinu grafikoa | Publizitatea

www.kulturkari.com

Jatetxe eta ostatuak

Menuak, kartak, mahai-oihalak...

Hainbat material, erabat pertsonalizatuta



URTEURRENA

Joseba Andoni
URDANITZ ETXEBERRIA
2002ko apirilaren 2an
XXIV. URTEURRENA



Paula
ETXEBERRIA IRIGOIEN
2025eko apirilaren 2an
I. URTEURRENA



*Udaberriak bizia ekarriz,
zuen askatasun modua
gogoratzen du,
zuen ametsak
buruan izanik,
zuen indarra
gure egiten dugu.*

ZUEN FAMILIA

OROIGARRIA

Iñaki
ERASUN ANTFORENA
Donezteben, 2026ko martxoaren 24an, 39 urte zituela

*Eskerrik asko
zure laguntasunarengatik,
zure irriagatik
eta elkarrekin pasatutako
momentuengatik.
Hain goiz joan arren,
betiko gure bihotzean!
GOIAN BEGO.*



ZEKI KUADRILLA

HILBERRIAK

- **Carmen Mazizior Jadraque**, Doneztebekoa, martxoaren 18an, 85 urte zituela.
- **M^a Jesus Zubillaga Gabirondo**, Leitzakoa, martxoaren 19an, 79 urte zituela.
- **M^a Jesus Goienetxe Iringarain** Amaiurkoa, martxoaren 19an.
- **Miguel Errandonea Unsain**, Arantzakoa, martxoaren 21ean, 82 urte zituela.
- **Santiago Burkaizea Arratxea**, Elizondokoa, martxoaren 21ean, 82 urte zituela.
- **Atanasia Goizueta Goñi**, Lesakakoa, martxoaren 21ean, 90 urte zituela.
- **Iñaki Erasun Antxorena**, Doneztebekoa, martxoaren 24an, 39 urte zituela.
- **Maria Luisa Elizegi Jaimerena**, Arraiozkoa, martxoaren 24an, 91 urte zituela.
- **Tomas Zia Gaztelu**, Anizkoa, martxoaren 24an, 92 urte zituela.
- **Juan Antonio Arburua Urtxegi**, Berakoa, martxoaren 28an, 60 urte zituela

OROIGARRIA



Joxemi
PETRIRENA MURUGARREN
Sunbilla, 1963-2026

*Eskerrik asko une hauetan
babesa eta elkartasuna
adierazi diguzuen guztiei,
baita hainbat bidetatik
eta sare sozialetatik
ailegatu zaizkigun mezuengatik ere.*

ZURE FAMILIA

Oroigarriak



- Personalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira

KULTURKARI www.kulturkari.com
Tel. 948 63 74 04

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es

Baztan Bidasoa Ehorzketak

BAZTAN
ELIZONDO · Santiago Kalea, 79

MALERREKA · DONEZTEBE
Mourgues etorbidea, 24

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere.

24 ORDU |

948 48 95 50

365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IZARRA

HERRI, ZURE ONDOAN
ANIMA NOLANDO



Gure burra, gure jendea, gure sustraiak

TANATORIOAK

• ELIZONDO

• BERA

• DONEZTEBE

• ARANTZA


• IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90


www.izarratanatorio.com

HITZ GEZIDUNAK

	Nafarroako kontzejua	Gara	Galera	Emakume izena	Kakatsua
	Hobik eza	Iragazia	Egoekin mota	Altea	Nazional-sozialista
	Obrak				
	Hegaldatu				
Frutas, emaitza	Lege		Itura		
◆ izena	Pl., bako gu-bako dirua		... bat, batez ere		
			◆ Abuzua		
			Nalzen honak		
Uretako bizidena				Bokal erropikabua	Azkeneko bokala
Taerri				Nahastura aski trinkoa	Abere beltz-erri handia
		Gizon izena			Bokal erropikabua
		Artileria pieza			Ibas arrain mota
Ahate kume			Usain bar		
Galbate, bahe			Modua		Euskal sindikabua
				Suari dario	
				Zibarra	Landare aranzabua
					Musika nota
Izadia				Nafarroako udalerria	
Ikusten ari gara				Urakoa	
					Burdinolak

◆ Sunbillaiko zinema zuzendaria

GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gubiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Lesakako dorrea. [2] Geziak jaurtikitzeko arma. [3] Hegazti harrapari. [4] Antzina Europako sartalde osoan kokaturik zegoen herri indoeuropar batekoa. [5] Alde nagusiaren kontrako alde. [6] Gabezia. [7] Nafarroako udalerria, Oibarren. [8] Zurginaren lanabesa. [9] Ez zaila. [10] Zoruko zikinkeria biltzeko tresna, isatsa. [11] Erbestea.

ERANTZUNAK



PLAZAN BAZAN

MARGOTU

Eman kolorea paisaia honi. Udaberriko kolorez margotu.



SUDOKUA

Bete itzazu sudoku honetako hutsuneak HODEIA hitza ipiniz (H, O, D, E, I eta A). Oroitu hizkiek behin agertu behar dutela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

		O			
			I	A	
I		H			
		A	H		E
	D	I			
			D		

MEZU GORDEA

Beheko hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, eman irudi bakoitzari bere hizkia eta Janus Lester taldearen kanta ezagun baten leloa agertuko zaizu.



MARAZTU

Noizbait begiratu al diezu hodeiei? Ikaragarri dibertituko zinen, ez? Izan ere, hodeiek forma harrigarriak hartzen dituzte. Marraztu ezazu, zakur, katu, elefante edo hartz forma duen hodei bat. Eta, ondotik, kamioi forma duen bertze bat.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H
I	J	K	L	M	N	Ñ	
O	P	Q	R	S	T	U	V
X	Y	Z	.	,	!	?	



INTERNETEN ERE BAI!

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU TRUK

% 80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.erran.eus/kideak

898 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Wow park - Sarrera bat

Marta Ugarte Marin | OROÑOZ

Arantza Hotela - SPArako sarrera + gosaria

Haizea Errandonea Iriberrí | DONEZTEBE

Sarako lezeak - Sarrera bikoitza

Ana Matxikote Alkaiaga | BERA

Hotel Baztan - Bi lagunendako menua

Mari Paz Irigoien Irigarai | ARIZKUN

Buatxabal - Bi galtzerdi pare

Axun Irazoki Arburua | ZUGARRAMURDI

Mendukilo - Bi sarrera

Miguel Telletxea Etxeberria | EZKURRA

La Perla - Talasoterapiarako bi sarrera

Ana Belen Sarraatea Elizalde | BERA

Bihatx - Bi sarrera

Mikel Arregi Mindegia | DONAMARIA

Baztango Xurie - Bi botila ardo

Endika Mendegia Iantzi | LESAKA

Anikote - Spinning saioa

Jose Ugartemendia Armendariz | LEITZA

Ibaizabal - Bi liburua

M^a Jose Agerrebere Iturralde | ZIGA

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

ARANTZA HOTELA

www.arantzahotela.com



SPArako sarrera bikoitza eta gosaria

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat lezeetarako

HARA BI

www.harabi.eus



Kamiseta bat

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

PUNTUTAN

www.puntutan.eus



Aukeratu gure diseinuetako bat

IRRISARRI LAND

www.irrisarriland.com



Sarrera bikoitza

SALTOKA JUMP

www.saltokajump.es



Sarrera bat

MARTIKO

www.martiko.com



Lote bat

SAGASTI

Elbarren, 98 | LEITZA



Bi lagunendako menua

TXALAPARTA

www.txalaparta.eus



Bi liburua



Sartu

ttipi.eus/ttipe-txartela

eta ikusi
abantaila guztiak!

Oraindik ez duzu **ttipi txartelik**?
Egin zaitez **ttipi lagun!**
Ez galdu sari izugarriak irabazteko
aukera eta zure inguruko komertzioetan
deskontu eksklusibo izanen dituzu!